

Andik eta Emendik

Urte deunaren amaya.

Urte Deuna; egiz pozgafi eta gomutagafia izan da katolikotarantz, gure zinestearen sendotasun eta batas inaren agerkai edera izan dalako. Inoz ikusi ez diran lako bidezkunde eta yai eleizkizun edera egin dira Urte Deun onetan, eta amaitzarik edera izan dau.

Lenen lotaziã'ren 24'n aratsaldeko ordu bietan, italitar bidezkiez gañera, españar, ingalanda, pantzeta, Kanada ta ipar-amerikar bidezkunde ugarien aurrean, 30.000 lagun baño geyago bertan zirala, Aita Santuak, Ate Deuna itxi eban, lenengo iru buztinafi edo ladriñuak onetsi eta ipiniãz. Gustiz eleizkizun edera izan ei zan.

Andik zortzi egunera urtearen azkenengo egunean Aita Santuak yai edef bafi bat ipini dau. *Kisto'ren eregetza* deritzon yaya. Egun ofetan Doipurua Batikano eleizara yatsita, Kisto Eregearen mesa andikiro abestu ondoren, gizadi gustia Yosu'ren Biotz deunari opaldu dautso, eta auxe egin da ludiko eleiza gustietan be. Yai bafi au zegaitik eta zein asmogaz ipini daberen «Quas primas» deritxon idazki edera azaltzen dau, Kisto gure Yaunak gizon, sendi, eri ta latefi, gizarte gustien gain erege eskubideak dauzala argiro irakatsiaz; eta beraz gizadi gustiak eskubideok autortu bea dituala. Eta egi au kistaren biotzetan zabaldu eta irafteko biderik egokiena yai bat izen onegaz ipintea dalako, 500 gotzaneke baño geyagok eskatu daberen yai au eleiz egutegian ipini dau.

Yai au auferantzean Uriã'ren azkenengo igandean ospatuko da, agoz aitortu eta egitez be Kisto gure Yauna gizadiaren Erega izan daiten. Auxe zan ba, XI'n Pio gufariak, bere lenengo Doipuru-idazkian agertu eban asmoa: «Kisto'ren bakea, Kistoren Bakalderian» zabaltea.

Biraoen aurka.

Oitura naskagafi au, bein betiko gizartetik bazteftzeko agintariak alegin gustiak egingo ba'lebez, euren bearkuna bete baño ez leukie egingo. Baña agintariez gañera gogo oneko gizonak be asko egin lekie, egiten daberen baño

geyago beintzat. Eta emendik urintxo baña, onangoak be bai dira.

Verona Italia'ko urian, tranbi-ugezabak auxe erabagi dabe: Beaf dituen 3 000.000 tranbi-txar-teletan idazkun auxe izki garbiz ipintea: *Biraoen aurka egin*. !Bide edera, efeza ta egokia, edonon artu leikena. Orixe berori emengo bultzi ta tranbi-yaubeak ez ete lekie egin? Ez ete leikez itzok ola ta lantegietako tokirik agirienetan ipini? Ainbeste zigof sendi eta erietara dakafen birao iguingafia bazteftzeko zer dala-ta *gogoneko* gizon gustiak ez alkaftu?

Alemania'ko Katolikotarak.

1923'n Alemania'n 20.320.472 ziran Katolikotarak. Lau Gongotzain edo Artzobispo eta 22 Gozain dagoz.

Abadeak 19.540 dira, lekaideak 9.724, eta lekaime edo monjak 69.644.

Alemania'n lan asko egiten dabe gure anayak, baita egin beaf be, etsayez inguratuta dagozala. Egunoroko izparingitan bakañik, 451 argitaltzen dabez.

Irlandaren Lendakaria Eroma'n.

Lengo urtearen erdi ingururantz, Kosgrabe, Irlanda'ko Lendakaria, Eroma'n izan zan, yubileoa irabazten yoanda. Eta bere efitarak oso pozik ei dagoz euren buruari aferarik edera egin eutselako. Bidezkundez yoan afen, Italia'ko agintariak berarizko bultzia ipini eutsoen, eta Latefi buruei dagokien omena egin be bai. Batez be ostatuz egoan etxean be gau ta egun gudarai zaintzañeak ipini eutsoezan.

Batikano'an bafiz esan beañik ez da andikiro artu ebela. Beragaz yoan ziran irlandar gongotzain bi eta zortzi gotzain, eleiztar ugariak inguruan zituezala, eta Aita Deunak gustiei itz egin ondoren, berariz ikeftu eben Kosgrabe eta bere emazteak, eta Aita Deunak gomutagafitzat urrezko domiña edera emon eutsezan. Irlandaren buru au oso begiko eginga Eroma'n, batez be bere ekaftasun eta yainko-zaletasuna argiro agertu dauzalako,

Bide onera.

Kunte Rockne, Ipar-Amerika'ko ostikolari ospetsua katolikotar biurtu da. Kirolzaletu aurretik kimka ikasi eban eta gai onetzaz idazti bat argitaldu be bai. Baita ipuin-idazti baten egile da. Nonbait, ankak ez eze, burua bezolia dau gaste onek e a esan geinke orain arte irabazi dauan yokorik onena, katolikotar biurtuaz irabazi daua. ¡Yauna'ri eskerak!

Yaunaren zigoia.

Maupassant deritxon idazle pantzetaña gaiztoetarikoa izan da. Biraorik ikaragarrienak idazten izan ditu Yaungoikoaren aurka, baña gixajoari bere txandea eldu y. ko. Zearo bere burua galdu dau eta zoro-eixe baten sañtu beañ izan dabe. Zeruruntz txistua yaurtiten dabenari..!

M'lañ G.

ZER EDO ZER

Ipuña ala.....

KISTO gure Yauna Efegetzat gaurko gizartean ez dabe gura askok, gizarteko Efegetza bere izatez eta irabaziz dagokionafen. Eta Yaungoikoagandik aldendu ezkerko gizartea gero ta gaizkiago ibilten dala adirazteko, Klabarana ospetsuak antxinatxo idatzi eban ipuin antzeko yazokuna ementxe euskeralduta ipintea egoki deritxogu.

* * *

Sutunpa ots ikaragariak bazter gustietan entzuten dira, ta mundua bere lo-zorotik esnatzen dabe.

Paris, San Petersburgo, Berlin eta Eroma dinamita oruak dañatu ditu. Ludi gustia bilduz dago. Supin-oruak entzunda, *Zibilizaziñoa* deritxon andreak leyora urtenda, leyoepen basati talde bat ikusten dau. Bere semeak dira, eta egun onak emoteko kañoi dunbada bat yaurtiteko gertu dagoz.

—Ene semeok, ¿zer gura dozue?—indañ

gustiaz ots-egiten dautse—zer gura dozue zeuen amari bakea kentzen etorteko?

—¡Azkatasuna gura dogu!

—Zer diñozue? Ez dautzuedaz emon, idazteko azkatasuna, irakasteko azkatasuna, guftza edo erlejiño azkatasuna, oldospen askatasuna, kontzientzi azkatasuna, eskontza azkatasuna be? Ze beste azkatasun gura dozue?

—Azkenengo ta gañantzitsuena: azkatasunagaz irakatsi dauskuezanen ondorenak atarateko azkatasuna.

—Eta nik emondako azkatasunak zer irakatsi dautzue ba?

Lenengo:—Yaungoiko ta ugazabarik ez dagola.

Bigañen:—Gustiok bardiñak garela.

Irugañen:—Besteari agintzeko eskubiderik iñok ez daukola.

Laugañen:—Yabetasuna lapur eta bat dala.

Boskañen:—Aberatzak lapur batzuk dirala.

Seigañen:—Lufekoa baño beste zoriontegririk ez dagola.

Saspigafen:—Gozartzen ez dabena lelo bat dala, naiz ta ofetarako gizadi gustia ondatu.

—Baña ori kirtenkeri izugafi bat ba'da!

—Ez dautso ardura.

—Ori ludia ondatzea da.

—Ez dau ardura.

—Ori basatikeria, gizabatza sakabana-tzea da.

—Ez dau ardura.

—Eskergaiztokook! il egin gura nozue! ¿Neure nekeak olan ordaintzen daustazue? Nik zuek azteko ainbeste lekaretxe (konbentu) luferatu, ainbeste eleiza birindu, ainbeste lekaideri burua mostu; nik zuek azteko irakasle liberalak bilatu dodaz zuei liberalkeria iraskeko, olefkari liberalak zuei iraskizun liberalak bururatzeko, eta ereslariak be liberalak zuei azkatasun abestiak irakasteko, gusti ori aurkitu eta orain ori egiten daustazue?

—Ondo da, ama, oregaz yan-gurea biztu dauskuzu, baña yatekoa noz emongo dauskuzu?

—Baña zer yan gura dozue?

—Zoriona, aberastasunak, atsegiñak, aukerak, itz baten, ludi onetako zorionaren atala.

—Mundu onetan zerua? jori da kirtenkeria!

—Zeuk eskiñi dauskuzu ba!

—¡Kirtenok! ez daustazue uleñten.

—Zeu zara guk diñoguna uleñtu gura ez dozuna.

—Zuen ama il gura dozue?

—Geure ama zeuk il zenduan lez.

—Ez eidazue aitatu be, ilunzalea, atzerakuntza zalea zan. Eleizaren irakatsipean ipiñi gura nindun eta orixegaitik il neban.

—Eta guk ziñestu egin geuntzun, eta esku *iletan* egozan artean, ondasunetatik zure esku *bizietan* yausi ziranean baño onura geyago ataraten genduan afen, zure

itzai yaramoteafen yaiki giñan eta gur amama erail gendun. Gaztaya zure eskue tan yausi zan, eta orduxetik banakuntz zure eskuetan euki zendun. Auferapenak ekintzak, yakidiak, gustia gaztai au eder tuteko izan ziran. Gaztaya, osotuez, edertuez, gozatuez yoyan, eta bitartean, zer yakitunena ziñalako, zeuk bakafik yater zendun.

Zibilizaziñoa betozkoz eta bildurtzer asi zan, eta alegiñez esan eutsen:

—Ene semeok: Al izan dodana egin dot; irakaskintza (ilustraziñoa) emon dautzuet, azkatasuna be bai....

—Baña gaztairik ez dauskuzu emon.

—Zintzotasunak bere legeak daukoz, zuzentasuna eta ziñegiztiak (moral) be bai.

—Eta guk zuzentasun eta *zer* ofetzaz *zer* dakigu? Ez diñozu ba gizona tximiño bat dala? Gu abere batsuk gareala ez diñozu? Mundua gaztai bat dala ez diñozu? Geroko tizitarik ez dala ez diñozu?

Zibilizaziñoak bere senetik urten dau, eta il ala menperatu be ste biderik ez dago igafita, su-izkiñuak atarata bere semeen kaltez yaurtiten asi da. Semeak lenengotan izututa iges alde gustietara banandu'en dira; baña gerotxoago bariro alkañtu eta eralduaz, yaiki eta itxulaskundeta naspil ikaragañiena egiten dabe. Supin-orua bazter gustietan entzuten da, eta gizartea, bereak egin dabelakoan, dardaraz dago. Bapatean beso sendo batek ezpatakin *Zibilizaziñoari* lepoa mostuten dautso. *Zibilizaziñoa* yausten da eta bere eskuetan eukan gaztaya bilinbolaka asi da.

Esku piño andia luzetuta dakust gaztaya añtu gurarik, baña azkenean be ezpatadunak eskuan añtu dau.

—¡Garaitza! didaf egiten dau eñiak toki gustietan. Gaztaya gurea da!—Gora bail diño gaztaidunak, baña gaztai oni ez dautso iñok ikutuko.

—Zer da ori? ¿geu lez éfitaña ez ete zara ba? ¿Geuk ez dautzugu garaitza irabazten lagundu? ¿Zer dala-ta ba ez dozu gaztaya banantzen?

—Zatitu ezkeru neuretzat gitxiago geldituko litzakelako.

—Zatitze ori zuzentasunak eskatzen dau baña!

—Eta nik zuzentasunagaz zer daukat zer ikusi? Ezpataduna nazan artean gaztaya neurea izango da.

Gizozteak asafez izkiñuak ártzen ditu, odol baña ixuri da, ta askotxo erail ondoren, espataduna menperatzen dabe. Gaztaya bañero luñean bilinbolaka dabil. Onetan gustiak eskuak ezañi dautsiez, ta batkotxak beraganatu gura dau.

—Batzorde bat izentau beař da.

—Neu izango naz batzordeko!

—¡Neu!

—¡Neu!

—¡Neu!

—¡ññor bez!

—¡Gustiok!

Izugañizko zalaparta sořtzen da, ibai antzera odola izuritzen da. Eñia geroago ta asafeagoa da; ainbeste buřuka ondoren agintarikeria zer dala amaitzen ez dan ezin dau ulerřu: ¿Au zelan ete da?

—¡Gixajook!! — goitik didařtxo bat entzuten da.

Basatiak burua yasoten dabe, eta zeruan emakume arpegi bat ikusten dabe.

—¡Ene amama! jene amama! odolztan belaunikotuta didař egiten dabe. Yatsi, amama, yatsi zaitex bakea ekarteko.

—¡Ene semeok! zoritxafeko semeok: bakea zelan ekañiko dautzuet zeuok baretik iges egiten badozue? Egoera txar óretatik zelan urtengo dozue, *zeuen Gaizkatzale bakařagandik* iges egin ba'dozue?

Eñiak burua makurtu eban eta oldosten gelditu zan,

Oldosten, pentsetan itxi dayogun, goiz edo belu bide zuzena non dagoan igañiko dau-ta.

Au gitxi-asko geure begiz ikusi dogu, eta Kisto Gure Yauna gizartetik yaurtitzen alegitzen diřan neuriz, beti gertauko dana da. Bere Eřegetza autortu ta zabaltzea beař beařekoa da ba, Goiko bakea geure artera ekañi gura ba'dogu.

GAMA.

Euskal-eriko erti-lanak

(Mendexa'ko santu zaña)

Neufkin bat inguruko olezko iruditxu onek gotzain deun bat adirazoten dau eztakie zein Mendexa'řak. XV'g. gizaldikoa-edo da, buruko *mitra* ta oialen landuera sakonak dikuřanez. Irudi zařenean buruko apaingafi ori eun zapal bat buru inguruan lotuta edo atzerantz dingilizka ipinten zana da; geroago Sortaldetik ekañi zan era bañi au, baña motxa ta beko egalean daroan zeřenda biribiña ta goitik berakoa (irudi onetan agiri eztana) eukazala edeřgaitzar; XVI'g. gizaldian biok galtzen dira ta gotzain-burukoa andiago egiten da. Artzain mañlari ganeko okel-unea apurtu yako, baña zařenek ausian amaitzen ziran, T antzera. O.



MUNDUA ZELAN ZUZENDU

Bein baten, zikoitz bat, kaskarin bat, alpeř bat eta zein oñetatik bakoitza eřena zan ondo ekian aguratxo bat bilduta egozan.

Mundua zuzentzen ziarduen.

Zikoitzak ziņoan gizarteko gaitz gustien sustařa, lujoa eskatzen eban; lařegi gas-tatzetik gaitz gustiak sořtzen zirala ziņoan.

Kaskariņak ostera, oraingo gaitzen sus-tařa, aberatzen dořořkeria zala esaten eban, eurentzat aukera ta atsegin danak eukiteařen, besteak bape barik itxiten ebezelako.—Zer dala ta eurak ondo yantzi ta yan, eta gu ezerbe barik?

Alpeřak ostera, oingo makiņeriai eřua ezarten eutsen; eurak gizonen orde z lan egin eta gizonak ain barik itxiten dituela-ko.

Aguratxoak autu au entzun eban, baņa berak ezer, esan barik.

Onetan alako ludi konpontzale batek esan eutson:

Tira aitona, ¿zuk mundua zuzendu lei-kela uste dozu?

Orduan agureak esan eban:

¿Ba'kizue zelan? Bakoitzak bere burua zuzenduta.

Eta aretako bakoitzari esan eutson:

—Ik txindiari zaletasun gitxitxoago...

—Ik kaskarinkeri gitxiago.

—Eta i bařiz lanera...

Egi gařatzok entzun zituenean, agura-txoari iņon diranak esanaz beragandik al-dendu ziran.

Eta alan be edonok daki aguratxoa zu-zen egoala, bakoitza zuzen ibiři barik mundua zuzentzerik ez dago-ta. Baņa... gure asabak esaten eben lez: «Egia, eře-gařia» izan...

Andik eta Emendik

¡Merzier kardenala il da!

Izpar samiña katolikotar gustiontzat, eleiz gizon ospetsu onen eriotz-izpara, baña egia da-ta, bere afean burua makuftu beaf...

Gizon yakintsu, ta zuzenzale adoreturik izan bada, berau bestean gitxi.

Bere yakituria, batez be, pilosopi gayetzaz idatzi dituan idatzi bikañak agertzen dabe, eta lefo bat idatzi ezpaeban be, Lovaina'ko Ikastetxe Nagosia gauř dagoan mařara yaso dabena bera izan dala yakitea, naiko litzake.

Ikastetxe onetzaz toki onetan oraintsu zerbait esan gendun eta, bafiro ez goyaz ekiten, baña ain begiko yakun ikastetxe au, beste edozein ikastetxen eredutzat ipiñi leikela, bai.

Bere asmoa auxe izan zan: Gauza zar onak bafi onakaz alkaftu; gauza zar txafak, bafi txafakaz baztertu.

Egizko auferapenak eta sentsunak auxe erakusten dabe, baña... bazteretan urř agertzen dan gauza da.

Bere yaungoikozaletasuna ain agirikoa zalako, orain emeretzi urte, yanzkordun (kardenal) autu ebanean, X'n Pio'k esaten eban: kardenal aututeko geyago bultz egin eutsuola emon zituan onoimen ikasbide edefak, Belgika'ko, gotzain buru izateak baño.

Gotzain bikain onen zuzenzaletasun eta adoretaz, ez dauku ezer esan beafik, gustiok gomutatzen doguna da ta.

Orain amabi urte etsayak aberia zuzitu eutseanean, euren erdian zegoala, artaldearen alde bizitza emoteko gertu egoan artzain lez, ñoren bildur barik, azaldu ebazan bakoitzaren eginbeafak, eta etsayari egotzi begien afean bere gaiztakeria. Benetan agertu eban, bere biotzean egiaren indafak geyago agintzen ebala, indafaren bildurak baño.

Auxe dala-ta gizarfe gustiei begiko egiten izan yake, eta bere ospea ludi gustian zabaldu ta egoan.

1851'n Azila'ren 21'n yayo zan. 1874'ko Yořala'ren 4'n abade egin, eta ikasteak amaituta 1877'tik 1906'ra urterik geyenak Lovaina'ko Ikastetxe Nagosian irakasle ta lendakari egin

zituan. 1906'n Malinas'ko Gongotzain eta 1907'n kardenal autua izan zan.—Urtařila'ren 23'an il da.

Merzier yanzkordunaren eriotzea bere bizitza lakoxea izan da, bere azkenengo itzak onexek izan dira: «Yauna, zeure guraria egin bedi....»

Eta auxe da geuk bere eriotzea gomutatzean diñoguna.

Klaret A. M. agurřariaren omenez.

Miren- Biotzeko-Seme argien, irasle izan zana zoriondunen artean ipinteko aspaldiko lanak auřera doaz, Kuba'ko Gongotzain bikaña izan zan, eta itzaldi ta egitez Paul deunaren antzera, gaiztakeria ontasunaz itoteko lan asko egin eban gotzain eredia. Etsayakandik asko yasan igaro eban, eroapen andiz Kisto'ren yařaitzale zintso lez, eta oraintsu Aita Santuak, bere bizitza auzi-bidez azteftu ondoren, autoftu dau, deun izateko beaf diran onoimenetan goirengo mařaraño, Klaret Agurřariak igon ebala. Beraz laster zoriondunen lefoan ipiñiko dabe, dirudienez. Geure zorion agurřa M. B. S. argi ta langileai.

Aztiro baña ondo.

Idatzi Deuna, geyenez iberkeraz idatzia izan zan eta, izkuntza au ain ezaguna ez dalako izan, lenengo gizaldietatik lateraz biurtuta erabili izan da toki geyenetan. Lateraz itzulitakoan artean «Vulgata» deritxona onentzat Eleizak autu eban. Eta yakiña ainbeste esku-idazte ta irarkaldietan, gauza gařantzisuetan izan ez ařen, aldaketa batsuk beti izaten diralako, itzik egokienez itzuli, eta ainbeste iyekien artean diran aldeak erarik onenean alkařtzeko, X'n. Pio agurřariak, ardura ori Beneditarř aba langileai emon eutsen.

Beřogetamarř lekaidek latefi gustitakoak *amazoftzi* urtean lan oferi ekin dautse, eta aldi ofetan, eskuz idatzitako *Saspireun* «Vulgata'ren iyeki, *amaikagařen gizaldia* baño lenagokoak itzez-itz aztertu dabez eta, erkatu ondoren, zuzendutako «Vulgata» irarřteko gaya gertau dabe.

Beneditaŕen eroapena antxiñakoa da, baña egiz agertu dabe gai onetan daukien ospea ondo irabazia dala.

Amerikaŕ idazle batek gai onetzaz auxe esan dau: «Eŕoma'ko eŕotak leunkiro ibilten dira, baña egiten daben uruna oso zea ta leuna da». Oin-goan bizkor eta urun ona egin dabela esan geinke.

Eta Idazti deuna dala-ta.

Europa'ko izpaŕingi batsuetan zabaldu da, Ka-rintia'ko Paul deunaren lekaretxean dagoan *Biblia* ospetsua, Guttemberg'ek egindako bat, Ameriketara saldu dabela. Eta ori ez da egia. Idazti ospetsu au Amerika'ra eroango dabe, baña erakusteko bakaŕik. *Biblia* au Guttemberg'en aldietatik Beneditaŕena izan da. Egia da, idazti onegaitik amerikaŕ batek *130.000 dolār* emon gura izan dituala, baña beneditaŕak ez dautse saldu gura izan.

Ingalanda'ko Katolikotaŕak.

1924'ko urtean ango katolikotaŕak 39 eleiza baŕi txiki ta andi idigi ebezan, eta urte oŕetan bakaŕik protestantetaŕen artetik katolikotaŕ egin diranak, 12.356 izan dira.

1925'ko zenbaketak ondiño egiteko daukez eta uste dogu, oneratzea: ugariagoak izango zira. ¡Yaunari eskeŕak!

M'laŕ G.

ZER EDO ZER

Kristiñau ikasbideatzaz.

KRISTIÑAU IKASBIDEAREN bear izan, garantzi, onura eta igali ederatatzaz, safi askotan eta luze toki onetan idatzi dogu, baña iñoz be ez gara aspertuko gai oneri ekiten, geure asmorik lenena, ta arazor k bikañena dalako.

Gustiok dakusguna.

Gustiok tamalez beterik ikusten dogun gauza da, Euskaleñian lengo ziñeste zintso ta sendoa, argaldu eta epelduaz dojala; erbestetik ekañitako oitura lizun eta naskagañiak, bertoko ekandu garbi eta ederak, ito ez dituen tokian, baztertu egin dituela. Ori ikusita, bai'dirudi, gogo zintsodun gustiak alkañtu eta alegin gustiak egin bear litzakezala, gaitz oneik sustařetik atara, edo beintzat esituteko. ¡Bai zera!... Batsuk onezkero gexo onentzat osakairik ez dala, eta onezkero alegin gustiak alpeřekoak izango litzakezala-ta...ezer egin barik besoak idunduta

gaitz negařgari onei begiratzen dautse. Beste askok, emakume negartia lez, ileta asko yo-ta... au, ori ta bestea *egin bear litzakela-ta... ezer egin barik* astia emoten dabe. Eta etsayak ziñeste eta ekandu onen kaltez gogoř lanean... eta bide gustiak zabalik aurkitzen dabez. Ařitzekoa ete da ba ziñeste ta oitura onak epeldu ta galduaz yoatea?...

Gaitz onein sustařa.

Bakařa ez dala izango uste dogu, baña egiz esan geinke, X'n Pio Aita Santuak, Kristiñau-Ikasbideatzaz idatzi eban *Acerbo Nimis* idazkian esan ebana: «Besteen eretxiak ez doguz ezesten, baña gogoko aultasun eta yausikeria, ainbeste kalte dakařzana, batez be kristiñau ikastia ez yakitetik datořela uste dabena-kaz gagoz».

Eta Kristiñau ikasbidea ez yakitea nondik dator?

Gurasoak, irakasleak (maixuak) eta abadeak Kristiñau Ikasbidea irakasteko

beaŕkuna daukie. Au da beaŕkun argi ta garbia, Eleizak bere Legedian ipinten dauskuna. Lege estu-estu au betetan ete da? ¿Zelan? Bere astuntasunari dago-kionez bai? Gurasoak ao batez esango dauskue, gaur ikastoletan Kristiñau lkaskiderik ganoraz ez dala irakasten, eta askotan ganora barik bez; eta ori egia dala yakiteko abadeak ez daukie gurasoen esan beaŕik, eurak tamalez ikusten daberen egi gaŕatza da-ta. Bestetik egia andia da, irakasleak gurasoen ordez eta Eleizaren aginduz Kristiñau lkasbidea irakasteko beaŕkuna daukiela eta España'n, Eleizagaz egindako Itunben edo Concordato'aren indarrez «egunoro, naizta laburtxo, Kristiñau-lkasbidea eta Edesti deunaren atal bat emon beaŕ dala» (Art. 34). «Eta Kristiñau lkasbidea Goterkiko Gotzañak izentauko daberen idaztitik irakatsi beaŕ dala» (Art. 87). Eta yakiña, euskal-erietan euskerazkoa izentauta dagolako, euskeraz erakutsi *beaŕ dabela* esan beaŕik ez dago. Eta Eleizagaz alkar aitu barik Lege onein aurka emoten diran legeak ez daukela indaŕik, eta euren aldakuntza eskatzea bide zuzenaz, ao batez eskatu beaŕ litzakena dala, sentzunak eta zuzentasunak eskatzen dabena da. Baña ori lortuten dan bitaŕtean lo egon beaŕ ete gara? Ez orixe! Besteak euren beaŕkuna betetan ez daberen artean, geure beaŕkuna astunago egiten da, ta Kristiñau lkaskidea bakoitzari bere izketan, Yaungoikoak gura daberen lez, irakasten alegin gustiz alegindu beaŕ gara.

Eta geuk al dogun gustia egiten ete dogu?

Geure biotzean eskua ipiñita itaun one-ri erantzun dayogun, egunero beaŕ ba' da, kristiñau ikastia ipiñita, «Yaungoiko

Zalen» lenengotariko asmoa orixe daukasi ta Irakatsi, egin eta eragin, eta gure lan gustiak goiko Yaun onak onetako ditu.

Une onetan, Eroma'tik eldu yatu idazki baten, arira datoŕen yazokun bategiko bat edesten dauste, eta gertatu ko beste gauza batsuk urengorako lagar ta, berau amaitzeko ipiñiko dot, gustipoz bez betetako ta kikilduak adoretutek egokia da-ta.

Aita Santuaren itzak euskeraren alde.

Lengo Urte Deuneko azkenengoetan ko bidezkundea España'ko irakasle izan zan. Lotazilaren 26'n eguerdian amabietan Aita Santua ikertu eben. Egoitura dabenez, mun egiteko eskua ematen ebiñela, irakasle (maixu) bat bere seme 9 edo 10 urtekoa alboan ebala ikur eben. Aita Santuak biotz-ikulturik mutur kotxoari buruan eskua ipiñi, eta erderatzer bait ba'daki-ta, nongoa zan itan eutson.

Mutikoak erdi ikaratuta erantzun eutson euskeraz: *¡Bizkaikoa!* Aita Santu oldostun gelditu zan, zein aldetan yauten zan gogoratzeko, eta yosulaun bat lateraz esan eutson Gazteiz'ko goterkikoa zala.

Eta orduan Aita Santuak esan eban (italeraz): «A! Euskalerikoa: entzun d euskalduntxuok egiten daberen izkuntz gaiztakeri gustien kaltez izkiñu (armona dala)».

«Egia alda?» itandu eutson lengo yosulaunari, eta onek erantzun eutson «Alantxe da, Aita Deuna, eta egunorak duguna ta txauburuak saŕi autotzen dabena da».

Orduan Aita Santuak esan eban: «Kementsu-kementsuok, *euskeraren alde*

lan egizue, erki oretan izkilu gogora,
da-ta. «Eta aita-semeai eskua mun-egite-
ko emonaz, Aita Santua aldendu zan
euskaldun gustiak pozez beterik izten
zitualarik.

Ekin ba, kristiñau ikasbidea irakasten,
bakoitzari bere elez eta euskaldunei eus-

keraz, geure lana sakonagoa, onura-
tsuagoa eta zuzenagoa izan daiten.

Eragospenak, eukiko dituguz, eta be-
ar be bai, baña ez gara aitzu bear go-
yan itxaropena ipinten dabena beti ga-
railari izaten dala...

GAMA.

EGIA MAITETU...!

Begietako argia
galtzeko bildur andia,
dauke gizonak
gaur egunean,
bildur gustiz egokia.

Zegaitik baña
adimenaren
yanaria dan egia
guzur baltzagaz
edentzen dabe,
izanik zorakeria?

Zegaitik bañiz
Ziñeskintzako
argi deun zoragaña
itzaltzen daben
irakurgayak irakurten
ibiltea?

Girñaren ekaitz
bildurgaña
ez dabe naiñon zabaltzen?
Ez dabe sañi ustelkeriaz
giza-biotza ondatzen?

Zer dala ez ba
egia beti
biotz-biotzez maitetu?
Zegaitik argi zoragañi au,
zegaitik ez geuregandu..?

Egia beti maitetu daigun
indar gustiz, biotzeti,
eta biotza argia legez
azke izangogu beti.

GABIREL

ANDIK ETA EMENDIK

Merzier kardenalaren eriotza edera.

Lengo zenbakian, eriotz izpaña ta beratzaz zertxobait esan gendun, eta gaur beste zerbait eta batez be, bere eriotza edefaren zertzelada batsuk ipiñiko doguz.

Merzier yakintsu ta onbidetsuaren azken urteetako asmo bikaña, Kristiñau eleizak, Eñoma' tik aldenduta dagozanak, egizko bakañ onegaz alkartzea izan da. Eta ofetarako, eleizan arein burutzazkoakaz itz egin eta batzarñxoak azken urte oneitan egin dituz. Bere adimen zur, gogo zintso ta biotz andia ikusirik, protestantetañai, batez be Ingalandako Lord Halifax'eri, begi-begiko egin yakon. Eta «Malinas'ko Autuak», izentzat emon dautsen araso bikain oneri azkenerarte ekin dautso.

Urtañila'ren 21'n, il baño egun bi lenago gai onetzaz idazki luze bat idatzi eragin eta beren eskuz zuzendu eban.

Lord Halifax. 86 urte euki añen, Ingalanda'tik gexoa ikertzen etofi zala yakin ebanean: ¡«O! —esan eban—86 urte eta aldi onetan etortea ontasun lañegi da». Eta ufengo egunean bere gelan esango zan Mesea entzutera etortea pozik ikusiko ebal, esan eutson. Eta alantxe egin eban. Mesea amaitu zanean Merzier yaunak Halifax besartetu eban, eta iru autu aldi izan ebezan euren biotzean erabiñen asmo bikañatzaz.

Azkenean agur egitean Merzier kardenalak, bere gotzain-erestuna atzamañetik atarata, Lord Halifax'eri erakutsiaz esan eutson: Ereztun au ikusten dozu? Neure zaindari Yoseba eta Desideri deunen irudiak eta Rombaut deuna gotzain

eleizako zaindariarena daukoz. Neure sendiak, gotsain egin ninduenean, emondakoa da. Beste batsuk izan aŕen, beti neugaz erabili dot. Ba orain ni banoa ta. aftu egidazu...

Azkenengo egun bietan.

Gero ta txarago yoyan gexoa ta, eriotza on bat egiteko otoyetan igaro eban. Barikuko aratsaldeko iruretan iltamu-otoitzak egin eutsezan eta berak idaztiz irakuri ta erantzuten eban. Atsedean alditxo bat emon eutsen, eta bitartean osagiŕleak osakairen bat emoteko guraria agertu eban eta Merzier yaunak erantzun eutsen: «Itxaron apur baten; lenengo gogoa da ta gero gorputza». Erantzun onek Balmes'en eriotza gomutara dakaŕsku. Yaupari yakintsua oso txarŕto egoala lagun batek zelan egoan itandu eutsen eta Vitx'tar ospetsuak erantzun eutsen: «Ni ondo Yaungoikoari eskefak. Nigan gizon bi dagoz, bata *gorputzezkoa* eta bestea *gogozkoa*, eta gorputzezko gizonak ardura gitxi emoten daust»...

Otoyak amaitu ondoren gustiak onetsi zituan gurutzari mosu luzea emon ondoren.

Larunbatez bere Ioba Merzier Yoseba'k yaupa gelan emon eban, kardenalaren anayak lagun-duta; Yaupa au, Ama Birjin eskar gustien bitartekoaren izenez esan zan. Goizean Aita Santuaren ordezkko, bere aitor-entzule ta aizkide batsuk ikertu eban. Gero «Te Deum» Yaungoikoagandik arŕtutako eskar gustiekaitik esan eban. Bere eskariz «Magnificat» eta «De profundis», beste otoi batsuen artean, esan ondoren, bere bizitza bere goterki, Eleiza ta aberiagaitik, Kristiñau eleiz gustien batzeagaitik eta Aita Santuagaitik eskeñi eban. Bere ikertzaŕleai eskerak emon eta «Ikusi arte» esanaz agurŕtu zituan.

Amabiak eta laurenatan astiro «Credo» esan eban eta bein eta saritan kurutzari Oiñ, Bulaf eta Buruan mun egiten dausto.

Olantxe iltzer iru ordu igaro zituan eta iru-iruretan, argi bat itzaltzen dan lez, Yosu-Kisto' ren ikasle au, betiko saria arŕtzeke ludi ontatik aldendu zan; Eleiza, aberi ta ia ludi gustia tama-lez beterik izten ebalarik.

Eriotza ondoren.

Bere obiratze ta il-otoitzak andikiro ospatu dirala esan bearik ez dago, Belgika'n inoz ikusi ez diran lakoxeak izan dira-ta. Kardenal bi, gotsain asko ta miŕla abade obiraltzera yoyan ziran,

eta ofein gafiŕera asi bakaldun, gudalburu eta aldeŕdi gustien buru ta lendakariak izan ziran eta euron artean sozializtena be bai. Bere eriotzaz efi gustiak negar egin dau, eta erbesteko kistaŕak be tamal andia arŕtu dabe. Baña batez be Eŕfoma'n tamal au gustiz andia izan da.

Vannutelli kardenalak Merzier'en eriotzaren bafi yakin ebanean, besoak goruntz yasota esan eban: «Merzier yanzkordunaren eriotzea galtz andia izan da, ez bakarik Belgika'rentzat, Eleiza gustiarentzat be bai. Aita Santua atsekabez beterik dago. eta bere inguruko gustiok beragaz».

Gaspar'i, Aita Santuaren idazkariak, gizon andiak ezagutzen oitua izan aŕen, esan eban: «Merzier yanzkofduna, gizaldi bakoitzean gitxi izaten diran lakoxea izan da. Gauza gustiz bakana izan aŕen, beragan ikusten ziran yakitun, idazle gaitasunaz, buru izateko, egipenerako eta yauriteko gaitasuna. Bere eriotzea galtze andi bat izan da Beljika'rentzat eta Eleizarentzat».

Bere itzala ain andia izan dalako, etsayen artean be, Parantziko aldundiak ao batez tamal agurŕa bialtzea erabagi eban eta aldunak itzaldi edeŕak egin zituezan bere goralbenez.

Eta euron artean, nok eta Heŕiot'ek, asko goraldu eban, eta alde gustietan eukan itzal eta ospe ona ondo irabazita euki ebala autortu eban.

Gaurkoz naiko da-ta, beste zerbait urengo zenbakirako, Yauna lagun, gertauko dogu.

M'iaf G.

Andoain'dik.

Lore bat loitan.—Izen orixe jafi dio, Amundarain-tar Antonio, Donostia'n, Iñaki Deunaren txadonean orain beŕiro sarŕtu dan apaiz jaun arŕgiak, bere azkeneko antzerki-lanari.

Andoain'go Maria'ren alabak oso edeŕki antzestu zuten eta txalo asko entzun zituzten... Bejondaiela efi ontako neskatxa gazte oieri, ta zorion-agurak beren arŕtezkari Beŕmejo jaunari, ainbeste lan egiten dualako bere mendeko gazte adoretsu aiekin.

Asko poztuko giñake, *Lore bat loitan*, Amundarain beraren *Berŕtan goxo...* *Uste diñat...* eta *Egintzak* on-en ondoan, arŕgitaratua ikustez.

Andoain'go *Maria'ren alabak*: jaŕai aurera; ta, ilbeltzaren 24'an eman ziguzuten bezelako antzeski-jaiak maiz-maiz beaf ditugu efi ontan.

Itufitxo.

ANDIK ETA EMENDIK

Aita Santuaren laugarren urteurena.

Pio XI'n Aita Deun gurgafiak bere Aitasantutzaren laugarren urteurena ospatu dau. Otsaia' ren 12'n ofetarako *Sixtina* deritxon kapiñan eleizkizun eder bat egin zan

Goizeko bederatzietarako oi dan lez, gizostean yoaan etofiak azi ziran. «Regia» ta «Ducalle» deritxoan aretoetan gizoste andia eta batez be erbestetarak, Aita Santua igaroten ikusteko bildu ziran.

Sixtina kapiñea andiki eta latefietako orde-lariz, gonburu beteta egoan.

Goizeko amafderdian Aita Santua bere in-gurukoakaz yatsi zan. Estalki zuriz yantzita, eta buruan Milan'darafak emon dautsoen Doipuru koroi edo tiara edera ebala. Bere ondoan 26 kardenal etozan. Agertu zaneke angoo txalo ta gorak izugafiak izan ziran, eta bertan egon zan batek diñoskunetz; danen gañetik auxe euskeraz entzuten zan: «¡Gora, gora Aite Santue!»

Kapiñara eldu zanean, Aita Deunak otoi egin ondoren, mesa nagosia Lokateñi, XI'n Piok egin eban lenengo kardenalak esan eban. Mesa ede-
etarikoa, Perossi zuzendari ebela, abestu eban. Eta amaitu zanean, gustiak onetsita, Lokateñi yaunak eleizkizunera eldu ziranai Aita Santuak emoten eutsiezan parkamenak iragafi zituan. Amaitu zaneko eguerdia zan, eta lengo bidetik, eta txalo ta gora artean Aita Deuna bere Yar-lekuan eroan eban.

Kardenalen eriotzak.

Merzier ospetsua il zanetik au idazten dogun

arteraño beste lau kardenal il dira. Laurok ama-bots egunen baruan. Eriotzeak inñori ez dautso parkatzen eta bere afean burua makuftzen ez dabenik ez dago.

Otsaia' ren 13'n, Benloch ta Vivo Juan, karde-nal eta Burgos'ko, Gongotzaña (arzoisepoa), bi-dez yoyala Madrid'en gexotu ta egun gitxi bafu, Yaunaren besoetan il zan.

1864'n Valencia'n yayoa; mañarik mala, 1906'n Urgel'go Gotzain eta Andofa'ko lendakari autu eban. Toki onetatik 1918'n Burgos'ko Gongo-tzaintzara yaso eban, eta 1921'n Benedito XV'k kardenal autu eban. Izlari bikaña izan zan eta misioen alde lan asko egin dau, batez be azken urte oneitan.

Egun atan bertan, Dalbor Edmundo, Polonia' ko Gotzainburu ospetsua il zan. Merzier'en antzera, guda aldian batez be, bere abefiaren aldez lan asko egindakoa. Erlejiñoari eragipen andia emon dautso guda osteko araso latzetan bere biotz eta adimen argiaz zintso lan egiñaz. 1869'n yayoa, 1919'n Benedito XV'n kardenal autu eban.

Otsaia' ren 27'n Augusto Silj, yanskordun edo kardenala il zan. 1846'n yayoa eta 1919'n karde-nal autua.

Baita egunokaz il da, Giovanni Cagliero karde-nala, Salestaren anaidikoa, 88 urte zituan, eta 1915'n kardenal autua izan zan.

Orain gelditzen diran kardenalak 64 dira, be-raz sei toki dagoz utsik, gustiz irurogetamar izaten dira-ta.

Baita egunokaz il da Zieplak ospetsua, gon-gotzain ospetsua. Gustiak dakie boltxebitafak

eriotz-epaya emon eutsela eta bere lagun Bucki-ewitz gotzain yauna erail ondoren, Aita Santu ta lateñien eskafiz, ilten ez ziran asafu ta amar urterako espetxeaz zigoñtu eben. Gero bera azkatzea lortu zan; baña bere osasuna asko yausi zan eta oraintsu polonitarak Ipar amerika'n daukiezan 800 eleizak ikertu ta lanean ziarduela, egun gitxiko gexo ondoren, il da.

Lau mila mesa ordu baten.

Txikago'n aurtengo udan egingo dan Eukaristi Batzaferako gertute lanak aufera doaz. Eta lenago aitatu doguzan gauzen antzera aldikiro. Lau mila Mesa ordu baten esan al izateko gauzak gertatzen diardue. 1.000 abade Txikago bertakoak izango dira. Txikago'n 236 paroki dagoz, eta komentu ta erietxeetan dagozanakaz 1.500 altara inguru dagoz.

Batzañ egunean lau mila Mesa ordu baten esan al izateko, beste mila altara aldakof gertauko dabez.

Hoban gotzafnak beintzat 700 altara edo opafari onetsi ditu, eta oneitatik 400 Mundelein ikastetxeko 400 gelatan ipiñiko dira. Ainbeste Mesa batera esan al izateko beste gauza asko be beaf dira-ta, ofetarako uri bakoitzeko katolikotafai zeregin bat emon dautse. Esaterako Brooklyn urikoak, amituak, Pensylvaniakoak korporal eta paliuak, Visconsin'ekoak mantelak, eta Txikago'koak alba gustien ardurea afu dabe. Yudatafetatik katolikotaf egin zan emakume batek, berak bakañik, 25 alban ardurea afu dau. Mesa esateko beaf diran gauza gustiok lenengo erakusketan baten ipiñiko dituez, eta Eukaristi Batzañ amaitu ondoren *Church Extensio Society* deritxon batzañak misiolarien artean banantzeko ardurea afuko dau.

Uganda'ko Katolikotafak.

Zintsoak dirala bein baño geyagotan agertu dabe, eta oraintsu bañiro. Rugaba deritxon urian gotzain-eleiza bañi bat iragi dabe, 80 metro luze ta 22 zabal dituana. Bertako kistafak izan dira langiñe eta merkeak atan be, lansari barik eleiza egin dabe-ta. Eta aberatsak esku zabalez dirua eleiz eder au egiteko emon dabe. Onetsi eben egunean 5.000 lagun eleizkizunera yoan ziran, eta euron artean eñege, bere emazte ta aldunik geyenak lagun zituala. Baltzak izan añen arek mutiñak dira gero...

ZER EDO ZER

KRISTIÑAU-IKASBIDEATZAZ

Lenen ikasi beař dana

eta iñoz be aztu beař ez dana, Kristiñau-ikasbidea da. Eta kristiñau askori begiratu ezkerro, gitxien ikasi dabena, eta lenen aztu yakena dala, egiz esan geinke. Gauf egunean, ziñestearen etsayak iñoz baño bideak zabalago aurkitzen ditue gaiztakeria ta guzuřa zabaltzeko, eta beraz ziñeste landareak sendoak ala ondo esitutakoak izan beař, etsai galgařiei eusteko. Ostean, esitubako baratzean gertatzen dana gogoetan ikusiko dogu; abere, pizti ta etsai gustiak gogoetan sařtu ta zuzitu ta sakabanatuko dabela. Ori zelan edo alan ikasten danean.

Eta ikasten ez danean,

ala ikasitakoa aztuten danean, beař dan lez ikasi ez dalako; baratza landu barik laga, ala landuten asita bertan bera lagatzen danean yazoten dana ikusiko da gogoetan, jgauza negařgařiak benetan!

Belarmino kardenal ospetsua oraintsu Eleizan zorionsuen leřoan ipiñi dabena

Kapuako Gongotzaña, artzobispoa, izan zan. Eguen Gurenez, oi eban lez, amabi beařtsuri oñak garbitzen ziarduala eun urte eukazan euretariko bateri «Kredoa» esateko agindu eutson.—Iñoz ez dot yakin—erantzun eutson zařak—iñok ez daust irakatsi-ta.

Au entzunik Belarmino zurbil eta ezer esateko adore barik gelditu zan. Eta gero malko samiñak ixuriaz esan eban:—Zelan da ori! Kapua'n, ez da egon eun urtean gizon bat, kristiñau oneri ziñesteko egiak irakasteko izan danik....!

Belarmino'n aldietara eta Kapua'ra yoan beařik ez daukagu onango erantzun negařgařiak entzuteko, eři azitxoetan batez be.....

Eta alan da be, agindu aztuna da, Kristiñau Ikasbidea,

Ez dakien gustiak ikasi egin beař dabela.

Naiz ta eun urteko umeak izan. Zenbat bideř edonok ez dau entzun: «Ara, nik

txikitán kristiñau ikasbidea ikasi neban, baña aztu egin yat...» Osagile, lege-gizon edo salerosle bati, befogei urtegaz, bere arasoetan, ogei urtegaz ekiana baño gigitxiago dakiala entzungo ba'geunskio, kirtén andi bat dala, arpegiz-arpegi, esaten asartuko giñake. Eta kristiñau askok bañiz, gizonkeri bat balitz lez, kristiñau-ikasbidea aztu egin yakela esango dautzue.—Olakoari nik auxe erantzungo neuskio: Bere eskuetan bañiro ikustea daukon itsu batek esango ba'leuskizu: Nik lenago ikusmen edo *biste* edeña neukon gero... eta ori esan eta osakairik aítzen aleginduko ezpalitz, erantzun onena auxe izango litzake—Ainbat txarago ikusmenaz batean burua galdu dozun antza daukozu-ta...

Eta ikasteko gogorik eza

Ortixik sortzen da. Kristiñau-ikasbideari beañ dan gañantzi edo importantziarik ez emotetik. Eta au bañiz afokeritik.

Gaur gizostea afokeriak yota dago eta gauza zaratatsu, andi, año ta sakelerako onuratsuk darabiñe; gauza, apal, ixil eta bañengoak ez ainbeste. Eta yakiña, Kristiñau-ikasbidea ain gauza ixil ta apala dalako, askok uste izaten dabe, umeak-eta aintzat aítu beañ daben gauza dala, eta katolikotafak eurak be gastetxoén gauzatzat, gustiontzat zañ eta gasteentzat beañeko gauza lez aítu beañean.

Umeak bañiz adimena baño begi zoliagoa

euki oi dabe ta *ikasten* dabenak baño *ikusten* dabenak geyago eragiten dautse, eta au egia esateko ume andiai be gertatzen yake.

Beraz, etxean, ikastolan, guraso ta nagosien artean, kristiñau ikasbiderako zaltetasan gitxi oartzen ba'dau, ainbesteko

gañantzirik daukanik ez dau uste izango, eta umetan lenengo Yaunartzerako lain ikasi ondoren, *gizontxo* egin orduko, bertan bera laga, ta Yaungoikoak daki geyago bizitzan Kristiñau-Ikasbiderik zabalduko daben ala ez... Au egunoro datusgu. Beraz Kristiñau Ikasbidea ikasteko gogo gitxi ikustez ez gara aítu beañ. Nagosiak ez dauken sentzunik txikiei ezin geinkioe eskatu, naiz ta banaka batsuetan emen ipiñiko dogun yasokunean lez gertatu.

Kristiñau ikasbide saria.

Ikastetxeko azterketa egunak ziran, eta amañ urteko mutikotxua *Kristiñau ikasbidean* irabazitako sari edeña eskuetan ebalá, pozez beterik etxeratu zan ta pozez beterik etxekoi erakutsi ta batez be amamak poz eta maitasun andia agertu eutson.

Aita etxera eldu zanean esan eban:—Pozik nago, baña au bakañik, *Kristiñau-Ikasbideko saria bakañik..!* Eta aritmetikan eta edestian? Oneitan sariak irabazteaz poz andiagoa aítuko neuke, onuratsukoak be izango litzakez-eta, eta gañera azterketetan asko ez dautzu balioko, etorkizunerako kristiñau ikasbideak ez dautzu balioko-ta. Mutikotxua itundu zan, eta zerbait oldostuta erantzun eutson:

—Ene aita, oket zagoz; Kristiñau Ikasbideko sariak, zeruko ateak idigiko dautaz...

Olakoxe mutikoak ugari ba'legoz, eta guraso tentelak uriego... gauza bakoitzari daukan gañantzia emoten ikasiko genduke.

Ba, gauzarik beañekoena X Pio'k diñonez.

Acerbo nimis idazkian ziñoan: «eskatu ta agintzen dautzuet, kristiñau ikastiak

ez yakitetik gogoan gain yausten dan ondatze ugarietzaz gogaldu daizuela. Beste zeuen lan gustien aurérik, alegin gustiaz, gogo-zaletasun gustiaz, al dozuen etenbakotasun guztiaz alengindu zaitezze kristi-

ñau-Ikasbideko yakintza gogo gustietan sartu eta gogo gustiak ezotuten».

Ikasi, ba, ondo; irakatsi beti; eta *bizi* Kristiñau-ikasbidez.

GAMA.

Andik eta Emendik

Kristiñau ikasbide Batzara, Granada'n.

Datorén Bagji'a'ko 13, 14, 15 eta 16'n, España'ko Kristiñau ikasbide Batzara izango da. Gai onetzaz bertako Kardenal Gongotzañak idatzi daben deyan, Batzar au Aita Santuari gogo-gogoko yakola, eta abade, praie ta maixuei, onuratsu izan daiten, alegin dagiela eskatu ondoren, diño: «Batzar onegaz umeai, eta ume ez diranai be, gero ta geyago Kristiñau-Ikasbide edo dotriña irakastea gura genduke, eta egia esateko, abade gareanok geure buruetan ondo sartu beaf dogu, Dotriña irakaste onetan, eta irakaste onek ekaften dituan ondoren onetan, Eleiza Amak gura daben lez irakasten danean, gure eñiaren etorkizuna dagola». Itz oneik poztu egin gaitue, *Yaungoiko-Zale'n* aspaldiko asmoa orixe da-ta, eta egi aundi au irakasteko alegin gustiak egin ditulako.

Batzar onetarako izenak emon leikez, *Gazteiz'en*, *Gotzañen* yauregian, *Bilbo'n*, *Bizente* ta *Santiago* deunen pañokietan eta *Donostia'n* bost pañokietan.

Merzier kardenalaren ilburukoa.

Yakingaia da bere testamentua-ta ementxe euskeraz ipiñiko dogu.

«1908'ko larunbata deunez.—Aitaren eta Se-mearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen. Nire ilburukoa auxe da: «Artzain onak bere artaldearen alde bere bizia emon oi dau». Bere bizitza gizadiaren osasunerako emon daben Gure Gaizkatzaie Yaungoikoaren izenean, ene Yaungoiko ofi, gaur nire bizitzaren eskeintza apala egiten dautzut. Zure Zuzentzak nire gain bota daben eriotza-epaya, ointxe ezaguera osoz ontzat aftzen dot, eta makuftzen nayako, neure bizitzan egin dodan txafaren ordañez eta neure ardurapean ipiñi dozun artaldearentzat eskin-tza au onuratsua izango dan itxaropenez.

Ene.Yaungoikoa, nire gogoa aftu egizu, zeure eskuetan ipinten dot ba: «In manus tuas, Domine, commendo spiritum meum». Nai dozunean bizia kendu egidazu. Bizitzan naiz eriotzan geure Irakasle zara Yauna, eta nik zeure gauza beti izan gura dot. «Sive vivimus, sive morimur, Domini sumus».

Neure zeregin eta eginbeařetan iñor mindu eta ikasbide txafik emon ba'dautsot nik parkeskatzen dautsot. Norbaitek kalte egin daustala uste ba'dau, yakin bei biotz gustiz parkatzen dautsodala, eta Yaungoikoari otoi dagitsot parkatu dagion.

Gauza andirik ez dot lagatzen. Neurez ondasunik ez daukat, eta neure lan eta idaztiekaz irabazi dodana, egite onetan eralgiteko bidea beti aurkitu izan dot, eta egunekoaz biziten alegindu naz. Nire eriotzan aurkituko dabezan auferatze txikiak, etxeko eralgitze eta il-otoitzak ordaintzeko izan beitez, eta gelditzen dana, efuki-egintza eta irakaskintza arasoetan eralgiko da. L'Hermite'ko kanpo-etxean dagokidan atala neure lobai itxiten dautset. Ostean yakin beye, bizibidea irabazten euren lanez alegindu beaf dirala.

Alantxe diñot, neure ordelari gauza gustietan, *Leigreve Luis Yauna*, *Parnaso'ko Gotzaña*, izentatzen dodala».

Ziñez edeřa da ilburuko au.

Merzier Yaunaren gizatasuna.

Alemandafen agintzaldian, Lanken yauna zan Bruselas'ko arein landoletako buru. Gudaldian Merzier Kardenala zerbaitegaitik ikertu beaf ebanean, Merzier yaunak zutik aftu, eta buru yasoaz, uřintxotik beaf zan arasoetzaz itz-egiten eutson. Gudea amaitu zanean, alemandaf gudariak etxeratzean, bařiro Lanken yauna, Merzier'eri yoan yakon, etxeratze ofetan eřitar laguntza eskatzeko. Orduan Merzier Yaunak eskua emon eta yafi eragiñik itz egin eutson.

Lanken ařera onegaz ařiturik egoan, eta Merzier yaunak esan eutson: «Atzo gure eřia azpian zeukan etsaya ziñan, eta nik olakoen ařfean ez dot iñoz be bururik makuftu, gaur garaitutako etsaya zara, eta atsekabetu eta etxebakoei zor yaken begirapenak zaintzen zaitue».

Merzier'en ondorengoa.

Aita Santuak Malinas'ko Gongotzaintza, Merzier yaunaren ordeř, bere lankide eta ordelarietatik bateri, *Van Roey* yaunari emon dautso. 52 urte ditu, Lovaina'ko ikastetxean irakasle izan

dakoa, eta Merzier yaunak asko maite ebana; «Malinas'ko autuetan» bere alkoan egotea nai izaten eban. Urte askotan bere antzeko izango al da.

Roy yaun agur'garriaren eriotza.

Ondiño ile gitxi da, Begin kardenal eta Kebek'eko gongotzañaren eriotz izpaña toki onetan emon gendula. Ba, bere ondorengo Roy yauna egunokaz il da. 67 urte zituan.

Eta gauza yakingaia. 24 neba-añeban artean 15' gañena izan da. Begin yaunaren laguntzale 1908'n autu eban. Bere anai Austin Koimbatore, India'ko gotzain da. Beste anai bat Yoseba, Laval Kebek Ikastetxeko lendakari. Beste iru anai abade dira eta beste iru añeba lekaime. Sendi ugari ta zoriontsua!

Holanda'ko kartujoak.

178 urte bete dira, Holanda'tik kartujoak jaurti ebezala, eta ointsu agintarien erabagiz bañiro biurtzeko baipena emon dautse, eta Suiza'tik yoan ta lenengo lekaidetxea irigi dabe. Beñola-ko amorua ibituten dojala esan lei, eta obe da.

M'lañ G.

GETSEMANI'N

«....Orduan negar malkoz buzti, izerdiz ezotu, ta odolez buztitako espanetatik otoi bariak urten eban:

—Ene Aita, nik edan barik, edontzi au nigandik aldendu ezin ba'leiteke; zure guraria egin bedi. ¡Ez nik nai dodan lez, zeuk nai dozun lez baño!

Luřetik yaiki, eta arřetsu, bere ikasleakana biurtzen da; Yesus'ek egin dako tamalezko yazarřoaz ezer ez eban lortu. Logaleaz aulduta, irurak bařiro loak arřtu zituan. Baņa oingoan Yesus'ek ez dautse deitzen—eurak emon leikioen poza baño aundiagoa aurkitu dau—eta bařiro luřean auzpaztuten da, bařiro bere buruaren ukogitezko itz ederok Aita'ri esateko:

—Ez nik nai^m dodan lez, zeuk nai dozun lez baño.

Ordurarte gizonak Yaungoikoari bakoitzak bere gurariak osatzeko eskatzen eutsen, abesti eta opariak eskiñiaz. Zoriona nai dot—esaten eban otoizleak—osasuna nai dot, indarā, luřeko uzta onak, neure etsayen ondapena. Baņa ara; Bařiztatzalea etori da, eta lengo eskaria aldatu dau. Berak diño: ez daitela egin niri gogoko yatana, zeuri gogoko yatzuna baño; *Zure gurea egin bedi zeruan lez luřean be.* Aitaren gurari gurenaren, eta gizonaren gurameneko gurariaren al-

kařtasun eta batasunean bakarik dago zoriona.

¿Zer dautso ba, nire Aitaren gurariak nekalduko nabenen eskuetan ipiñi arřen, eta abere gaiztetsi ta kaltegarri lez egui zati biri yosten banau be? Nik Aita'gan ziñesten ba'dot, neuk neure burua maitetu al neiken baño geyago maite nabela bai'dakit, eta berak nik dakidana baño geyago dakiala.

Nire ona baño ba, ezin leike nai izan, on ori giza begientzat gaitzik ikaragarriena izanda be; eta nik neure egizko ona nai dot, neure Aitak nai izan ezkeru. Antzez bere zorakeria dana, gure yakituria baño neuři barik yakintsuago ba'da, berak erabagi daberen nekaldia, luř onetako atsegin gustiak baño neuři бага onuratsua goa izango da.

Ikasleak lo egin dayela, gizon gustiak lo egin dayela: Kristo ez dago bakarik. Nekaltzeko pozik dago, illeko pozik; iltamuko samintasunetan gentza dau biotzean.

Oin ia gurariz, bere belarriak zur euki leikez, gabebo arřtasunean, beregana datořen Yudas'en oñotsak entzuteko».....

M'taf G'k eusk.

(1) «Kristo'ren Edestia» deritxon idaztzen il'n. atala.

DAMUTASUN - GOGARTEA

Ezer ez nintzan, Yainko maitea,
Zeuk ontasun-maitasunez,
izeteagaz sentzun almenak
emon arte goi-eskañez.

Ezer ez nintzan, ta Zuretzako
egin ninduzun, Yaun ona,
Zeu maitatzean nire biotzak
aurkitu zedin zoruna.

Ezer ez nintzan, eta adimena
Zeu Aitatzat ezautzeko
emon zeunstan Zuk, oroimenagaz,
Zeugaz iñoz ez aitzeko.

Ezer ez nintzan, eta lurbira
ipiñirik neu-menpean,
ludi-bakaldun egin ninduzun
izaki danen erdian.

Ezer ez nintzan, ta goi-eskañez
apaindu zeunstan gogoa,
ta emen zintso zaindu ezkeru.
goiko zorun betikoa.

Ezer ez nintzan, ta maitasunez
artu ninduzun semetzat,
Donokiaren yabetasuna
gertaurik baita niretzat.

Ezer ez nintzan, Aita maitea,
ta Zeuk ardura-arduraz,
maitasun samur-ertzitsuenaz
laztandu eta sortu naz...

Zure moñoi ba, nik bear neban
izan, Zeuk ni-maitasunez
ezpaninduzun Semetzat artu
apaindurik goi-eskañez.

Érukiz izan, erukiz bizi,
zure maitez zoruntsu ni,
zuzena ziñez ez ete zan ba
ni opaltzea Yaun orñ?

Zurea oso-osorik izan,
Zeugandik dodana artu;
eskarña-irain baltzenagaz ba
zelan naz zurekin aztu?

Argia bear, ta Argitik iges
zelan legi adimenak..?
ona bear ta, onetik iges,
zelan leike neu-naimenak..?

Zeuk nigaitikan, gizon egiñik,
gurutza baten yosirik
bizitza emon, ta maitatzeko
ez ete neban biotzik?

Adiña zelan neukan nik Yauna,
zu maitatu beañean,
utskerietan biotz-zoruna
bila nebilen aldian?

Zeure eskutik bizitzau artu,
Zeugandik indar-almenak,
ta Zure kaltez lotsarik gabe
yaiki naz, Aita laztana...

Zelan ludiko gauza gustiak
batean yaiki ez dira,
gaizto oneri bere zigoŕa
ainbat lenen emotera..?

Zelan ez nau ni luŕak iruntsi,
ta eguzkiak kiskaldu;
itxas uñak ondatu eta
mendi arkaitzak zapaldu?

Ainbeste dira gaiztoki baŕu
obe ziranak ni baño,
eta ni zelan zigoŕtu barik
euki nau Yaunak gaurdaño?

Zeure ontasun neuri gabeak
zigoŕtu barik itxi nau;
Beaŕ dan legez zelan eskaŕtu,
Yauna, maitasun samuŕ au?

Itxi eidazu Aita maitea,
biotz baŕendik samiñaz,
eskaŕtxaŕ-irain obenakaitik
esaten: *Damu-damu naz...*

Azketsi Yauna neure obenak,
emon auŕerontz laguntza,

duin ez naz baña, bizi gustian
Zu maitatzeko biotza.

Auŕerantzean nire biotzau
Zuretzat bakaŕ-bakaŕik:
ludi-ondasun uskerientzat
ez dau geyago tokirik...

¡O edertasun zoragaŕia!
maitasunan ituriã,
asetu jaŕen! Zeu maitatzeko
biotzeko egaŕia..!

Maitasunaren ituri gozo,
samurtasun ezfitsua,
Zeure izpi bat bialdu neuri
izan nadin zoruntsua!

Ludi ontako guzuŕ-zorunik
ez dot nai, ez, nik geyago!
Zeutzat bakaŕik neure biotz au
gaurtik auŕerantz betiko!

Nire Egilea Zeu zara eta
Zeu nire Aita, Yaun ona;
Zeu aintzaltzean aurkitu nai dot
nire betiko zoruna... GABIREL



ANDIK ETA EMENDIK



Gurutze deunaren zati edo eflikiak.

Aurten 1600 urte betetan dira, Yosú -Kristo gure Yaunaren Gurutza, Elene Deunak idoro ebalá. Gurutze deuna atal-txoetan lurbirako eleiz eta kristiñau artean zabaldua dago eta atal oneitatik andiena, gaur Eroma'n *Yerosolyma'ko Gurutze deunaren Eleizan* aurkitzen da. Eleiz au Elene Deunak, bere seme Konstantino katolikotaf egin ondoren, bere yauregi ondoan iragi eban, eta Yerosolyma'n idoro zituan Nekaldiko eflikiak, bertara ekafi zituan.

Elene deunak ekafi zituan eflikiak lenngotan, lurpean eta Kalkario'ko luřagaz azpia beteta dagon kapilatxoan egon ziran. Toki oneri kristiñauak begirune aundia dautse, eta ointxe be gauza yakingafi bat aginduta dago. Toki onetan emakumez-korik sartzea ezkomuniñopean debekatzen dala, saferan dagon afi zuri baten idatzita dago. Emakumeak urtean bein Epała'ren 20'n bakafik sařtu leitekez. Agindu ori noiztikoa dan ez dakigu, baña oin be betetan dala Eroma'n izan giñanean ikusi gendun, gizonezkoak bakafik sařtzen ziran kapila aretara-ta.

Oso toki ezoa zalako, XVI'n gizaldian, V'n Pio'n baipe naz, Patxeko kardenal yau-nak goiko gela batera nekaldiko ondaki-ñok aldatu zituan. Eta oindiño antxe da-goz. Eleiz-gelatik, goiko gelatxo batera eroan ginduezan eta toki estu batetik igaro-ta, ondakin deunak dagozan gela txiki batera eldu giñan.

Antxe erakutsi euskuen zidařezko gu-

rutza bat, erdian Gurutze Deunaren atal anditxo bat abala. Baita toki atan dagoz arantzazko burestunaren arantza bi, un'ze bat, eta Pilatus'ek gurutz-buruan ipinteko agindu eban idazkunaren atal bat.

Opa mai-gañean, lapuř onaren guru-tzaren zati andi bat dago. Bertako ardu-radunak gustien azalbena egin ondoren, mun eta otoi egiñaz, toki atatik tamalez beterik urten gendun, eřiliki ain edefak toki duin eta apañagoan ez ikustez. Oře-xegaitik ointsu irakufi dogun izpař batek pozez bete gaitu. Aurten *Gurutze Deu-naren* agertzearen 1600'n urtea betetan dalako, Van Rossum kardenala buru da-la, batzorde batek erabagi dau, kapila edef bat Eleizan bertan egitea. Eřiliki guřgafiok gordezko berarizkoa. Oře-tarako munduko katolikotaf gustiei dei egiten dautse, zertxobaitegaz asmoa auř-era eroaten lagundu dagiyoen. Orixe dala uste dogu urteuřena ospatzeko erarik edeřena

Urte Deuneko bidezkundeak.

Orain arte, bidezkunde batzordeak bildu di-tuan zenbakiak diñoenez; igesko Urte Deunez, 983 bidezkunde edo pelegrinaziño eldu ziran Eroma'ra, 356.810 bideztagaz.

Eurotatik:

Italitafak	212.000
Alemandafak	39.875
Españatafak	12.892
Prantzetafak	11.593
Ingalandař eta Irlandafak	6.287
Yugoeslabitafak	5.464
Suizatafak	5.325
Beljikařak	5.285

Ungaritarak	4.782
Txekoelabitarak	3.854
Polonitarak	3.207
Portugalदारक	2.783
Amerikatik	5.786
Asia'tik	831
Aprika'tik.	537
Australiatik	300

Prantze'ko katoliko-batzařak.

Prantze'tar katolikotarak, etsai gogoren erdian bizi dira eta urte bi oneitan gogor diardue, batzar eta alkařtasunak eraltzen, gustiak asmo bakaraz eta alkartuta, egi ta zuzentasunaren alde gogor ekiteko. Ondo ikusi dabe alkařen aurka ibiltea, etsayei bidea zabaldu eta baře eragiteko baño ez dala, eta zintso jokatuta zerbait egingo dabela esan geinke. Begira ba, ĩa betean egin dituen batzařen eta bildu diran gizonen zerřenda:

Epaĭa'ren 1'n. Laval'en 4.000 lagun bildu ziran.
 Epaĭa'ren 7'n. Marsela'n 9.000 gizon.
 Epaĭa'ren 7'n. Evreux'en 8.000 gizon.
 Epaĭa'ren 7'n. Valenciennes'en 1'000 gizon.
 Epaĭa'ren 7'n. Rouen, 4 000 gizon.
 Epaĭa'ren 7'n. Haybes'en 3.000 lagun.
 Epaĭa'ren 14'n. Cannes'en miĭaka asko.
 Epaĭa'ren 14'n. Avignon'en 1.500 gizon.
 Epaĭa'ren 14'n. Saite - Foy - la - Grande'n 8.000 gizon.

Epaĭa'ren 14'n. Reims'en, 3.500 gizon.
 Epaĭa'ren 21'n. Chaumont'en 8.000 gizon.
 Epaĭa'ren 21'n. Cannes'en 2 000 gizon.
 Epaĭa'ren 21'n. Verdun'en miĭaka asko.
 Epaĭa'ren 24'n. Amiens'en miĭaka asko.
 Epaĭa'ren 26'n. Tours'en 3.000 gizon.
 Yořala'ren 5'n. Melun'en 2.000 gizon.
 Yořala'ren 5'n. Nancy'n 80.000 gizon.

Azkenengo batzar onetan bost gotefki oneitak bildu ziran; Nancy, Strasbourg, Metz, Verdun eta d'Epinal'etik.

Igesko urtean ia 2.000.000 gizon katoliko alkařtasunean sařtu ziran, eta aurtan dakusgunez

ez dagoz lo eta uste izan lei laster lan onein onurak agertuko dirala.

Txikago'ko Eukaristi-Batzařa.

Sařitan Batzar ospetsu onetzaz izpařak emon doguz, eta ĩnoz ikusi ez dan lakoaz izango dala esan beařik ez dago. Zabalkunde gogora egiter diardue zertzelada onetan ikusi geinkenez: Mundelein kardenalak katolikotaraĭ batzar onetara deitzeko egin eban idazkiaren iyeki oneik Txikago'n bakarĭk zabaldu dira: Alemaneraz, 15.000; Italeraz 13.000; lituaneraz 12.000; polakeraz 94.000; boemeraz 6.500; kroateraz 2.800; espařeraz 2.700; slobakeraz, 5.500; gerkeraz, 3.000.

Batzař onetara 500 Gotzain eta 12 kardenal elduko dira. 3.000 abade autortu eta yaunartzerako bilduko dira, eta egun baten yaunartuko dabanak 2.000.000'ra elduko dirala diño.

50.000 umek menea abestuko dabe, eta aspal-di irakasten 6.000 lekaima irakasle dabiltz.

Azkengo eguneko ibildeunean 250.000 lagun bilduko dirala uste da, eta 100 eresbatz edo bandak yoko dabe azkenean Batzařeko ereserkia. Benetan gauza arigařia izango da Amerika'n Txikago'tar katolikotarak gertatzen diarduen Eukaristi Batzař au.

Lourdes'ko alatzak (mirariak).

Lourdes mirariak dirala-ta argiaren ařean begiak itxiten dituenak kirtenkeri asko zabaldu dabez. Baņa itxu batsuk gora-bera eguzkiak argi egiten daben lez; Lourdes'ko Ama Nesgarbiak egindako mirariak argi egiten dabe. Olan-goentzat auxe gogoan eukitea ona izango litzake: Eri gustietako 9.350 osagiĭlek argiro autortu dabela, Lourdes'en egin diran osatzeak mirariz bakarĭk egin leitekezanak dirala. Eta yakintsu ořen ařeaz-aře, eta yazokun arigařen aurka lau katu, aztertu ez dituenak, ukatzen ikustea gauza yak'ntza usaņeokoa danik ez dirudi.

M'lař G.

IĻOBI UTSAREN ONDOAN

«Baña Yerosolima'n Kristo'ren ilobia dago;... jeta enparau toki deun gustiak be bai!

Egia: ořexegaitik Selma Lagerlof'en «irakufleak» datoz; Neu be ořexegaitik etofi naz, eta, batez be Ilobi Deuna ikusteafen. Nik Invalides deritxon kupularen azpian dagon Napoleonen ilobia ezagutzen dot, Dante'rena Ravena'n, Shelley'rena Zessio'n Piramidean, eta Ochenschlager'ena, Frederikberg'eko ilobitegiko ormari dautsela. Onein eta beste ilobien ondoan, indaf geyago ala gitxiagoz somatzen doguna da, antxe dagola bat, guk beaf ba'da urinetik maite izan doguna, eta orain inoz baño urago daukagula;... bera antxe dagolako.

Yerosolima'n egin neban lenengo eguneko nire lenengo urteyera, Yesu-Kisto'ren Ilobira izan zan. Ilobi Deuneko Eleizan andan sartu nintzan, Elene deunak iragi eban ertikera naste andiko, eta gizaldietan batsuetan bariztau izan dan eleizan. Aratsaldea zan. Nire biderakusle prantsizkotar bat zan. Kupula andiaren azpian ilobi Deuna dagon kapilatxoak aurkitzen da. Aurki gustiak zidafezko argi-ontziz apainduta dagoz, leyař orlegi, orizke, urdin eta gofiak euren ařgi ikarati ta epelen inguruan dituela. Ate txiki bate-tik, Ilobiko aũfeko gelara sartzan da. Ementxe aingeru edo gotzona aldatu eban aři gañean yafi zan; ementxe, emakume deunei esan eutsezan itzak entzun

ziran: «Gurutzaldia izan zan Yesu'en bila zatoziela bai dakit. Oin emen ez dagoz, befbiztu egin da-ta...»

Itzok toki onetantxe entzun ziran. Kapi-laren erdian, aingerua yafi zan ariagaz, landutako koluna eta zutaři bat dago.

Nire biderakuslea ta ni une baten gelditu giñan. Biok belaunbiko gengoan (emen belaunbikotu barik ezin leiteke egon).

Gure aũfean doi-doi, Ilobi Deuneko sařera dago. Ate txiki bat da, Zeruetako Eřeĩnuaren sařerako atea lakoxe txiki eta estua.

Ateburuan gerkerazko itz t atsuk irafita dagoz. Baña bařua ia ilun-ilun dago ta, gañera urte asko da gergerazko idaz-tirik zabaldu ez dodala. Itzok ba ezin neikez azaldu. Beaf ba'da esango dabe: «Bařiro ume giten ez bazare...»

Atearen alde bietan efti lan batzuk dagoz, eskoi aldean, aingerua: ezkeř aldean. Yauna obiratuta dagoan tokia ikuster etoři diran Emakume Deunak. Belaunbikotuta nagolako, atea-zeaf zerbait ikus neike. Ilobian argia dago, eta norbait bařuan dago: zuriz yantzitako lagun bat. Onetan irudia ateruntz makuřtu zan, et neure ondo-ondotik igaro zan... Krista bedunař bat, ala eřusitař yaunzaleen ba bere soņeko zuriakaz, ala domekatař bat bere yantzi zuriaraz...

Eta sartzeko txandea eldu yatan... b batera egoteko lagun bi edo iruntzat bař

tokirik ez dago. Sartzeko txandea eldu yatan ba, ate txikiaren azpian makurtzekoa, İlobi gustien artean deunena dan İlobia estaltzen dabena ari urdiñaren gañean auzpaz makurtu ta neure bekokiaz ikutzeko txandea. Arimatea'tar Yoseph'en İlobi baña ementxe egoan, ondiño bertan inor

ala'ko goiz baten, orain emeretziz gızaldi, iru emakumeri aingeru batek itz egin eutsen eta esan: «Eman ez dago. Berbiztu da...»

Eta orduxetik İlobi onen augean gızadia belaunbikotzen da, ari oneri mun egiten dautso, ari urdin onen gañean negar egi-



Espiritu Santuaren Etofera

be ez zan obiratu izan; ementxe Yesus Nazareth'afa ipiñi eben eta İlobi ateruntz ariari bultz egin, eta negarrez aldendu ziran, gustia amaitu zala uste ebelako ..

Bañiz antxe azten zan dana. Biotzen Biotza, egizko *Cor Cordium* une batzuetarako bakarik taupada barik gelditu zan. Yof-

ten dau. Dante ala Napoleon ala Ochlenchlager'en İlobien antzekoa ez dalako.

Utsik dagoan İlobia dalako...»

M.'taf G.'k eusk.

(1) «Luf Deunera ibilkundea» deritxon idaztitik 1'go atala,

BIZITZAN IKASIA

Gure biotza ludi onetan
dabil naigabez beterik,
beti pozaren bila dabil ta
Iñon ez daurki osorik.

Egari biziz artegaturik
dabil batera bestera,
ta alpeí-alpeírik nekau ondoren,
laster doaku iltera.

Eriotzako une lañian
begira zer diñoskuan:
«Egite onen poz da zoruna
ez da besterik *munduan*»...

GABIREL

ANDIK ETA EMENDIK

Mexiko'ko katolikotarak.

Agintari gaiztoen amoruz, ekaitz gogoraren azpian dagoz. Katolikotaren eskuetan egozan ikastetxeak itxi, bardin elizak eta eruki-etxeak, eta bertan ainbeste on egiten izan dabena abade, lekai-de ta monja gustiak erbesteratzeko lege antzeko erabagiak aritu ta aurera daroetz. Eta ori gustiori ezertarako begirune ta asti barik. Abade batzuk eleizako ateetan aritu eta, egozan lez, ezer aritzen itxi barik, erbesteratu dituez, lekaimetxeak be, ordu erdiko astirik emon barik, itxi, ta irakasle gustiak atara dituez; beste batsuetan lau ordu baño ez dautsez emon ikastetxeak laga ta euren gauzak atonduteko. Eta onen antzera, eleizak itxi, eta lekaide ta abadeak, azkatasunaren izenean nonbait, yaurti ditu-

ez, beintzat 202 abade ta lekaide erbesteratu dabez eta 32 ikastetxe katolikotar saratu be bai, umeak kalean itxiten dabezalarik. Eta aurera yaraitzeko asmo gaiztoa agertzen dabe, *agintari* baño basati *aginkari* geyago dirudien Mexiko'ko buruak.

Lege onein aurka gotzañak gogor yarki dira, batez be Huejutla'ko gotzañak idazki adoretzu zintso ta sutsuenetarikoa idatzi dau, Eleizaren alde, berak Yaungoikoaren epayari bakañik bildura dautsola adiraziaz, espetze ta eriotza igaroteko gertu dagoala, eta era ori elduko ba'litz, adorerik ba'dauko lendarikari diñotso, bera arpegiz-arpegi pusilatzeko. Aita santuak be idazki bat zuzendu dautse euren bearkunak azalduaz eta baita Erroma'ko eleizetan mexikotaren

aldez otoiitzak egiteko agindu dau. Orixe egin daigun ekaitz au baretu daiten.

Ungari'ko katolikotara'ak.

Ungaria'k guda aurretik 18.500.000 biztanle zituan, 250.000 kilometro laukiak. Orain 93.000 kilometro ditu eta 8.5000.000 biztanle. Euneko 65 katolikotara'ak dira, 27 protestantetara'ak eta 480.000 juda'ak. Lenengo ma'ako ikastolak 6.402 eta eurotatik 919 lateri ardurapekoak. Biga'eren ma'akoak 100 dira eta oneitatik 38 lateripekoak. Ikastola gustietan kristi'nanu-ikasbidea irakastea bea'ekoa da. Irakaslea, agintariak izentatzen dabe, ba'ña gotza'ñaren menpean dago. Irakastetxe nagosian lateriak baka'rik agintzen dau, ba'ña gurutza ikasgeletan ikusten da, eta irakasle asko abadeen artean aututen dira... Beintzat eleizak len ba'ño azkatasun geyago dauko eta katolikotara' gogok piztuez doala, batez be yaunartzea asko ugaritu da, ta katolikotara' sutsuak be bai.

Gogo-i'ñarkunak egiteko oitura ede'ra zabal dabil, eta aldun edo edo diputauak asko biltzen dira Panhalma'ko benedita'ren lekaretxean egiten diran gogo-i'ñarkunetan.

Abadeen amak.

Lateri Batuetako izpa'ngi batek auxe iraga'ri dau oraintsu: «M. Jon W. Keyes, Yakoba deuneko pa'okoak, «Abade amaren» omenez urteroko eleizkizuna, Kansas city eta inguruetan bizi diranentzat gertatu dau... Eleizkizuna Yakoba deunaren eleizan izango da Ana deunaren egunean «abadeen amaren» zaindari da-ta.»

Yai o'fetara aurten 22 «ama» deituak izan dira. Yai begikoa eta geure euskal-erian oitura ede' ori pozik ikusiko geunke.

Ipa' Amerika'n.

Katolikotara' zintsoak ugarituez doaz eta euren bea'kunak betetan dabezanak 18.650.000 inguru dira. Katolikotara'ak 16 irakastetxe nagosi daukiez, eta eurai eutsiteko 15.000.000 emoten dabez. Ain esku zabalekoak izateko biotz zabalekoak izan bea'. Emen orixe «gaitzori» zabalduko ba'litzakigu...

M'ta' G.

Abadi'ño'tik.

Mendiola'ko auzo - ikastoletan Josu Biotza'ren yaureskundea.

O'ri'la'ko 28'an ospatu genduan yai polit onen bafi emoten noa «Jaungoiko-Zale» ren iraku'leai.

Jaureskundea guztien gogo biotzetan ondo eza'rita geratzeko ustez al zanik aundi-roen ospatu zan.

Gu Mendiola'ra eldu orduko, an ziran, Ikastoletako umeak deiturik, yaureskunde-yaia ospatzera eto'rita, Etxebaria'tara Alejandro ta bere a'feba euren adiskide bilbaotara batzugin, Abaunza'tara Donato, Unzueta'tara Bizente ta Fortunato eta Afizabalaga'tara Jose abade yaunak. Gerotxuago eldu ziran Abadi'ño'ko efi-ikastoletako irakaslak euren eskola umeakin. Irakastoletara eldu gi'ñanean, a'rituta geratu gi'ñan ikastola ta inguruak ain ederto apainduta ikusirik. Ate buruan auxe irakurten zan: *Jesus'en Biotza erdu gure ikastolara.* Irakasle, ume ta enparauen ondo-eto'ria artuta, goratxuago dagon Kistobal deunaren basatxaunora (ermitara) igon gendun, eleizkizuna egiteko.

Eleizkizuna onetaraxe egin zan: Etxebaria'tara Alejandro, Unzueta'tara Bizente ta Abaunza'tara Donato abade yaunak la-guntza'le zituala mezarako yantzita, Josu Biotza'ren irudiak onetsi ondoren, gorago

ZER EDO ZER

Txikago'ko Eukaristi Batzaña.

EUKARISTI Batzañak, kristiñau bizi-
tzaren agerkai ederak izan oi
dira-ta, Eukaristian dagon Gure
Yauna berariz goraltzeko sortuak dira-
lako, asmoz, egitez eta onuraz, ederene-
tarikoak beti dirala esan leike. Eta izan
be orain artekoak, bata bestea baño obe-
ak izan dira eta beti be azkenengoa eder-
entzat geyenez artu izan da. Egia esate-
ko oneik Batzañok gustiok ederetak
dirala esan geinke.

Baña lengo ilaren 20'k 24'ra Txikago
uri ospetsuan egin dana ederena baño
ederagoa izan dala, ao batez autoñtu
dabe.

Egiten ziarduen gertakixunetik, gauza
gustiak aundikiro egingo zirala igari
zeikian, iñoz Ameriketari, ez ta munduan
be, ikusi ez dan lako Batzar bat egiteko
Txikago'ñar katolikotarak, euren adimen
zoli, sentzun, egikortasun eta... ufea be
eralgiten ikusten genduzan-eta. Baña,
izparak esan dabenez, iñok itxaroten izan

daben baño gauza aundi, ikusgari eta
arigariagoa izan da. Emen ipiñiko dogu-
zan zenbaki batsuetatik zerbait atara
geinke.

Eta Ienen.

Aita Santuaren Ordezko Bonzano kar-
denalari egin eutsen añera ikusi daigun.
Newyork'etik Txikago'ra berarizko bul-
tzia (trena) ipiñi eutsen. Amaika kotxe
eroyazan, gustiak goitik txiriñketaño
goriz margotuta, eta Aita Santuaren ikuñ-
di ta izenez apainduta. «Bultzi goñi»
onetako otsein eta langile gustiak kato-
likotaren artean autuak izan ziran.

Bidean egiten eutsien añera ederetak-
rikoa izan zan, eta gizosteak belaunbiko
Kardenal Ordeleriaren onespina artzen
eban.

Txikago'ra egun bi bañu eldu ziran,
eta gelfokian agintari ta Batzordez etoñi
ziranak sei milarako ziran. Kardenalai
urteten ingurutu zan gizoztea, ikusle ta
gusti, miñoi batera elduko ei zan.

Antzoki Nagosian.

Ilaren 18'n Txikago'ko antzoki nagosian, Doipuru-Ordeleri ta enparau kardenalen afera ospatzeko, batzara egin zan; baruan 16.000 lagun eta inguruan 500.000'k entzun zituezan, Koolidge Lateri lendakariaren izenean, bera ezin etoñi Batuetako izan zalako, Lanetako ministroak irakuri zituzan itz ederak. Bertan adirazten eban, euren aberaztasun eta anditasun gustiak ziñestean sustara daukala. Gero ministro onek berak, itzaldi eder bat egin eban, gustiz txalotua izan zana.

Eukaristi Batzaren asiera.

Lenengo egunean 10.000 Mesa Txikagonean emon ziran, eta Mundelein Txikago'ko kardenalak Doipuruari eskiñi eutsuzan yaunartzeak 1.000.000 bat baño geyago izan ziran.

Gizoste ikaragarria autortzeko 3.000 abade beste toki batsuetatik eroan eban, eta ogei izkuntzatan autorkuntzak egiten ziran. Egun ofetarako Txikago'n bildu ziran 12 yanzkordun (kardenal), Aita Santuaren ordezkariak 5, 57 Gongotzain, 700 Gotzain eta erbesteetatik etoritako 1.000.000 katolikotar baño geyago.

Izparak zabaltzeko sei ifatizkin (radio) ipiñi ziran eta izparlari eta argazkariak 440'ra eltzen ziran.

Egun onetan Namur'ko gotzainak Mesa emon eban, Txikago'ko gotzain-eleizan, Bonzano eta Mundelein kardenalak itz egin eban. Eleiza Gotzainez, abadez, lekaide ta deituak izan ziranakaz bete zan, eta kristiñau lauak, auzetik iragarri yaken lez, tokirik ezagaitik, eleiz inguruan gelditu bear izan eban.

Umeen eguna.

Yesu Kisto gure Yaunak umeak maite

zitan, eta eurak be biotzeko maitasuna agertu gura izan dautse. Ofetarako Stadium deritxon tokian, 21'n bildu ziran 500.000 lagun inguru, yarita egozanak bakañik 250.000 ziran, eta antxe 40 metro goyan ipiñitako altara baten Mesarik ikusgarriena esan zan. Singenberger ereslari ospetsuak zuzenduta, 62.000 umek, gustiak zuriz yantzita, Angelis deritxon yaupa abestu eban. ¡A izan ei zan gauza edera! ¡Egiz esan geinke aingeruen Mesa izan zala!

Emakumeen eguna.

Gure Yauna Eukaristian goraltzeko emakumeai izentautakoa, urango eguna izan zan. Eleizkizun onetan 250.000 emakume inguru bildu ziran, eta Mesa 6.000 lekaime (monja) ta 12.000 emakumek abestu eban, Singenberger zuzendari ebela.

Gizonak be,

egun atan bertan burua Eukaristiako Yaunaren aurean makuñtu eban. Yesu' en Izen Deuneko bazkide ziran 200.000 gizon, ilun abararako Stadium'era eldu ziran. Gure Yauna agirian ipiñi ebenean, tximistañgi gustiak itzali zituezan eta gizon bakoitzak bere kandela piztu eban. Gauza benetan ikusgarria izango zan 200.000 gizon Gure Yaunaren aurean auspeztuta, euren kandlea eskuetan ebela, ilun abarean ikustea. Eta berean ikasbide edera epelentzat, eta erantzun obea, emakumeen gauzatat erlejiñoa esten daben gizontxoentzat! Egia da izan be, gizona iñoz be ez dala andi-ago agertzen belaunbiko dagonean baño. Gizonoi itz egin eutsen, Seippel, yaunak, Españako ordelari Reig'k, Faulhaber Munitx'eko kardenalak eta Bonzano, Aita Santuaren Ordezkoak.

Azkenengo txandea.

Ikastetxe nagosi edo unibersidadeetako ikasleena izan zan. 200.000 gora bildu ziran. Itzaldien ondoren Mesa izan zan eta 30.000 ikaslek abestu eben, berariz yai oneitarako egin zan organo ika-ragañiaz lagunduta. Itzaldia, Dowling yaunak, Paul deuneko Gongotzañak egin eban. Onez ganera 21 izkuntzetan talde-ak euren batzarak euki dabez.

Azkenengo eguneko ibildeuna.

Au Txikago'tik 60 kilometro bañu da-goan Mundelein abade ikastetxe inguru-an egin zan. Toki onetara gizostea eroa-teko, eta ori ordu gitxitan, lanak egozan; baña alan da be lortu eben 1.000.000 inguru ordu gitxitan eroatea. Burdin bide bitan, minuto birik minuto bira, berarizko bultziak ipiñi ebezan, eta ontziz aldatu ziran gañera, 100.000 automobil inguru Mundeleinen bildu ziran.

Ibildeuna egin aur'etik Bonzano, Doi-puruaren Ordezkoak, Mesa emon eban, eta itzaldia New York'eko kardenalak egin eban. Gero ibildeuna egin zan, eta an bildu ziran Gotzain, abade, lekaide ta kristiñau piño izugarit'ik zerbait susmau geinke zelangoa izango zan, baña bea' dan lez azaldu bertan egonda bez, eta bertan egon ez gareanok gitxiago. Eun eresbatz bertan ibili ziran, iru ordu on-doren. Gure Yaunagaz onespena emon ondoren Txikago'ko Eukaristi Batzara andikiro amaitu zan.

Txikago'n ospatu dan XXVIII'n Euka-risti Batzar au dala-ta, amerikar katoliko-tar begikoak azi edera erein dabe, eta uste osoz itxaron geinke igali ugariak emongo dituala.

Amaitzeko.

Oin urte bi, Van der Scheer aba, Ams-

terdam'en egin zan Eukaristi batzara'an eta oingoan be ainbeste lan egin dabena, kalean yoyala, langi'le batzuk min emo-teko itzen batzuk esan eutsoesan. Ordu-an eurekaña ur'eratuta esan eutsen: ¿Zer esaten izan dozue?—Eta batek erantzun eutson: Alkari itanduten diardugu ia Sta-dium'ean nor izan dan garailari—... ¡Yaungoikoa! erantzun eban aba onak, eurekañdik aldenduaz... Egiz esan geinke, oin urte bi Amsterdam'en lez, Txika-go'n be Yaungoikoa garailari izan dala! ¡Aintza Berari!...

GAMA.

AITONAREN OTOITZA

Pipa e'etzen exeita zegon aguret'xoa
Besper'ondoren eleiz-aur'ean:
dantzara doan ilol'a Malen andik digaro
ta aitonak dio bere ar'ean:

«Ire begitan daraman, neska,
udako gauen argia,
ta ire ezpaiñetan, basoetako
marubiaren gofia.

Udabañiko egunabañen
gañak, ire betartean...
Begi guziak beti ireganontz
igande-ar'atsaldean!

Ez ba-diten, ba, oiek ikusten
nik bezela, ire biotza:
ire bañengo beazunezko
itsaso nastu mingotza..!

.....
.....
Eta txapelan pipa gordeta
Jaungoikoaren etxera...
Bere ilobatxo txoruan alde
negañez otoitz-eitera.

Jauregi'far Luis.

Andik eta Emendik

Lourdes'era bidezkunde.

Goterki onetatik, lengo ilean egin zan bidez-kunde, ederenetarikoa izan zan. 6.000 bidezti 300 gexo eurakaz eroyezela, Ama maitagariaren onetan auspeztu dira, euskaldun zineste sendoa aitortuaz. Gotzain agufargia buru ebela egin ziran ibildeun eta eleizkizunak gustiz edefak, abestiak gustiz leun, samur eta eztsuak, eta itzaldiak, batez be Pildain yaunak egin ebanak, euskeraz eta erderaz gustiak birloratuta ipiñi zituan.

Ango goterkiko Bulletin'ak bidezkunde onen goralben andiak egin dituz, eusko abendaren yaunzaletasun zintsoa eta abestien edeftasun eta leuntasuna goratuaz.

Euskaldunak beti Ama Sortzez Garbiaren maitaleak izan dira, eta bidezkunde au maitasun onen agerkeri edera izan da. ¡Olantxe yañaituko al dogu beti!

Eta Lourdes-bidezkundeetzaz idazten dogun ezkerero, 1925'n bertara yoan diranak zenbat izan diran ipiñiko dogu.

Prantzia'tik egin diran bidezkundetan 224.940 lagun eldu ziran eta erbestetik 59.460. Beraz 1925'n Lourdes'ko Ama bidezkundez ikertu dabena 284.400 lagun izan ditu.

Kristiñau-Ikasbide Batzaña Granada'n.

Iragarita egoan lez Bagila'ko 13'tik 16'ra egin zan. Edera izan da, bai ostenz baita eleizkizun eta itzaldiz.

Batzar onetarako zabaldu diran txartelak 5.200'tik gora izan dira, eta izena bialdu dabena 10.000 inguru.

Azken egunerako bederatzi gotzain bildu ziran, eta aurfeko egunetan egin ziran lanak on-

tzat emonaz Aita Santuaren Ordelari Tedeschi-ni agufargiak itzaldi edefaz amaitu eban. Baita egun oneitan Palmera Gabriel M. B. S. abak, berariz Paris'tik ekañita, *Saspi Sakramentu ta Mesa deuna* azaltzen dabena pelikula edera lenengo aldiz erakutsi eban.

Uste dogu artutako erabagiak idatzita bakarik ez dirala geldituko, safi oi dan lez, eta gustiok lan egin beaf dogula ondo betetako! Kristiñau ikasbide barik ez dago ezer be-ta. Ortik asi eta ortxe danak amaitu beaf dau: Ez gara aztu beaf Leon XIII'ak Gotzainei esaten eutsenaz: «Zeuen ardurarik lenena gasteria ondo azten ipiñi egizue, eta al dozuen gustia eginda be, naikoa egin dozuenik ez dozue uste izan beaf». (Humanum genus idazk.)

Euskaldun Gotzain bari bat.

Oraintsu izentau dabe Lerida'ko Gotzain, Iru-rita Almandoz Manuel yauna. Ultzama, Napañan 1876'n yayoa. Lenengo irakasle (maixu) izan zan, eta onetan, eri txiki baten, urte bi egin ondoren, 1899'n, Iruña'ko Gotzain-eleizan abeslaritza irabazi eban; gero urte atan Valenzia'n abeslaritza irabazi eta len ikasitako Pilosopiaz gañera Teolojia ikasiaz, 1900'n abade egin zan. Eta ikasteai yañaituaz Pilosopi ta Teolijian doktor egin zan. Afezkero, orain urte bi ingururarte, Gerkera eta Teoloji-irakasle izan da. Izlaritzan be bikaña da eta euskalerian ezaguna. Asko poztu gaitu izpar onek; eta urte askotan zorionak opa dautseguz euskaldun Gotzain bari oneri.

Mutiko bat martiri.

Orain ile batsuk, Albanian auxe gertatu zan. Zortzi urtedun mutikotxo bat umezurtz gelditu

zan eta bere osaba batsuk, euren ardurapean aritu eben. Osabea maomafa zan. eta mutikoa Katolikotafa. Bere osaba gaiztoari, mutikoa maomatar egitea otu yakon, eta ofetarako alegin gustiak egiten zituan. Baña alpefik. Azkenez kurutza bat aurfearan ipiñi ta txua yaurtiteko esan eutson. Baña mutiko zintsoak laster erantzun be, eskatzen eutson gaiztakeria egin baño lenago, bizia galduko ebala. Orduan bere osaba maomatar itsuak, asafe biziz pistola izkilua atara, eta bertan tiroka il eban. ¡Orixe da zintzoa izatea!

Txiñara, Gotzain.

Aita Santuak Mixiñoetzaz emon eban idazki ederean ardura andiz agintzen eutsen mixiñoetako buruei, bertokoak aintzat aritu eta yaupari ta Gotzain, al bait geyen, egitea egoki ta beafekoa zala-ta; ofetan gogoz lan egiteko. Eta Berak bidea zabalduaz, Txao Pilipe abadea, an daukan Ordelaariaren idazkari izan dana, Pekin inguruko Gotzain egin dau. Txinan auxe da lenagoa. Eta izentatze au dala-ta. bafiro be angu Mixiñoetako buruei, beste idazki bat zuzendu lautse, onetan ardurarik andiena ipiñi dayela aginduaz. Gaur Txinan 1071 dira bertoko abadeak; 1481 erbestekoak eta 2.208.370 katolikotafaren ardurea dauke.

Kardenal bariak.

Bagiñako 21'ko konsistorioan Aita Santuak kardenal bari bi egin ditu. Kapotosti Luis, eta Perosi Karlos. Au, Perosi Laurentzi ereslari ospatsuaren anaya da.

Zoriondun bariak.

Orñiaren 16'n Ander Hubert Fournet, Kuruzeko Alaben gopatza irasi ebana, zoriondunen artean ipiñi dabe. Baita Orñiaren 30'n Bartolomea Kapitonio, Karidadeko lekaima bazkun bat irasi ebana; eta Bagiñaren 6'n. Sales Yakobo eta Saltomakio Gilermo yosulaunak; eta 13'n Irakasle onen Bazkuna irasi eban Luzia Filipini, zoriondunen arteko dirala Aita Santuak iragafi dau. Oin deun ez dala egiten esaten ebenentzat erantzun edefa.

Izpar begikoak.

Atsegiñez irakufi dogu, Galdos'tar Erromaldo, osulaunak, lau kardenalen aurfearan azterketa

egin ondoren, Idazti Deun Yakidietan, (Ciencia Biblicas) doktof-txapela irabazi dauala. Eibar'ta argi au euskal-idazle bikain lez ezaguna da. Berada da titulu ori, Españan lenen irabazi dauana. Baita Larakoetxea'tar Ipolitio karmeldar zeauritarafak Eleiz Legedietan, Erroma'n bertan, Doktor-txapela irabazi dau. Au be euskal-idazle trebea. ¡Biotzeko zorionak Yaungoiko Zalen ize nean!

Nok esango eban?

La Vie Catholique, pantzetaf Katolikotafaren aseteroko ederean auxe irakufi dogu:

Bein baten, orain berofegi urte inguru, abade gaste batek Mantua'ko gotzaiñaren etxean deitu eban. Inñon ez eutsola erantzuten ikusirik kisketari eraiten asi zan, eta onetan gotzaiñak berak, eskuetan katiñu bat akeite edo kape ebala, atea zabaltzen urten eutson.

— Parkatu, yauna, esan eutson erbesteko abadeak, naspiltzen etofi banayatzu. Ni Ratti, Milango Idaztitegiko zaintzañea naz. Zure gotzaiñ-eleizan mesa emon dot, eta gotzaiña agurru bari ez neban alendu gura.

Ederto, erantzun eutson gotzaiñak, yaupa (mesa) esan ba'ozu neugaz goxaldu zeinke. Baña goxaria gertatzen zeuk lagundu beafko daustazu; etzeko ardura daukan nire afebak zerbaitera urten dau eta ondiño ez da etofi-ta.

Eta ontzia eskuan ebala gotzaiñak (obispoak) eskatzera eroan eban, eta antxe bien artean akeita egin eta goxaria gertau eben.

A gotzaiña, Aita Santu Pio X'na izatera eldu zan; eta erbesteko abadea gure Aita Santu gufagi XI'n Pio da. Eta gotzaiñaren afeba, oraintsu il dan Ana Sarto.

Nok uste izango eban goxaria gertatzen ziar-duen bitartean, gizon apal biok Aita Santu izango zirala! Baña apaltzen dana goratua izango dala Yaunak esan eban eta.....

M'iaf G.

Meñaka'tik.

Orain, Jaungoiko-zale bizi dala ikusita, Jaungoikoari eskañak, pozik gagoz, baña egun luziak igaro doguz. Uste genduan ba, Markiñan sariketa egunian egin ziran, eta geuk geure begiakaz ikusi genduzan gauza pozgafizkoak, entzun genduzan itzaldi

ZER EDO ZER

MEXIKO'TAR GOTZAIN BATEN SENDOTASUNA

Mexiko'ko katolikotafak

kistar izenaren etsai gogoñen azpian yausi dirala, gauza zabal eta yakiña da. Lenen ixil antzera eta geroztik agirian, an agintaritza dabenak, Eleiza deunari izugarizko amoruz guda egiten dautse. Neron eta Kaligula'n aldian bizi gareala esan leike; aren ankerkeriak ikusita, XX'n gizaldian bizi gareala siñestea be gaitz dirudi.

Aita Santuaren Ordezkoa begirapen barik yaurti, abadeai euren araso yaungoyak galerazo, gotzañak euren erietatik yaurti, lekaide ta lekaimeai eskintzak galerazo, abade ikastetxe eta katolikotar ikastolak itxi; eleizak itxi ta ondasunak ostu, eta lege antzeko agindu galgarrien aurka yaikiten dana espetxeratu eta asko erail, gaizkin batsuk balira lez erbeztetu... eta gizabide edo zibilizaziñoaren aurka agindu zantarak auñera eroateko, basatien artean be artzen ez diran bideak artzen dituez. Eta yakiña

Gotzañak lege onein aurka

euren artaldea zaintzeko, euren bearkun

astuna betetako urten bea' eben eta urten dabe. Idazki ederen bidez katolikotafak une onetan daukiezan egin-bea' eta esku-bideak argiro irakatsi dabe eta kemen andiz zaindu bea' dituela euren ikasbidez irakatsi be bai, Kistoren eskubideak zaintzeko euren bizia emoteko gertu dagozala adiraziaz. Baña onetan galendu dana Huejulla'ko gongotzain adoretua izan da. «¡Gora Kristo E'rege!» burutzat dabela argitaldu eban gotzain - idazkian, argi ta garbi begien auñean ipiñi ditu Mexiko'ko agintarien bidebagekeriak, gizabide, ziñeste eta sentsun aurka emon dituen legeen gaiztakeria, eta ondoren diño:

«Gauza oneik ikusita, ezin geintez ixilik egon; kikiltzat etsiko gindukiez eta zuzen egongo litzakez... Norbaitek uste izan lei zurfasun barik etsai ankeren asa'pean sartzen gareala. Tira, alan izan beite. Baña askoz obe da gizonen asa'pean yausi, Yaungoikoarenean baño. Obe da kementsu gizonen auñean Yesu-kristo autortutea, berak azkenengo egu-

nean Beretzat ez ezagutzea baño. Espe-
txe ilun eta suizkiluak ez gaitu bildur-
tzen: azkenengo egunean gaiztokira bial-
du gindezken Yaungoikoaren epayaren
bildura baño ez dogu.» Eta agintariak
Eleizari bere eskubide osoz eta izatez
dagokiozan arazoetan sartzea; Kisto'ren
Eleizaren eskubideen aurka dala, banan-
-banan aztertuta gero, esaten eban; lege
ofeik ontzat emotea, ixilik egonda baño
ez-pada be, Mexiko'n Eleizak bere izake-
ra galdu eta Yosu-Kristo'rena izatetik al-
denduko litzakela, eleiza orokofaren atal
usteldua izango litzakela, zugatz edera-
ren adar igaritu, ebagi eta atako ilunpe-
ra yaurtiteko gai izango litzakena.

Eta azkenean Mexiko'ko lendakariari
diñotso: «Yakin bear dau, emen uññeko
baster onetan, beti basati eta eguzkiak
eretako baster onetan, gizon bat dala,
bat, bear ba'da Yosu-Kristo eta bere kris-
tiñau Eleizaren alde bizitza emoteko
adorea, yaunaren laguntzaz, eukiko da-
bena. Bakar bakarrik eskar bat eleizaren
etsayei eskatzen dautset, eskarik egiten
ba'dakie: atzerik ara ez erailteko. Agin-
tariak Mexiko'ko katolikotarai, egizko
kistar adorea eskatzen ba'dautse, geuk
be geure eraleari, Erroma ziñestebako za-
nean, euren Kaiseñak euki eban adore ta
asañtasuna euki dayela eskatzeko eskubi-
dea eukiko dogu».

Eta gero itun edera bere kristiñauai
emoten dautsez, zintso yokatu dayen,
esanaz:

«Zuok, seme-maite-maiteok, eliztarok,
zintso yaraitu otoi egiten, eta zuen ziñes-
tea, naste barik eta argi ta garbi zaindu
zeuon gurasoen ziñeste lez. Eta zuok
Abadeok, Yaungoikoaren erianen egizko
buru izan zaiteze; zuen artaldearen
egizko artzain; otso amofatuaren aurean
ez inoz igesik, ariskuak bildur barik iga-

ro; baño ez dakizuela galdu ardi bakar
bat be».

Idazki onen ondorenak ikusi daiguzan.
«Egia eregaria» esan oi da-ta, agintari
maltzurak min andia artu eban.

Biozdun Gotzaña espetxeratzen.

Oñila'ren 13'n zaldizko gudari-talde ba-
tegaz, ustegabe Huejutla'n aurkeztu zan
Lopez Enrique gudalburua. Egun atan
bertan epaikariagana deitu eutson. Baña
Gotzain adoresua etzan yoan eta eran-
tzun eutson, eleiz gizonak epaitzeko es-
kubiderik prakadun epaikariak ez dau-
kala. Orduan Gudalburua kapitai bate-
gaz yauregira yoan eta gotzaña bere
etxean espetxeratuta gelditzen zala adi-
razi eutson. Izpar au bereala uri gustiik
zabaldur zan eta gizoste izugaria gotzain
etxe ingurura yoan zan, euren asarea
agertzeko. Gustiak tamalez negar egiten
eben, Gotzainak izan ezik, eta beti lez
bere zeregiñetan aldia igaroten eban.
Baña apalduta gero, gizostearen aurean
aurkeztu zan, eurakaz agurtza deuna ere-
zetako. Amaitu ebanean bere buruen ya-
betasun osoz gizosteari itz egin eutson
esanaz:

«Ez zaiteze itun yari; Yaungoikoagan
uste osoa ipiñi egizue, neuri barik altsu
ta ona dan Aitagan semeak ipiñi oi da-
ben lez; katolikotar ziñeste deunean yar-
aitu, Eleizaren seme esaneakoak izan, eta
orain gañera yausten yakuzan gaitz Gus-
tiak ez dayela zuen ziñestea argaldu, ge-
roago mardulagotu ta sendagotu ba-
ño».

Gustiak ao batez. ¡Bai! ¡bail! erantzun
eutsoen zin-ezaugarizat besoak yasoaz.

Onetan gorbernuak Pachuka'ko urian
epaipetutea erabagi eban.

Urango egunean, uri atara yoateko

zaldi gañera igon baño len abots sendoz esan eban:

«Gotzaintzari egiten yakon bidebagerikeri onen aurka neure asareaa ageritzen dot, baña batez be, Eleiza Deunari egiten yakon irañagaitik».

Eta zaldi gañera igon, eta gustiak ixilik egozala, gizostea onetsi eban.

Gudari artean Pachuka'ra eldu zanean, Epai etxean ikara barik sartu zan. Gonoruz beteta egoan.

Itaunak egiten asten dira ta lenen diñotsoena, bere gurariz ez dala etori indarez baño, diñotse.

Lendakariak itandu eutson: Gotzain yauna: Idatzi dozun Gotzain-idazkia, yaurkera (gobernua) aldatu, legeak bariztau ala agintariei agintza kentzeko asmoz idatzi ete dozu?

—Ez, erantzun eban Gotzañak, Eleizaren eta katolikotar kontziñziaren eskubideak aldeztuteko izan da, eta esku-bide orain aurka diran legeen barizkundea eskatzeko».

—Gogoan euki bear dozu Gotzain yauna, legeak eleiz gizon soñekoak eta Gotzain ezaugarriak eroatea debekatzen dabela.

—Gotzañak erantzun eutson:—Gauza oriek galerazten dituezan legeak ankerak dira, baña gogorkeriari bidea ez zabaltzearen neure soñeko ta gotzain gurutzaz lagatzen dodaz.

Geroz, espetxean sartu ala azke itxi

erabagiten gelditu eta norbaitzuen eskariz, uritik ez urtetzeko, eta bi mila ta bos-teun ogerleko ustantzaz azke itxi eben.

Eriotzea.

Auzia onetan gelditu zalakoan, izapañ zabaldu zan, Beracruz'go espetxean Gotzaña ilda aurkitu ebela. Il edo obeto esateko erailda aurkitu eben gotzaña Hujutla'ko Gotzain kementsu Yesus'en Yose Manrike Zarate, yaun agur-garia izan da. Aintza martiri bari oneri! Prantzizkotar argia izan da, eta zorioneko dago Gopatza bertatik giza guren onek urten dabelako.

Kristiñau gizabidea Mexiko'n lenen zabaldu ebana Prantzizkotar argi eta Durangotar ospetsu Zumañaga'tar Yon izan zan, eta orain gizabide ta ziñeste orain aldez beste prantzizkotar bateg bizia emon dau.

Eleizaren aurka egitea akuñuari ostikoka egitea dala, eta kristiñau ziñopa edo martiriñ odola, bariñ azia dala edestiak beti egiztu dau, eta orain be olantxe gertatuko dala ziur gagoz.

Eta beti be ziur egon leitekez Eleizaren etsayak, beti geldituko dala luñean, eurai ¡Requiescat, in pace! abestuteko abadeen bat. Eleizak orain arteko etsayeri orixe egin dautse, eta orain eta aurerantzean be olantxe gertatuko da. Bitartean otoi egin daigun gure anai mexikotaren aldez!

GAMA.

KRISTIÑAU - IKASBIDE SARIKETEĀ

Z E A N U R I ' N

Jai ospetsua benetan egin zan iĭ-onen 11'an. efi onetan. Jaungoiko - Zale - bazkunak lenengo egin eban onango jai-gomutagarĭa efi onetan, ta bera beingoan aztutekoa etzan izan.

Alan ba ikusirik kistar-ikasbidea gauzarik lenena, beafena dala gaste ta zafentzat, efi oneta-ko Abade agurgarĭak urteoro gertauten dabez olako yayak. Andra Mari'ko elezpean egin zan aurtengoa be. Berarizko tokia zugatz ostoakaz egin eben polito, atondurik abade-jaunen erdian 8 urteko neskatoa Aguirazabala Prantziska, kistar-ikasbide gustia ekiana.

Asiera emon eban jai-onek bakafizketa politik egiĭnik Oleaga anayak; Sagarna anayak, Intxaufaga Kandido ta abar . . . Gisasola'tar Maximo abade-ikasleak, bere abots zoliaz abade batek lez egin eban, kistar-ikastetzaz itzaldia ta irakurĭ eban, Goi-izpitik artuta, olerki polit batzuk. Eriko epaikariak (1) egin eban berbaldian esan eban: gertu dagoala abadeai laguntzeko kistar-ikasbidea irakasten umeai. Gero Etxezaraga'tar Bizentek berak egiĭneko ta emen doyanan olerki gustiz politik irakurĭ eban. (2)

Ozte guztiz andia bildu zan bertara, ta egin ziran egikixun gustiak txalotuak izan ziran. Baita euskeraz'ko abesti politik abestu ebezan neska-mutikoak. Eta azkenez Pa'oko jaunak itzaldi edefaz danari eskerak emonik, ain jai gomutagarĭa ikusirik, ondo pozik etxeratu zan jente guztia.

Manterola

(1) Geure bazkidea dala uste dogu. Zeanuri'n kristiñau-ikasbide jaya egin nean bazkidegendu zan, ta asko postuten gara asmo ofetan ain kementsu ta langiĭle ikusteaz. Epaikari, Osagiĭle, Abogadu, Inkenieru ta olakoak kristiñau-ikasbidea euskaldun umiĭe irakasten, Abadieĭ lagun-egiĭnaz, asi badaitez, laster kukuruku yoko geunke, gure efi maite au auferantzean be, beste askoren ganetik *kristiñautasunian* jarĭko litzakelako.

(2) Olerkiok ufengo zenbakian ipiĭnko doguz.

SARI NAGOSIA: Franzisca de Agirazabala: 8 urtekoa. *Kistar-ikasbide dana ekielako.*

1.º SARIA. *Kristiñau-ikasbide dana ekienak.*

Venancio Zuluaga.
Ilario Emaldi.
Pedro Lapatza.
Francisco Etxezaraga.
Antonio Arza.
Marcos Gortazaf.
Martina Goikouria.
Maria Goikouria.

2'n. SARIA. *Kristiñau-ikasbide osoaren lauren bi ekienak.*

Dionio Manterola.
Tomas Emaldi.
Emilio Sagarna.
Eusebio Ozerinjauregi.
Antonio Ozerin.
Justa Ziafusta.
Antonio Intxaufaga.
Purificacion Manterola.

3'n. SARIA. *Lenengo ta bigarren maĭlea ekienak.*

Felis Astondoa.
Felis Agirazabala.
Martina Lekue.
Genoveva Urutxurtu.

4'gn. SARIA. *Lenengo ta bigarren maĭatik lenengo lauren biak.*

Antonio Zuluaga.
Jeronimo Artetxe.
Mariano Agirazabala.
Antonio Rezagorĭ.
Jesus Intxaufaga.
Simona Intxaurbe.
Felix Campo.
Domingo Sagarna.
Sebastian Lejarza.


Emilia Etxebarria.
 Ignacia Etxandia.
 Justa Ibañetxe.
 Cristina Etxebarria.
 Engrazia Olivares.
 Jesus Pujana.
 Vicenta Campo.
 Albina Pujana.
 Maria Beobide.
 Susana Bengoetxea.
 Josefa Etxebarria.
 Benjamin Manterola.
 Jose Uriarte
 Marcos Uriarte.
 Pablo Gortazar.
 Juan Jose Ugariza,
 Cipriano Etxezaraga.
 Eugenio Ugariza.
 Gregoria Goikouria.
 Primitiva Mendia.
 Andresa Gortazar.
 Maria Cruz Gorostiaga.
 Jesusa Uriarte.
 Bernardino Arza.

5ⁿ. SARIA. 1.^o *mālea*.

Lucio Ozerinjauregi.
 Gabriel Goyoaga.
 Victor Arana.
 Francisco Beobide.
 Matias Manterola.
 Lorenzo Gortazar.
 Maria Begoña Uriarte.
 Feliciano Manterola.
 Maria Gortazar.
 Felisa Arteaga.
 Micaela Lasgoitia.
 Margarita Lafakoetxea.
 Angeles Egiluz.
 Maria Etxezaraga.
 Maria Intxaurbe.
 Petra Pujana.



Andra Maria burestundua. Prado'ko Erakustokian dagoan Velazquez'en margeskia.



Igaliz beteriko zugatza makurtu egiten da. Igalirik ez daukona bañiz larden-larden egoten da.

Beraulan be gixa-seme jakintsubak apalak dira, ta ezer ez dakinak aruak.



ANDIK ETA EMENDIK

Benedikto XV'gn. goralbenez

Genoba'ko Ikastetxe Nagosian ikasi zituan legeak, Aita Santu agur'gafi izan zan onek, eta bere aintzaz idazkun bat ipiñi dabe, bertatik urten daben ikasle bikañe-netakoa izan zalako. Yakiña da ba, gasetxotan abade egiteko guraria aitari agertu eutsonean, lenen legeak ikastea gura ebela bere aitak adirazi eutson. Orduan Jakobo de la Chiesa, gero Aita Santu ain ospetsu izango zanak, bere aitaren esana egiteko, Genoba'ko ikastetxe nagosira yoan eta legeetan doktor-txapela irabazi eban. Eta onen ondoren abade ikasketak azi zituan. Bere gomutaz idazkuna agertu dabenean, bere ikasbide eta orain irakasle dan Bensa yaunak Benedikto XV'n. goralbenez itzaldi ede'fa egin eban, batezbe gudaldian bake-aldez egin zituan eten bako lanak goralduez, eta gogo txafe'koak bere lan ede'f eta onuratsuatzaz zabaldu ebezan guzurfak ezereztuaz.

Goralben au dala-ta, bere aizkide baruko Krispoldi markesak gauza yakingafi batsuk argitaldu dituz.

Beronek diñonez, lege ikasle zanean, zerbait bildur'koi eta ikasleakaz artu emon gix'xikoa izan zan. Baña bai eukan bat beti beragaz ibiltan zana, Ansaldo yauna. Jakobo Chiesa oso txiki ta erkiña zan, bere laguna, ostera, tantaya lakoxea, lodi ta lepo zabala. Gero XV'n. Benedikto izango zana gustiz txikia zalako, *piccoletto* (txikitxo) izen gaiztat ipiñi eutsoen, eta gero be izen onegaz gelditu zan. 1887'n. España'ra, Aita Deunaren Ordolariaren

idazkaritzat autu artean, Batikano'n laguntzale egon zan, eta gauza zailen bategaz Rampolla idazkariagana eltzen ziranean latefietako ordelari edo embajadoreak, Chiesa yaunagana bialtzen zituan esanez: «Zoaze *txikitxoagana*, bere eretxia emon daizuen».

Beronetaz aldi atan gero Agrialdi kardenal izango zanak bere lagun bati idazten eutson: «Diñonez, Rampollak bere ondora laguntzeko, beste Konsalvi bat izango dana eka'fi dau». XV'n. Benedikto'k berari ipiñitako gaitzizena ezagutzen eban eta bein baño safiagotan berak erabili be bai. Krispoldi markesak diño, bein izketan ziarduela, Bazkun batek igaro zituan estu-aldia aitaturik, iriba'rika esan ei eutson: «Zer gertatuko ete zan *txikitxo*'k lagundu ezpa-eutson?».

Ain txikia zalako, Aita Santu X'n. Pio'ren eriotza ondoren autu ebenean, Aita Santu bafiarentzat gertauta egozan iru sotana zuriak eta oñetakoak, gustiak nasai eta andiegiak izan ziran, eta iraduz, yoskurak emonaz, txikitu bea'fean aurkitu ziran.

Benetan gorputzez txikia izan bea'f izan eban, baña gogoz eta egitez gorengo mañan agertu zala gustiok dakigu.

Beste zerbait ipiñiko geunke, baña ez luzetzea'fean baleiteke u'fengoan argitalzea.

Mexiko'ko yasafpena.

Mexiko'n aspalditxoan dabilen katolikotafean aurkako gudeak au'fera yaraitzen

dau. Eleizak itxi bea' zirala-ta, legearen agindua betetako garayan bufuka gogorak izan dira, eta katolikotarak adore andia agertu dabe. Kales ankerak bere aldetik gero ta gogorago egiten dauala esan lei. Eta bufuka onetan adore andiz, Eleizan aldez bizia emon dabenak ugaritxo izan dira. Baña batez be agintarien *basatikeria* onetantxe agertzen da. Huejutla'ko gotzain adoresua, Gotzain-idazki edefenariko, lege galgarien kaltez, idatzi ebalako, espetxean sartu eben, eta antxe ilda aurkitu dabe. Uste danez ixilean erail dabe etsayak. Bere idazkian eskatzen eutsen, bera ilteko adorerik badauke, arpegiz-arpegi ilteko, eta orixe «mesede» egiteko be eztauke biotzik, Mexiko'ko zibilizau antzeko agintari basatiok. ¡Aintza Kristoren martiri bafari!

Katolikotarak, lege gaiztook aufera eroan bea' ziran ala ez yakiteko, auteskunde bidez efiaren gogoa aztertzeke eskatu eben; baña olakorik ez dabe gura. Bai ba; lau katu baño ez dira ta...

Orain amasei urte Mexiko'n 15.033.176 katolikotara egozan, eta katolikotara ez diranak 133.684 bakaarik. Eta alan da gusti be ofein menpean egon bea'! *Demokrazi* edefa, beti itz ori agoan darabilenentzat!

Beste zer bait.

Txikago'ko Eukaristi batzarako zenbakiak afitzeakoak izan dira, eta ba'dira ondiño emen tokitxo bat merezi dabenak.

Batzararen auferko egunean, bagila 19'n. Txikago'ra 800 bultzi (tren) berarizko eldu ziran, onez gañera 122.000 bilbel edo

automobil eta 400 itxas-ontzi, gustien artean 500.000 bidezti eroan ebezan Txikago'ra egun baten.

Txikago'ko abade batek uferko domiña bat eskiñi eban, eukaristian dagon Yaunari izen on, egoki ta ugarienak ipiñiko eutsozan umeentzat. Saria irabazteko asko aurkeztu ziran eta irabazi ebana 12 urteko neskatotxo bat izan zan, 2.412 izenen ereskaidea aurkeztu eban-eta. Beste butek 2.117 aurkeztu zituan, eta beste ogei umek, bakoitzak 1.000'tik gora. Ume zurak bai dira ofaitik Txikago'n!

Eukaristi Batzarerako ereserkerik onena egingo ebanentzat sariketa egin zan eta 400 aurkeztu ziran, eta saritua andereño batena izan zan, Kate Vannah izena eta New York'eko alaba.

Lufeko gotzainik zařena.

Redwood New Zelanda'n Wellington'go gongotzain edo artzobispoa da. Oin beřogeta amabi urte, ogetamalau eukazala, gotzain egin eben, eta aldi baten gotzain gasteena izan zana, orain zařena da. Goterki baten beřogeta amabi urteak egin ditu eta, larogeta sei urte euki afen, Txikago'ko Eukaristi-batzaragan izan da. Gogo argiko gizona eta ereslari gogokoa izan bea' dau, doyan toki gustietara ondo yoten dakian biboliña eroaten ei dau-ta. Ufergo Eukaristi batzara 1928'n Sidney'n izango da-ta, bera dagon tokitik iru egun ta erdiko itxas bidea baño ez dagola-ta, yoateko gogoa agertu dau. Agure bizkof ta gogotsua da gero!

ZER EDO ZER

YOLASKETAK DIRALA-TA

Bea'ekoak?

BORBAITEK idatzi dau, gogo, naimen kementsuak izatea gura ba'dogu, lenen *abere onak* izaten alegindu bea' gareala.

O'regaz adirazi gura eban, gorputz sendodunak izaten alegindu bea' gareala, gorputz sendoaren ba'uan gogo sendoa, erkiñaren ba'uan ba'ño e'ezago aurkitzen dala-ta. Au yakiña, beti ez da gertatzen; gorputz sendodunak izan a'ren, o'lo batek ba'ño naimen argalagoa daukanak bein ba'ño sa'riagotan ikusten dira-ta. Ba'ña bardiñean, gorputzeko sendotasuna ta gogokoa alka'ren lagun izaten dira.

Eta izan be, gorputzak gogoagaz daukon batasun eta alka'rtasun sakona dala-ta, gorputzak eragipen andia daukolako, gorputzeko gora-berak bide dirala, gogoak aldakuntza asko izaten ditu. Auxe dala-ta, gogo sendoa gura dabena gorputzaren ardurea be geyenez a'rtu bea' dau, antxiñako esakuna beteta-

ko: «Gogo sendoa: gorputz sendoan».

Eta yolasak gorputzeko sendotasuna zaintzeko eta lortzeko egokiak dirala, esan bea'rik ez dago. Alan ba, zerbait yolas, era batera edo bestera, gustiontzat egokia, eta geyenez gorputzeko sendotasunarentzat bea'ekoa dala esan geinke.

O'rexegaitik, sendietan, e'rietan eta la'terietan abendaren sendotasuna lo'rtu ta zaintzeko gai diran yolasari inda'ra emoten alegintzen diranak, lan onuratsua egiten dabe, bide batez gaztedia galbidetatik aldendu eta bere bizitasunak yolasetan erabili'az, gogo sendoagodun edo obeto gizonago egiten laguntzen dautsielako.

Kaltega'riak.

Ba'dira yolasen artean, kaltega'ri diranak berenez. Yolasok Yaungoikoaren legeen arauzkoak ezpadira, girñak piztu ta gorputzaren menpean gogoa ipinteko gai ba'dira, gizona abere antzeko egiten

ba'dabe, esan bearik ez da yolasok, kaltegarri diralako, baztertu egin bear dirala. Eta oretan zerbait bere semeak maite dituan gurasoak, eta bere eria maite daberen agintariak eten bako lana egiten ez litzakez aspertu bear, euren izenen yaube izatea gura ba'dabe. Eta onango yolas kaltegarrien artean nok ez dakus *dantza nastu* naskagarriak dirala gaztedi gustia, lizunkerizko lokatz artean ondazten dabena? Eta zer itxaron geinke orain eri txikietan be gaberdirarte edo geyago olango yolasak erietako agintariak eurak ipinten ba'dabez? ¿Eta zer, ikastolara dabiltzan umeak olango yolasetan sartzen ba'dira, nik ezagutzen dodan zoritxareko eri baten lez, agintariak eta gurasoak yaramonik egin barik?... Dantzea, *argitan* eta *garbia* antxiñako euskal-dantza danean, osasungarria izan leiteke, baña gaur bazter danetan zabaltzen doyan *ilunetako* ta *baltza*, ixuria baño kaltegarriago da *gorputz* eta *gogoentzako*; ez bakaarik abadeen esanaz, osagile yakintsu askoren esanaz egiztu geinke. Oren aurka onena geure dantza garbiak zaindu ta zabaltzea izango litzake baña...

Kaltegarriak lagegikeriz.

Lagegikeria gauza gustietan kaltegarri da-ta, yolasetan be bai. Yolas onen zalegeria kaltegarri. Eta ortxe neuria zaintzeak lanik asko emoten dau.

Gaur geyenez ikusten dana da, bitarte gustiak gasteriak yolasean igaroten dituala, eta burua ta biotza eta anak yolasean sariuta ditualako, auxe sari askotan gertatzen da: Yolasa *benetan* artzea eta egin-beara *yolasean* ipintea. Eta gero bizitz onetan dagon gauzarik garrantzitsuena yolasa dala uste dau, eta bere yakituri gustia yolaseko gora-berak, tx-

peldunen izenak eta bizitza, eta yolasari dagokiozan gauzak ezagutzea da. Eta ori tamalgarria dala, argi dago. Oregaitik, naiz ostiko yokoa, naiz beste edozein yoko osasunkor, *zalekeriz* artzen danean, gorputza geyegi nekatzeko, eta ikaskizunak baztertzeko izaten da. Oregaitik ikusten dira, askori anketako sendotasunak ardura geyago emoten dausela, zerbait ikasi edo biotza zuzentzeko ardurak baño. Eta olan ostiko yokoa *astoko* yoko biurtzen dabe.

Alan ba, sentzunez yolastu bear da, eta sentzunak neuriz egin bear dala diñosku.

Yai egunetako yolasak.

Beste egunik azke ez dago ta yai eguna yolasetarako artzen da. Baña edonok dakian edo yakin bear daberen gauza da, yai eguna Yaungoikoari opaltzeko dala, eta gorputzari bear daberen atsedena emonaz, gogoaz berariz arduratzeko. Beraz yolasak eta gogo-arazoak alkartu leitez. Lenen gogoari bear yakona emon, beintzat mesa deuna entzun eta zerbait geitxoago be eleizkizun eta gauza onakaz gogoratu, ta enparaua yolasean igaro. Gustirako dago astia, nai izan ezkerro. Ez askoren antzera goizean goizetik mendira yoan, eta abere bat baño geyago Yaungoikoagaz gogoratu barik, *basati* eginda eguna igaro.

Eta onez ganera yolasak, laizterketak eta, goizeko mesa bitartean ipinteaz oso kalte asko egiten dabe yolas-bazkunak; eurak uste daberen baño geyago. Onetaz Gotzainak eta geure Gotzain agurgarriak be tamalez beteriko oar bat argitaldu eban, ardura andiz olako yolasak beste ordu batzuetako ipini eragiteko lan egin bear zala adiraziaz, bear izana be bai egoan da. Igandeetan gaztedientzat ba'

da beste galbide bat. Batez be yoan-
-etorietarako éreztasunak ugaritu diran
ezkero.

Eta au da, igandeetan érian egon ezi-
ña. Gaitz onek beste baten sustara dau-
ko. Gaur sendien gaitza etxean egon
eziña da. Oingo umeak geyenez etxeari
ez dautse maitasunik, gurasoak be ez
dautsielako. Eta ortik bakoitzak al bait
aldi gitxien etxean igarotea dator. Eta
gurasoak kale-zaleak izan ezkerok... pa-
mili edeñak urtengo dau... Eta etxear n
maitasunik ezak ériaren maitasunik-eza
dakar, eta ériaganako maitasunik ez k
éritik érez urtetzea. Eta pizka bat be gi-
ratu ezkerok, auxe ikusten da. Éritik urte-
ten dabenean gazteak *lotsa* apur bat
beintzat érian itxiten dabela. Eta bakoit-
tzean apur bat itxi ezkerok, len gitxi ba'
dago batez be, laster lotsagabeko egiten
dirala... Eta onen ondorenak edonok
dakiz.

Beraz.

Yolasak onak dira, *onak* diranean,
eta onak ez dira izango, ala berez txar-
ak izan, ala laégikeriz kaltegarri, ala gauza
onak, Yaungoikoarekiko bearkunak ga-
lerasten dituanen, eta ez da geure sen-
di eta ériari zor dautsagun maitasuna
galdu eragiten dabenean be.

Eta érietako agintariak, menpekoai al-
bait txindi geyen kutxarako atarateko
baño zerbait geyagotarako ba'dira, ale-
gin gustiak egin beark dabez yolas loyak,
gabazkoak, eta oitura onen kaltezkoak
bazteritzen, eta ori ez egitekotan ez dakit
zertarako aginpideok aritzen dituezan.

Yolastu gasteak, pozez beterik, baña
argi, *garbi neuriz* eta *Yaungoikoak nai*
daben lez...

Olantxe bakañik «gorputz sendoan go-
go sendoa» eta biok baño bearkoago
dan Yaungoiko-zaletasuna zaindu leike
ta...

ANDIK ETA EMENDIK

Obiraltzetan (entieruetan) ixilik!

Prantziko, Dijo'nen katolikotaraĥak, geuk ezagutzen doguzan efi batsuetan be txarto etořiko ez litzaken bazkun bat sortu dabe. Bazkun onetan «*edukaziño ona*» daukien gustiak saftu leitekez. Bazkideen egin beař batzuk onexek dira:

«*Abadea ildakoen etxera eltzen dan unetik ez itzik egin.*

«*Ortu santurantz doazala ez itzik egin eta ez ofetarako besteri biderik emon be.*

«*Bestek norberari itz egin ezkeru, labuř erantzun....*»

Ederto! Gauza itxusia da izan be ildakoari la-guntzean bere atzetik *mař-mař* yoatea eta itxusiago ondiño *moř-moř...* egitea, sařiegitan ikusten dan lez. Eta onetan Ebaren alabak bakafik ba'lira ĵira! ospea be ba'dabe-ta... baña Adan'en semeak ez dira atzenengoak izaten....

Miña geldi ezin euki ba'da, erabili; baña ilda-koagaitik otoi egiteko, osterantzean ixilik egon obe.

Abade yakitun baten eriotza.

Aspaldi bere bafi irakuři gendun eta gaur arte basteřtuta euki dogu Taulegne abade pantze-

tařa, oin ĩle bi inguru il zan. Potigny'ko txauburu izan zan eta 56 urtedun bertan il da. Pisika gayetan oso yakituna izan zan, eta gauza asko egokiak asmau zituan, batez be argazki gayetan eta aribako uřutizkiñean. Berau izan zan irakizkiñaz bialdutakoa idatziz ařtzeko tramankulua asmau ebana, ondiño olango amesik ĩnok be ez eukanean. Karnegie amerikařen saria irabazitakoa zan. Baña bere lanik etenbakoenaĥ *X izpi* ta ultravioleta izpiak izan dira; eta ondiño ořeik izpiok arduraz ez erabiltzetik etofi zeintekezan kalteak ezagutzen ez ziralako, eta beti erabiliaz itzala galtzen yakelako, radio-dermitis deritxon gexo ikaragaria gorpuz gustitik zabaldu yakon, eta oñaze ikaragařienak, eroapen andiz, igaro ondoren, il da. Guda andian batez be, bere yakituriaz amaikatxo gaxori, maitasunez, lagundutakoa izan da. (G. B.)

Euskotar gotzain bafi bat.

Pozik irakuři dogu euskaldun bat Aita Santuak gotzain egin dauala. Maiztegi Besoitařutia Yon Yoseph M. B. S. Darien, Panama'ko gotzain egin dabe. Yuřeta'ko seme argi au 1878'n yayoa da. Balmaseda'n bere lenengo ikas-

teak egin zituan eta abadetza artu ondoren, Portugal'en egon zan, andik naspiltzaileak yaurti eben arteraño. Gero Brasil'en 1921 egonda Kalifornia'n «Los Angeles»era yoan eta 1924'n. «Old Mision» deritxon tokira aldatu zan. Buru argidun eta langile sutsua da berau, toki oreitan agertu dabenez. Eta sentsunak eskatzen daben lez, bere amaren altzoan ikasitako euskera gozoa ez dau aztu, eta txikitatik, 12 urte ezkerotik, erbestean ibili afen, euskera ederto egiten ei dau, eta baita biotzez maite be, seme onak egin beař daben lez...

Gure biotzetiko Zorionak!

Onegaz ainbat dira atzerian gotzain dagozan euskaldunak: Irazola, Sarasola, Agirre, Muñagoři, Zubizarreta, Huarte, eta oraintsu il dan Arteaga ta abar burura yatorkuz, beintzat.

Ez dirutza txikia be!

Txikago'ko Eukaristi Batzar ospetsuan eralgi dana *miloi bi dolar* baño geyago izan da. Dolar bakoitzak saspı peseta inguru balio dauz ta kontuak atara. Ori gustiori Ipař Amerikatarak emon dabe. Gertakizunetarako dirua biltzeko eukan batzordeak lenen egin eban eskarian auxe ziñoen gitxi gora bera: Oin beintzat 700.000 dolař, katolikotarak emon beař dabez edo euren artean bildu beař eta beste 500.000 batzorde onek bilduko ditu 500 katolikotar aberatzei bakoitzari 1.000 eskatuta. Eta ango katolikoak euki ta *emoten* be ba'dakie nonbait eta, beař zana bildu be bai. ¡Orixe da emoten yakitea! Emen amesetan olangorik ezin lei bururatu, zoritxařez!

Mundelein kardenalak batzařerako gertaerak egitea erabagi ebanean 1.000 idazteko makiña erosi zituan. ¡Ortik atara kontua zenbat idatzi beař izango zan zabaldunda egiteko.

Beste dirutza bat. Mundelein deritxon ikastetxean orain arte *8.000.000 miloi* dolař eralgi dira. Bertan dauken zumařdi edo parkea Madrیدهko *Retiro* deritxana baño sei bideř andiagoa ei da.

Ziñeste zabalkunderako.

Asmo edeř eta bikain onetarako España'n 1926'n batu dana, aldizkingi batek diñonez, 317.670 laurleko izan da.

Geyen emon daben goteřki edo eleiz-bařutia Gazteiz'koa izan da; 76.477 lauerleko emon dituz-eta. Bigařen mañan Barzelona'koa 61.400 laurlekogaz agertzen da, eta irugařenean Madrid'ekoa 27.787 lauerlekogaz.

M'lař G.

ZER · EDO ZER

Asis'tar Prantzizko Deunaren Saspireungaren urteuřena.

Kristo'ren Eleizan sortu diran deunen artean, gitxi, ala bear ba'da beste bat ez da izango, ezagutzen dabene guztiei Prantzizko deuna aña begiko egin yakenik. Beratzaz idatzi dan aña bestetzaz ez dogu uste idatzi danik, eta deun arıgari au goraltzen katolikotar eta ez diranak alkaren leyan dabiltzala esan lei. ¿Zer dala ta? Deun onek zerbait ba'dau, beste ez daukena, eta apalen artean apala izan zalako, txiroen artean *Poverello* txirotxoa izan zalako, eta onbide oneikaz maitasunik samuřena eta alaitasunik begiko eta iraunkořena euki ebalako, eta batez deunik andienetarikoa izan zalako, edozeñeri gustiz begiko ta maitekoř egiten yakona da. Eta gizaldiak igaro arene, bere gomuta zabalduaz doa, deun andi au gizaldi gustietako deuna dala egiz esan al izateko eran.

Eta deun goragari onetzaz bere erioztaren saspireungaren urteuřenean zerbait idazteko, Aita Santuak gai onetzaz

idatzi dabene idazki bikañaren gauzarik garayenak aitatuko doguz.

Prantzizko deuna Kristo'ren irudi.

Aita Santuaren asmoa egizko Prantzizko deunaren irudia begiene auřean ipintea da: bere anditasun gustia batez be deuntasunetik sortzen zala adirazi az; kristiñau gustiak Prantzizko deunak irakatsi euskun goizparıki edo ebanjelioko irakaskizun garki eta ekarakaz alkarıtutako deuntasunari yařaitu dagioen. Ore xegaitik Kristo'ren irudi bizi les aurkezten dausku eta gai onetan diño Aita Deunak, «ez dirudi deunik izan danik, bere bizitzan Prantzizko deunagan baño antz eta aratztasun geyagoz, Yesu-Kristo'ren irudiak eta ebanjelio-bizitzak disdis egin dabenek».

Auxe dala-ta *Erege gurenaren Irağarlari* bere buruari deitzen eutson lez, baita egiz deitu deutse *bigařen Kristo* bere aldikoei eta etorkizunekoiei bařiro biztutako Kristo lez azaldun yakelako. Orixe dala-ta, aintzakotzat gizonen go-

mutan bizi izan da, eta etoriko diran gizaldietan alantxe biziko da». Alan ba ez da afitzekoa, bere lagunak bere bizitza idatzi ebenean gizonen ganetiko deun oni etsitea, ez ta ainbeste maite izan daben aurretiko Aita Santuak, Yaungoikoak Eleiza ta eria gaizkatzeko bialdutako gizona izan zala autoitza.

Prantzizkotar gogoa biztu bear da.

Bere eriotza deunetik saspireun urte betetzen diralarik ba, gogoz yazokun au ospatu bear dogu, prantzizkotar gogoa alegin gustiz gizartean biztu ta zabaltzeko lan egin bear da, prantzizkotar gogoa ta ebanjelioarena bat bat bakaarak dirata. Eta XIII'n Leon agurgarñaren aldian bere yayotzako saspireungaren urtea ospatu, eta andikiro eta onura andiz atan be, ospatu zan lez, bere eriotzaren gomutaz orixe egin bear dogula diñosku, eta orduan baño onura geyago ataratea itxaron geinkela.

Prantzizko deunaren aldia.

Ziñestea biotzetan sustartuta euki arien, aldi naspiltsua izan zan. Laztasun soñekoz yantzita, guzura zabaltzen eben ziñausleak ugari ziran, eta ziñez-erezak eta ez-yakiñak euren aldez ezez ipinten zituezan, eta an emen naspiltzaleak euren burua agertzen eben; eta gizonen utsak gaiztakeriz eleizari ezarñiaz, arokeriz beterik euren burua zuzendu baño len, gizarteak ta Eleiza zuzentzen alegintzen ziranak itxulaskundeai indara emon eutsen. Eta ziñestek oso ala gustiz ilundu barik iraun arien, ebanjelio - gogoa ia gustiz galdu zanean, «maitasuna gizar-tean ia itzali zala uste izateko eran epeldu zan».

Eta maitasunik ezetik asarea ezez sortzen dalako, lateri eta Eleizaren aurka,

Italia'n batez be uriak urien kaltez, batzuetan azkatasuna loitzeko, beste batsuetan indartsuenak argalenak azpiratzeko, baita eri bakoitzean nor nagosi izango zan erabagiteko, asare, goroto, guda, naspil, lapur eta taerbestetzeak ugari ikusten ziran. Andikiak menpekoak azpiratu gurarik, besteren eskubideari baño euren onurari geyago begiratuaz, gizabideak berak gaiztetzten dituan gaiztakeri ta gogofkeriz zapalzen ebezan. Bakoitza al bait ondoen bizi eta gaixoen eruki barik, soñeko ta yan-edanetan, yolas eta atsegiñetan dirua eralgi eta gero al eben bidetik, zuzena zan ala ez begiratu barik, al bait diru geyen eurekanatu. Eleizak itz egin eban aurka, zigorak ezari be bai; baño Eregeak eurak yaramon gitxien egiten eutsen eta. Eleiz gopatzak lan egin eben baño, naiko ez zan gizarteak osatzeko, argi ta maitasun geyago bear eban.

Eta gizar-tearen erdian,

Prantzizko deuna agertzen da

Gizarte au argitzeko eta maitasunez berotzeko. Dante ospetsuak diñon lez, Yaungoikoak bialdu eban «Eguzkia lez argi egiteko», (Par, XI), eta Tomas Zelano'k idatzi eban lez «Gau baltzaren erdian izar disdiratzuaren antzera, eta iluna uratzen daben egun sentia lez argi egin eban». (Legn; 37.) Biotz zabalekoa, argia, yolas zalea, baño yolas garbi zalea, maitekor eta erukitsua izan zan Prantzizko bere gastearoan, «Ebanjelio deunak irakasten daben era berberaz» Kristo otseintzeko, eta Kristo gurutzalduaren antzeko izateko, Yaungoikoaren deyez, erabagia artu eban arte.

Prantzizko deunaren txirotasuna.

Aldi atako diru-zalekeriaren aurka txirotasuna irakatsi eban Prantzizko deun-

ak; eta onbide oni eutson maitasun ari-
gaña ez da ezez azaltzen. Berez izan
zan biotzpera, eta Bonabentura deunak
diñonez, beartsuekanako maitasun sa-
muñez erabagita eukan, Yaungoikoaren
izenean eskatzen eutson eskekorik zer-
bait emon barik ez bialtzea. Berak «Zo-
rionsuak gogoz txiroak diranak» (Math,
V-3), itzez-itx artuta, onbide au ain mai-
te izan ebalako, Bonabentura Deunak
diño «Prantzizko'k txirotasuna maitatu
eban aña iñok urerik ez dauala maitetu».
(Leg, M. c.7). Auxe bereziz agindu eus-
tsen bere semeai, Yesu-Kristo'k ainbes-
te maitetu eban onbide au beti biotzean
erabilteko. Ainbesteraño maite ebalako,
bere *andera*, *ama* eta *emaztea* deitzera-
ño eltzen zan.

Prantzizko deunaren apaltasuna.

Orduko arokeriaren aurka apaltasuna
irakatsi nai eban. Onbide au, berak esa-
ten eban lez, txirotasunaren *aizta* da.
Orexegaitik esaten eutsan: «Aguñ txi-
rotasun deuna, zeure aizta apal'asun deun-
agaz. Txirotasun deunak, lu'eko zaleke-
ri, zikoizkeri ta artegatasunak bastertzen
ditu. Apaltasunak bafiz arokeria, lu'ar
gizadia berari dagokiozan gauza gustie-
kaz». Op: Salut; virt; 20).

Itz baten bera antzeztuteko «*Kristo'*
ren Antz-bidea»ren egileak, auxe diño:
«Bakoitzak ez dauko beste anditasunik
Yaungoikoaren aurfan daukana baño,

diño Prantzizko *apalak*». (III'n l'daz. c.50).

Bere ardura gustia ba, txiki ta azke-
nengo agertzea izan zan. Yaungoikoa-
gana biur'itu zanean, gustiak iri ta bare
egitea biotzez nai izaten eban. Lekaide
nagosi ta Irasle izan zala be, berak bat
aukeratu eban bere menpean gauza gus-
tietan egoteko, eta al izan ebaneko bere
agintaritza itxi eban, «apaltasun onbide
deuna zaintzearen», eta ordutik eriotza-
rarte menpeko yaraitu eban, beste iñor
baño apalago agertzen zalarik» (Zelano,
Leg, n. 143). Andiki ta kardenalak be
eskintzen eutsen ostatua, ezeban nai iza-
ten; bere burua obendi andientzat etsi-
ten eban; eta gizon gustiak maite-maite
zituan bere burua txarenentzat etsiten
ebalako.

Sari esaten eban lu'eko obendi andie-
na zala, eta Yaungoikoak edozein gaiz-
kileri berari emondako eskarak emon
ba'leutsozan, bera baño amañ bider ohea
izango zala. Bere utsegiteak azaltzeko
pozez egoten zan; emaitzak eta onbide-
ak ostera, beti nondik eskutauko, eta iñok
goraltzen ebanean, negarari emoten eu-
tson, ezesgaña zala esanaz. Apaltasunez
mesako ezeban gura izan eta bere gopa-
tzari be txikaren izena apaltasunez ezari
eutson.

Geyegi luzetu dogulako Y. L; uren-
goan yaraituko dautsogu.

GAMA

ASIS'TAR PRANTZISKO DEUNA

1 2 2 6 - 1 9 2 6

Gizon txiroa, apal, otzana
agertu zan bein ludian,
gogoŕkeri ta andi ustea
nagosi ziran aldian,
giza-biotzak izoztuta lez
ur̄e-zalez gogoŕtuta
bizi zirean alkaŕen aulka
kistaŕ legez aztuta.

Soñeko zaŕa lokaŕi latzaz
gaŕian inguraturik,
Yaungoiko eta geidearentzat
maitasun-gaŕez betefik,
Asis aldean dager Prantzizko
gizon apal ta otzana,
giza-biotzak goikoaz bera
zuzendu beaŕ euzana.

Asaŕetuta egozaneri
esaten dautse: «Anayak!
Goiko Aitaren seme zarie;
amaitu zeuen zemayak.
Alkaŕ maitatu-diñosku Aitak
eta maitatu biotzez,
nai bozu bizi emen gentzaz ta
gero betiko zorunez

«Aŕokeria yaurti betiko
gogoz zeuen biotzetik,
gaiztakerien sustaŕa da-ta
aldendu bere bidetik.
Agintaritza otseintza da-ta,
agindu apaltasunez,
orixe da ba, bide zuzena
gure Yaunak diñoskunez.

Ondasunaren izena dauna,
«Ondamendien» sustaŕa
dalako, maite goi-ondasunak:
an dago zorun bakaŕa».
Onexek dira itz ta egitez
Prantzizko'n irakatsiak,
auxe diñoe bere soñeko
Kristo'ren zauri biziak.

Onexen bidez maitasun-gentza
erein eban biotzetan,
Kristoren usain gozo bikaña
zabaldu efi danetan.
Goŕoton ordez, maitetasuna,
asaŕe ordez bakea,
toki danetan dakus Prantzizko'k
nagosi Kristo'n legea.

Eta izaki maitale zanak
(gustientzat zan anaya)
maitasun-gaíez urtuta legez
dakus úrean amaya.

Eta orduan zauritutako
besoak zabal-zabalik,
bere «Aíeba» eriotzari,
diñotso pozez beterik:
«Ene aíeba maite-maitea
zu zara nire laguna;

zure bitartez besaítetukot
ointxe neure Yaun kutuna»...

Saspireun urte dira; itz oneik
Asis uriko txoriak,
entzun ebezan eta dirudi
gaur diñoela gustiak:
«Gure anaya nagosi zana
yoan zan ludi ontatik,
bere argia bialduteko
beti ona goi-zerutik....

Gabirel.

Andik eta Emendik

Asis'tar «Txiroa» goraltzen.

Asis'tar Prantzizko deunaren eriotzako *saspi-reungaien* urtea aurten betetzen dala-ta, andik-iro latefi gustietan, gertakizun au gomutarazten dabe. Prantziskotar urtea lengo Dagoniã'ren 1'n, zabaldu zan ezkerotik, toki gustietan yai eder, bidezkunde eta abar. Eroma'n, Kapitolio'ko kanpai ospetsuaren bidez agintarien aginduz urtearen aziera iragarfi eben. 1870'tik kanpai au ixilik egon da. Aita Santuak Idatzi eben idazki bikañetarikoaren bidez, Prantzizko deunaren go-guari yafaituteko kristiñau gustiei dei egiten dautse, Deun arigafí onen gorlbenik andienak egiñaz.

Deun onen irudi edefak toki askotan yasoko dira eta euron artean Eroma'n Laterano'ko eleiz aurfen bat; beste bat Milan'en eta beste bat Santiago Kompostela'n. Paris'en deun baketzale onen gorlbenez, eleiza eder bat iragiteko lenengo afa onetsi dabe. Italia'n agintariak bere eguna latefi gustian yai iragarfi dabe, eta Itali'ko 9.000 udalek (ayuntamentuk) 200 aroa inguruko kanpai edefa Asis Prantzisko'ren yayotefiari eskeñi dautsoe.

Deun aundi onen irudi bat orain arte ezagutzen ez zana Spoleto'ko Yon eta Paul deunen eleizan idoro dabe. Margo irudi au XIII'n gizaldikoa da. Irudi onetan agertzen dana Zelano'k Prantzizko deunaren bizitzan beronen antzatzaz diñoenaz bat ei da.

Langiñeentzat gogo-iñarkunak Eroma'n.

Eroma'n langiñeentzat gogo-iñarkunak emoten yosulaunak 1909'n asi ziran, 34 bazkide zituala batza onek. Gaur 7.000 dira 27 taldetan bananduta. Eurotatik 6.000, garagarfiñaren azkenetan ikurñ da gusti Aita Santua ikertzen yoan ziran, euren zuzendari Gori aba buru ebela. Doipuruak,

eurak aurfen ikusteaz poz andia agertzen ebala adirazi ondoren, itzaldi edefa egin eutsen, beste gauza batsuen artean esana: Gust'ok gara, eta gustiok arazoan baten langiñe izan beaf gara; eta zoritxarfekoa gauza on, deun eta onuratsuen baten lan egiten ez dabena. Olangoa gauzeza izango da eta iñoren lepotik bizi dana». Eta langiñetasunaren onurak azaldu eta Yaungoiko Gizon egiña langiñe eredu lez aurkeztuaz itzaldi edefa amaitu eban.

Txiñar Gotzain bariak.

Aita Santuak, «Rerum Ecclesiae» deritxon Misoetzazko idazki edefean agertu eban asmo edefera eroateko, latefi bakoitzean bertokoak eleizako buru aukeratzea; iña onen 24'n se gozain txiñar egingo ditu. Lenengotan iru esan zan baña, orain seiraño eldu dira. Onegaz aurfepen andia egiten da. Bertokoak izketa, oitura eta abar obeto ezagutzen dituelako, eta erbesteok baño ezezago edozein tokitan saftu leikezalako, esan beafik ez da abegi obez ikusiko dituela. Orain arte ia uste izaten zan emengoak beste gaitasun ez ebela angoak. Baña egunerik egunera argiroago ikusten dana da, angoak be irakatsi ezkerro ikasi egiten dabela eta saritan emengoak baño azkaragoak dirala. Margoan ez dago adimena; baltzak izan afen, buru argia, eta biotz ona, zuri askok baño oeba, agertu izan dabe safi askotan. Onetzaz ara oraintsu Lovaina'n izan dan Mixiolari batzafean Goi-Kongo'ko gotzain Roebens yaunak edestu dabena:

Berak lenengo abade egin ebana amairu urte-gaz ondiño ziñesgea zan. Biotz eder eta buru argiduna, ikastetxe txiki ta nagosiko ikasteak ezez egin zituan. Yaupari eginda Bruselas'era etofi zan, eta Prantzeraz eta flamenkeraz itzal-

diak egin zituan. Gaur abade ikastetxeko irakasle da, eta bere gotzañak auxe diño: Nik neure gotefki zabalean naiko abade ba'neukoz, gotefki au bitan banantzeko, zalantza barik bigařen goztaintzat Aita Santuari auxe aurkeztuko neuskio». Baltzak margoa iluna euki ařen, guk zuriok uste dogun baño buru argiagokoak dira.

Katolikotaf erlejiñoa ikasi ta aztertu beaf da?

Katolikotaf erlejiñoa, aintzat dagozan erietan ondo ikas teko ta irakasteko aleginak egin beaf litzakez. Batez be ikastoletan, egiten dan baño geyago arduratu, eta ikaskizunen artean lenengo mañan egon beaf leuke. Baña zoritxañez ori ez da ikusten, emen beintzat. Orain emon daben irakaste legean be, erlejiñoa ikastea azterketa barik eta gurasoak nai izan ezkerobape ikasi barik ikaskizunak egin leikez. Ez da eritxi ofetakoa Ipar Amerika'ko protestantetaf guraso bat.

Guraso onek, katolikotafak New York'en dauken ikastetxe nagosian, bere semea afitzeko eskatzen, Artezkari dan Shaan yaunagana yoan zan. Gauza batsutzaz itundu ziran eta gaztearen aita afituta zegoan Artezkariak erlejiño gauzarik aitatu ez eutsolako. Au ikusirik Artezkariak, esan eutson: Baña zure semea protestantetafa ez daba?—Eta aitak erantzun eutson:—Bai alantxe da, baña ofexegaitik gura dau bere amak Ikastetxe onetan safitzea, katolikotaf erlejiñoa zer eta zelangoa dan ikasi dayan. 2.000 urte onetan iraun daben erlejiño edo Yainko-gufitza, eta baztef guztietan egi-izpiak zabaltzen dituana dalarik, ondo ikastea merezi dau, eta ofexegaitik gura dogu, gure semeak bere eskutapenak eta onbide sakonak ezagututea».

Ikasbide edefa emengo *katoliko* (?) askorentzat!...

M'laf G.

ZER EDO ZER

Asis'tar Prantzizko deunaren saspireungaren urtean. († 1226-1926)

Aita Santuaganako menpetasuna.

PRANTZIZKO DEUNA, apala zala, eta beti apal, eta txiki agertzen zala lengo zenbakian argiro ikusi gendun, Aita Santuareu idazki ederetik zerbait laburkiro esanda. Eta apaltasuna menpetasunagaz alkarituta ibili oi dalako, bere menpetasuna gustiz andia zala esan bearik ez dago. Txirotasuna, gogozkoa danean, apalatsunagaz bat egiten da; eta apaltasuna ta menpetasunagaz alkarituta ibili oi dalako, Prantzizko deunak, XI'n Pio'k diñoan lez, «bere Gopatza (Ordena) zuzentzen ebanean be, ekaritasunik andienaz norbaiti men-egiten eutson, edo obeto esateko, ia gustiei; norbere buruari uko egin ez, eta bere naya lagatzen ez dabenagaitik; oretzaz ezin esan geinke gustia laga dabela ta biotzez apala izan-go danik be. Alan ba, gure deun onek, Kristo Ordezkoari, menpetasun eskeintza egiñaz, bere oldez eta osoro bere

naimena yarein eban, beronen azkatasuna Yaungoikoak giza - izateari emon dautson emaitzik edereña dalarik.»

Eroma'tar Eleizari eutson itzal eta maitasuna.

Guzurá dirudi baña, izan dira, Prantzizko deuna, Eleiz lege aurkalari ta zifñeste-egiak ardura andirik emoten ez eutson gizon lez aurkezten dabenak; Eleizari ta gizarteari ainbeste kalte ekañi dautsozan, azke-zalekeriaren buru lez izan zala, esaten dabenak. Burubagekeriok esateko, burua guzuráz itxututa euki bear da, eta Prantzizko urñetik be ez dabela ezagutzen adirazten dabe. Oneiri erantzuteko Aita Deunak diño: «Egizko Prantzizko deuna onezkero yaiki bedi, eta Yaungoiko-Eregeñ iragarlañ lez, katolikotar eta ez diranai agertu, eleiz agintaritza, Aita santutza eta Yesu-Kristo'ren irakatsieri eutsen barengo itzal eta maitasunak, bere bizitzako egite ospetsuetan zelango argitasunaz dis-dis egiten daben!». Inok ukatu ezin leikezan, bere

aldiko idazkietatik dakigu Prantzizko'k «abadiei itzal aundia eutsela, eta eleiz agintaritza gustia berarizko maitasunaz maitatzen ebal». (Zelano, Leg; I, 62.) «gizon katolikotar eta gustiz apostolutar» onek, batez be bere itzaldietan auxe irakatsi eban: Erómatar Eleizaren Ziñesteari oso-osoan burua makurtzeko, eta Abadeak emoten dituen Ikuñton edo Sakramentu deunen nausitasunaren, abade batz gustiari gustiz itzal aundia izateko». (Spira Jul. Vit. S. Fr. 28.) Eriari itzaldietan irakasten eutsona, ardura geyagoz bere lekaideai irakasten eutsen, baita bein baño sariagotan bere Ilburuko ospetsuan, eta ilten yoyala agindu, eleiz eginkizunetan, apalik Gotzain eta abadeai men-egiteko, eta eurekazko artu-emonetan, bakezko seme lez agertzeko.

Baña batez be, Eleizako nausiei eta legeai entsen itzala emen agertzen da: Bere Anaidiko Arautegia idatzi ebaneko, bere amaika lagunakaz Il'ren Inozentzi'ren oñetan auspeztu zan, ontzat emon egiala eskatzeko. Aita Santu ospetsu onek, gizon ain txiro ta apalaren tayua ikusirik, maitasunez besartetu ta Bere eskubide osoz Arautegia onetsi eban. Auxe egin eban bere eskariz III'n Onorio'k be, Araudia sendetsiaz. Bere semeak, otoitzetan, gogo aldezko lanetan, itzaldietan eta abar beti nai izan eban, Aita Santu, Eleiz eta Gotzañen batasunean ibiltea. Okeñ dagoz ba, gustiz oker, besteruntz gauzak azaldu gura izan di-tuenak.

Garbitasun eta laztasunari eutson maitasuna.

Garbitasunari berarizko maitasuna eutson, eta gogo ta gorputzeko garbitasun au, bere bizitzan laztasunik andienakaz zaindu eban. Eta bere gastearoan be,

yolaz-zal.a izan aren, yolas garbi-zalea izan zan eta, lizunkeria itzezkoa be, gortatzen eban. Baña batez be munduari agur egin ondoren, laztasunik andienak egiten asi zan eta iñoz zirikaldi txarak etofi yakozanean, ur izoztuan eta sasi artean, bildur barik, sartzen zan. Bere Itzaldietako gaitzat be auxe artzen eban: «Yaungoikoaren maitasun eta bildura izateko, eta obenen laztasuna egiteko». (Leg. Trium Soc. 33.)

Eta esan eta egiñaz, soñeko latz eta txiroaz, oñak ortozik eta zurdatza soñean eroyan, burukotzat ari ala eguñia izaten eban, biziteko bear ebana yan, eta saritan autsa nastuaz yanari, urterik geyena barau gogofian igaroten eban. Gorputza beti, osasuntsu naiz gexo, gogoñ artzen eban, Bere azkenengo urteetan, Kristo'ren zauriaz gañera, gexo minkorak euki aren, orduantxe be, ez eban nai izaten laztasunak biguntzerik, eta besteai laztasun gitxiago egiteko agindu aren, onetanixe bakarik «bere itzak egiteakaz ez ziran alkartzen».

Prantzizko deunaren maitasuna.

Aitatu diran onbide gustiok, ituri bate-tik lez goi-maitasunetik sortzen zirala edonok dakus. Maitasun onek garñuta, eginkizun andienetako adorea emoten eutson, biotz zabalaz Yaunaren agindua pozez bete, eta deuntasun galurera eltzeko gurari bizia emoten eutson. Bonabentura deunak diñon lez «txingarñutako ikatza lez, Yaungoiko-maitasunean gustia beleta zirudian». (Leg. mai. c. 9. I) Txiro beartuaganako agertzen eban maitasunak, eta gastetan ainbeste iguin emoten eutsen leganañdunakanako samurtasun arigarñiak, maitasun onetan eukien euren sustara. Berak ikasleen artean anai-maitasun bizi bat izatea gogo

osoaz nai izan eban, eta orexegaitik *Prantzizkotañen anaidia* «munduko alde gustietatik bilduta, ari biziakaz egindako maitasunezko yauregi eder bat lez sortu zan, Espiritu Santuaren bizitoki izan zedin». (Zelano, Leg. I. n. 38.)

Deunai zelan begiratu beař yaken.

Gaur, Aita Deunak diñon lez, askotxo dira, ziñesterik ezak kutsututa, deunen goi-ontasuna alde batera itxirik, euren berezko ontasunari begiratzen dautsenak, eta euren gor-albenetan ertizale, abertzalea, ala gizartearen ongi-lea goraltzen dabe. Eta orixe egin dabe Prantzizko deunagaz be. Eta yakiña, ori erdizkako ta guzuřezko Prantzizko deuna izango litzake, eta maitasun orek onura andirik ez leuskioe ekafiko ondusun eta yan-edanen atzean, yolas, dantza, eta lizunkerizko lokatz artean ibili, eta Yesu-Kristo'ren Eleizaren irakasiak ez yakin ala aintzat ařtu gura ez dituenari. Olangoentzat, diño XI'n. Pio'k, aukerakoak dira itz oneik: «Deun baten irabazi ta onbideetan atsegintzen danak. Deun orek goraldu eban lez Yaungoikoa goraltzen be atsegindu beař dau. Auxe dala-ta goraltzen ba'dau, yař-aitu beař dautso, eta antzeko gura izan ezpadau, ez dayela goraldu. Deunen onbideakaz ařitzen dana, bera be, bizitza deunaren bidez, ařigari egin bedi. (Brev. Rom. d. 7 Nov.)

Prantzizko deunaren deya.

Prantzizko deuna, bere aldikideak gajzkatu eta Eleizari bere onbide sen-



TERESA DEUNA

doakaz laguntzeko Yaunak bialdu eban. Damian deunaren eleizan entzun zituan goi-itzok argiro agertzen dautse: «Prantzizko, zoaz, eta dařdaraka dagon nire etxeari eutsin egiozu». (Leg. c. 2.) Iru aldiz entzun ařen, bere apaltasunean, ez eban igari zer adirazten eben; baña Yaungoikoak III'gn. Inozentzio'ri ikuskizunez agertu eutson: Laterano'ko Eleiza yausten ikusi eban, eta Prantzizko deuna bere sorbaldakaz eutsiten.

Aita Serapindař onek ba, gizonetako eta emakumeentzat Gopatz edo Ordenak irasi ondoren, Itali'ko urietan lazatasuna azaltzen asi zan, itzaldi labur eta sutsuak egiñaz. Toki gustietan alaitasunez beterik artzen eben, kanpai otsartean, abestuten eři osoak bidera urtetan eutsoen; bera ikusi, itz egin eta ikutzeko

ta entzuteko gurariaz gau ta egun gizoztea bere zain egoten zan; eta bere itzal-diakaz gizonik gaiztoenak otzanduta ipinten zituan. Asko euren ondasunak bear̄tsuei emon, ekandu txar̄ak zuzendu ta bere menpeko ta yar̄aitzale egiten ziran. Eta ontasunagaz, ainbeste odol izuri eragin eben gizon, sendi eta eñien arteko asar̄e ta naspilak alde batera itxita, anaitasuna ta egizko bakea toki gustietan zabalitzen eban.

Eta or̄etan lagundu eta gizar̄teari onura asko ekañi eutsona Irugar̄endar Anaidia izan zan. Ez luzetzea r̄en itz bat bakañik. Ziñeste sendo, oitura garbiak, yan-edan lañegiak galerazi, neur̄iz eta egokiro yantzi, bakoitzari berea emon, eta anaitasuna zabaldu, eta ez izkiñu edo armarik erabili, Eleiza Amaren alde, edo agintarien baipe naz izan ezik. Gizar̄tea goikoz bera zuzentzeko zer gauza oberik? Onez gañera ziñeste bakoen alde z gogoz lan egin eban, goimaitasunak mugarik ez dau ezagutzen-eta. Bere aldian bost anak Kristo'ren alde zañetako odola emon eben.

Toki ta aldi gustietan goraldua.

Saspireun urte igaro dira, baña bere ontasunaren gomuta iñoiz baño bizi roago argi egiten dabela esan lei. Deun ar̄igar̄i au, ertilari, margolari, izlari, idazle ta olerkariak eñez goraldu dabe, eta iñoz baño geyago gaur egunean. Ez baña gustiak bear̄ dan lez. Batsuk berez olerkari gogoa euki ebalako, beste batsuk izaki gustiei eutsen maitasun samur̄ eta gustien anai lez agertzen zala-ko; beste batsuk bere abertzaletasuna zala-ta. Or̄ek gustiok egiak dira, baña bear̄ dan lez aitu bear̄ dira,

Egizko Prantzizko deuna
ezagutzeko. Or̄etan gañantzirik geyen

emon, ala bakoitzak bere guzuñezko eritxiak edo naiz zaletasunak onesteko eran azaltzen dituanak, Prantzizko deunaren irudia itxuragetu egiten dau. «Ba, diño Aita Santuak, len laburkiro aifatu ditugun onbide gurenak, bere bizitzako lastasuna, oben-nekearen azalpena, eta gizar̄tea bar̄izatzen eta zuzentzen egin eban lan ugari ta bizia, or̄exek dira Prantzizko deunaren irudiari, izate ta bizitasuna emoten dautsenak, eta ez añituta begiratzeko bakañik, kristiñau eñiak yar̄aitzeko baño. Izakiak maite ba'zitan, Yaungoikoak egindakoak ziralako eta eurretan bere ontasunaren loñatzak ikusten zitualako zan, eta apalena be «Anai» izena emoten eutsenean, bera egin eban Aitak egiñak ziralako izaten zan; eta alan Yaunaren oñatza izaleetan ikusten ebalako, izakiak goiko Yaungana igoteko maladi biurtzen yakozan. Bardin eñi bateko seme izan ar̄en, deñtasuna goitiko igalia da, eta deunak «katolikotar̄» izenaren yaube dira au da toki gustietakoak.

Or̄exegaitik diñosku Aita Santuak dan lez ezagutzen alegindu gaitetzala, bere gogoa zabaldu daigula, eta bere onbideak geureganatzen alegindu gaitetzala, gaur eguneko gaitzak osatzeko aukerakoak dirala-ta.

Laburkiro esateko asmoa euki ar̄en. luzeegiak lan onek urten dausku Baña alde batetik Prantzizko deunatzaz Aita Santuak esandakoa egoki zan gure aldizkingian agertzea; bestetik ainbeste gauza eder̄ labur̄ toki gitxian sartzea ez zan eñez; eta Idazki edera osoan sartzeko luzea dalako, zelanbait laburitzen asartu gara; bear̄ ba'da ez ain egokiro; baña asartasun au zuritzeko, Deun ar̄igar̄i au goraltzeko daukogun gogo zintsoa naiko izango dala uste izan dogu.

Andik eta Emendik

Sendi zorionekoa!..

Iraġa'ren S'n gotzaintza arġu eban, Kardiff'eko gotzain-eleizan, Vaughan kardenal ospetsuaren ĩoba, Vaughan Prantzizko'k. Menebia, Gales'ko gotzain autu dabe.

Oingo gotzain au, sendi onek iru sen alditan izan daben *boska'en* gotzaña da, Onexek izan dira:

William Vaughan yauna Plymouth'eko gotzaña; 1855-1902.

Vaughan kardenal ospatsua; 1872-1903.

Roger Vaughan Sydney'ko gongotzaña.

Jon Vaughan yauna, Sebastopolis'ko gotzaña; 1909-1923.

Menebia'ko gotzain biar au Vaughan kardenal ospetsu eta Vaughan Bernarp yosulaun izlari ospetsuaren ĩoba da. Bere iseko bat Amiens'eko klaratar lekaimetxean deun osppez il zan.

Eta gauza yakingarġa, batez be gurasoentzat. Vaughan kardenalaren amak, bere bizitzan irakurten dan lez, ogei urtean egunoro ordubete otoitzean igaroten eban, bere seme gustientzat Yauna'ren deya edo bokaziñoa eskatzeko. Eta ez alpefik. Bere bost alaba lekaime (monja) sar-

tu ziran eta sei seme abade; eta beste biak bokaziñorik ezagaitik azi ziran baña ikastetxetik urten egin eban. Ara amairu seme tatik amaika Yaunarentzat; Sendi zorionekoa!.

Olandar Katolikotafak eta aribako ufutizkiña.

Olandar katolikotafak gogor diardue lanean. Idazti ta itzaldi bidez lan asko egiten dabe eta lan onuratsua egin be, baña ez deritxoe naikoa. Asko dira idaztirik ez irakufi eta itzaldirik entzuten ez dituenak; geyenak protestantetafak dira-ta. Eta ofei be katolikotar egiak zelanbait entzun eragin gurarik «radio» edo ifatizkin bide egitea otu yake; gaur egunean zabaldunderako aukerakoa dala-ta. Eta itzaldioik ain egokiro egiten dituelako protestantetafak eurak ara zer esan daben: «Gure artzañak gogoikafi egin yakuz, egunero gauza batsuk esaten dauskuez eta. Baña itzaldi bete ta mamintsuak entzun gura badozuez, katolikotafak radio'tik egiten dituezanak entzun egizuez». Gotzañen zaintzapean, Amaterdam'go txauburu Perquin yauna, «Katolikotafak bazkidetu ta eutsiten dautse.

Ziñeste Zabalkunderako Eřomatar bazkunak bildu dabena

Ziñeste zabalkundea deritxon bazkunak, lan beaŕeko, edeŕ eta onuratsu onetarako, 1925'n bildu zana 49.183.342 lira izan zan. 1924'n baño *bost* bat miłoi inguru geyago.

Miłoi bat baño geyago emon daben lateŕiak onexek dira:

Ipar Amerika'ko Lateŕi batzak (Estados Unidos).	22.234.596
Prantzia'k	4.134.519
Olanda'k	2.394.084
Italia'k	2.059.276
Kanada'k	1.679.118
Alemania'k.	1.316.250
Argentina'k	1.128.124
España'k	1.067.306
Beljika'k eta Babiera'k, batak	995.587 eta
besteak	984.892 emon dabez.


Onex dira Eŕoma'ko Bazkunak bildutakoak. Zuzenez mixiolariei bildutakoa geyago da, esaterako Ipar Amerikarak, mixiolariei zuzen bialdu dautsiena lengo urtean 27.056.016 lira izan da. Ba dira dirudunak eta esku zabaldunak be.

Alemandarak katolikotarak,

Ango katolikotara bizkoŕak, Dagoniłaren 22'tik 25'ra Breslau'n batzar bat egin dabe. Aspaldian egin dan batzarik edeŕenetarikoa izan da. Azkenengo egunean Pazzelli yauna Berlin'en Aita Santuaren Ordeleri dana; egazkin baten bertara mesa emoteko eldu zan. Batzar onetan erabagi ta asmo edeŕenetarikoak artu dabez; eta bertan bildu ziranak 80.000'tik gora izan ziran.

ZER EDO ZER

JOSU-KRISTO GURE YAUNAREN ÉREGETZA



IDAZKI au argitaldu orduko Eleiza Amak Yesu - Kristo gure Yaunaren Éregetza andikiro lenengo aldiz ospatuko dau.

Yai au, Aita Santuak

igezko lotazilaren 11'n argitaldu eban, *Quas primas* itzakaz, azten dan idazki ederean ipiñia da. Bere erabagiz urtero urtilaren azkenengo igandean ospatuko da. Egi pozgarria da, Yesu - Kristo'ren Éregetza guretzat, baita beti gomutan euki bea' dogun egi yakingarria, be. Egoki deritxogu ba, zerbait gai onetzaz emen ipintea, aitatutako idazki ederean Aita Santuak damoskuzan irakatsi bikañak begien aurean doguzala.

Yesu-Kristo Érege.

Yesu-Kristo Yaungoikoaren Seme

Gizon egiña dala, ziñesteko egia da. Yaungoiko danez, Aita ta Espiritu Deunagaz, Yabetasun eta Éregetza bakara dagokio. «Baita Yesu - Kristo'ri Érege izenaz deitzeko oitura gustiz zabal eta antxiñakoa izan da, bikaintasunaren gorenko maña eukiteak, egindako gauza gustien gain ipinten dabelako.» Au dala -ta, Bera Egia dalako, gizonen adimennen Érege dala esan oi da, Beragandik gizonak egia apalik artu beara dabela. Bardin naimen edo borondateen érege dala, ez bakañik berea osoa yaungoikoaren azpian euki ebalako baita gizonen borondatean bere goi-zirkin eta goi-argiz, gure azkatasuna kendu barik, asmo bikañak scrtu eragiten dituelako. Baita, bere maitasun guren-gurenaren bidez, bere otzantasun eta biguntasunaz, biotzen érege dala esaten dogu,

iñor Bera aña ez da maitatua izan ez da izango be-ta.

Kristo egiz eta benetako Érege.

Baña, bañenerago yota—diño Aita Santuak—edonok dakus, Érege izen eta almena Yesu -Kristo'ri egiz eta benetan dagokiola, gizon danez be; Gizon danez bakañik esaten da ba «Aitagandik almen, omen eta bakaldeñi edo ereñua artu eballa» (Dan. VII-15). Yaungoikoaren Semeak, Aitagaz izate bakaña dabelako, Aitagaz gauza gustien gain eskubide oso ta bakaña dagokio-ta. Éregetza au, Lege Zaréko ta Bañiko idazti deunentan argiro agertzen da, eta Kristo gure Yaunak Berak, Pilatos'eri erantzun eutsonean argiro azaldu eban. *Beraz zu érege zara?—Bai, zeuk diñozu, Ni érege naz.* (Jon, XVIII-35).

Éregetza onen izatea.

Ara Aita Deunaren itzak: «Yesu-Kristo'ren bikaintasun eta altasun onen oñaña zein dan azaltzeko, ara Zirilo Alexandri'tararak argiro diñoana:» *Izate gustien gain aginpidea dauko, ez indañez lortua, ez besteri kendua, bere izatearen indañez baño:* (In Luk. X) au da; bere bakalduntza edo éregetza, Seme Yaungoiko ta gizon izatearen batasun gelañitik sortzen da».

Beraz Kristo gure Yauna, aingeru eta gizonak, Yaungoiko danez bakañik ez dabe guñtu beañ; baita be gotzon eta gizonak, gizon danez, bere menpean egon beañ dabe ta bere aginduak bete; alan ba, hipostatika deritxon batzearen indañez bakañik Kristo'k izaki gustien gain agintza dauko».

Baña oñez gañera, Yesu-Kristo gure Bakaldun edo Érege da bere odol edeñaz

kurutzean erosi ginduzalako, Gure Egile dalako, eta gure Yaun eta Erosle dalako.

Eta Éregetza au egizkoa dalako Berari dagokioz ofetarako beañekoak dituan eskubideak: Legegintza dagokio ba, eta bere legeen añaan gustiak burua makurtu beañ dabe. Orexegaitik bere maitasunaren ezaugaritzat, bere aginduak bete beañ dirala diño (Yon XIV-15). Baita epaikaritzat dagokio, Berak esan eban lez ba, Aitak «Semeari epaikari al gustia emon eutson» (Yon V-22); beraz gizonak bizitiz onetan saritu ta zigortzeko eskubidea be, beste eskubideaz alkarituta doa ta. Baita legeak bete eragiteko eskubidea dagokio, Bere aginduai gustiak men-egin beañ dautse-ta, eta egin gura ez dautsona zigortzeko eskubidea beraz euki beañ.

Éregetza au batez be gogozkoa da.

Éregetza au batez be gogozkoa dala, Goizparak argiro azaldu eta bere egi-teakaz Yosu-Kristo'k egiztu eban. Yudañak, Ixañel'go éregetza bañiztatzeko etoñi zala uste eban, baña Kristo'k sustaibako itxaropen au kendu eutsen. Bein gizosteak érege autu gura izan ebanean, iges egin eta mendian ostendu zan. Baita Pilatos'i bere éregetza mundu onetako ez zala esan eutson.

Bakaldeñi edo ereñu onetan sañtzeko penitentzi-bidez gertau eta ugutz edo bateoa artu beañ da, eta bateoak bañengo bañizkundera adirazten dau. «Satanas»en agintzan aurka-ñunpeko agintzaren aurka dator, eta bere menpekoai eskatzen dautse ez bakañik euren biotzak luñeko gauza ta ondasunetatik kenduaz ekandu onak zaintzeko, eta zuzentasunaren egañi izateko, baita buruari uko egin eta gurutzatza erroteko be».


Éregetza au batez be gogozkoa dala argi dago. Baña au gora-bera,

Munduko gauzen Éregetza be Kristo'ri dagokio.

Eta gustiz oker legoke Kristo-Gizonari lu'eko gauzetazko agintza ukatuko leuskiona, «Aita'k gauza gustie-

zadi gustiaren Yaube baka'ra Yesu-Kristo da-ta, XIII'n Leon'en itzakaz gure Aita deunak diñon lez.

Beraz oker dagoz, Yesu - Kristo'ren agintza ludi onetakoa ez dala-ta, Yesu -Kristo'ren irakatsiak eta aginduak aintzat ar'itu barik, legeak emon eta eriak zuzendu nairik dabiltzanak. Bardin ikas-



ABADIÑO: Andra Mari basatxaunua

izazko eskubide oso-oso emoten eutsolarik, bere menpean gustiak ipiñi zituán eta.» Alan da be eskubide osoa euki a'ren, emen bizi izan zan artean alde batera itxi eban lez, oin be lu'eko gauzak bakoitzaren eskuetan lagatzen dauz. Baña ori gora bera, bere Éregetza gizon eta lateri gustietara zabaltzen da, naiz Eleiz barukuak izan, naiz ziñesgeak; gi-

tetxe ta bazkUNETATIK yaurti gura dabentak, liberalkeriz kutsututako agintariak egin oi dabent lez. Gauza bat da Yesu -Kisto'k emengo agintariei euren tokian lagatzea, eta beste bat eurak bere legeai y a r a m o n i k ez egitea. Yesu Kisto'k ondasunak bakoitzaren eskuetan laga zituala-ta; nori otu leikio bakoitzak nai dituan eran eta nai ditun lez eralgi leike-

zala esatea? Nok ez daki Yaunaren le-
gea ondasundunak gogoan euki bear
dabela? Saldu-erosietan etzala saritu-ta,
nori otu leikio saldu-erosietan Yesu
-Kisto'ren legea aintzat aritu bearik ez
dagola esatea?

Beraz politika arasoetan ez zala saritu-
tuta, politiku ta agintariak, Yesu-Kis-
to'ren irakatsi ta agintzak aintzat aritu
barik, nai dabena egiteko azke?... Ori
nok esan leike Kristo'ren etsayak izan
ezik?... Eta alan da gusti, euren buruak
ontzat egiten dituenen artean be olango-
xe kirtenkeriak aldezen dira. Alan dabil
mundua dabilen lez...

Eregetza onen ondorenak.

Gustiz ederrak izango litzakez bakoit-
zarentzat, sendientzat eta laterientzat.
Kristo Eregetzat autu ezik agintariak
noren izenean agindu leikie? Euren izen-
ean? Eta nortzuk dira orotarako? In-
daren izenean? Nori otu ete leikio?
Yaungoikoagandik artutako eskubidea
ezpaleuke, gizonak gizonari ezin leikio
agindu; ba, Aita Deunak diñon lez, «giza-
tasunan aurka izango litzake, Kristo'ren
odolaz erositako gizonak beste batsuen
menpean egotea-ta». Beraz agintariei
Yaungoikogandik artutako aginpidea
daukelako men-egin bear yake; bere
Erege ta Yabe Yaungoikoa bakaarik da-
ta. Ortze dago bakearen sustara. Agin-
tzen dabena Yaungoikoaren orde-
z agindu, eta men-egiten dabena, Berari
burua makuritu ezkeru, orduantxe «egi
ta bizitzaren eregetza, deuntasun eta
grazizko eregetza; eta zuzentza, maita-

sun eta bakezko eregetza» (Praef.) eri,
sendi, eta biotzetara elduko litzake. Eta
gaurko naspil, goroto, guda, ikusi-ezin,
asaie, eta gizartearen ondoez gustia
Kristo Eregetzat itzez eta egitez autortu
gura ez dabelako da.

Eta geyegi luzatu baño len, idazle os-
petsu baten itzakaz amaituko dogu.

Chateaubriand'en azkenengo itzak.

1848'ko bagilan Paris'ko uria naspil-
duta zebilen, Luis Pelipe Eregetzatic
kendu ta Erepublikea ipiñi eben. Uri ingu-
ruan kañoi tunbada gogorak entzuten
ziran. An uréan *Chateaubriand* idazle
ospetsua, bere bizitzako azkenetan ze-
goan. Aizkide batsuk inguruan zituala,
gustiak ixilik egozan bitartean, kañioen
orua bizitu zan, eta iltzer zegoanen be-
lariatarano eldu zan. Orduan *Chateu-
briand'ek* eskuetan gurutza aritu, eta
berari arretaz begira yafirik, gogo gustiaz
esan eban:

«¡Gaurko gizadiaren erukaia! Une
gustietan, burua aldatzen zabiz, eta on-
diño ez dozu ulertzen, Kristo'k bakaarik
gaizkatu zeinkezala. Ara emen; auxe da
nire Efege!...»

Izok esanaz bere biziá amaitu eban.

Yasokun onen lenengo atala Kristo'
ren Eregetza aintzat ez artzetik dator,
eta erien osatzea, itzez eta egitez gizar-
te, sendi ta gizon bakoitzaren Erege
izatetik, gure Aita gurgari XI'n Plok nai
daben lez...

KRISTO GURE EREGE

Aintzaldu daigun Kristo Érege
Yaungoikoaren Semea;
goraldu daigun kistař gustiok
Yaungoiko-Gizon Yabea.

Yaungoiko danez bakaldun dala
gustiok dogu zifñesten;
Gizon danez be, altasun oro
dagokiola autortzen.

Beren izatez Yaun eta Yabe,
egitez oron bakaldun,
Beren odolaz erosi gaitu.
¡Érege autortu daigun!...

Gureztat Bera egi bakařa
gureztat Bera Legea;
gureztat Bera Bizitza eta
Bera bakařik Bidea.

Etsai gaiztoak didař dagie:
«¡Ez dogu nai gure Érege!»
Kistař gustiok erantzun daigun:
«¡Bera da gure, Yaun Yabe!»

Yesu-Kristo'ren Éregetzea
Bizitza ta Egizkoa;
deuntasun eta zuzentasunez
maitasunez betekoa.

Beragandik, ba, aldentzen danak
eriotza dau yaubea,
gaiztakeri ta gořoto baltza
jzoritxařaren semea!

Didař daigun ba, «Kristo Érege
bakařizat autortzen dogu;
itz ta egitez bizi gustian
Bere menpeko gara gu».

Bera Burutzat artzen dogula,
guzur ta gaiztakeria
bazerřtu daigun gizon artetik:
zabaldu on ta egia.

Beraganduaz adimen oro
biotz gustiaz batean,
Kristo bakařik nagosi dala
bakean bizi gaitean...

Gabirel,

Andik eta Emendik

Toledo'ko Eukaristi Batzara.

Uñila'ren 20'tik 25'ra ospatu da, eta andikiro ospatu be. Batzarak, eleizkizun edefak, itzaldi mamintzuak egin dira. Gizostea ugari bai ugari bazter gustietatik biltzen zala ikusirik, eraldu dabenak pozik egon dira. Toledo'ko gotzain-eleiza egin zala saspireun urte betetan diralako, eleiz eñti lan erakusketa edef bat be egin da.

Eleizkizunetan geyen gañendu diranak, muza-rabe eraz esandako meza izanda; 15.000 lagun baño geyago eldu ei ziran. Umeen yaunañtzean 5.000 bildu ziran, eta azkenengo egunean 5.000 kistañ nausik Yauna arñu eben. Amaitzeko egin zan ibildeunan 4 kardenal 40 gotzain eta agintariek buru zirala, bertan eta inguruan 50.000 lagun bildu ei ziran.

Batzar edef onuratsua izan dala esan beafik ez dago, eta onuratsua go izango da bertan arñu d'ran asmoak aufera eroaten alegintzen ba'dira, ala eta beafkuna daukenak. Ao batez arñu di-tuen erabagi edefok onexek dira: Agintariei eskatu, igandeetan atseden arñzeko bearfñuten daben legea bete eragiteko; mesa entzuteko era ta astia gustiak izan daikien.

Oitura lizun eta nabarmenaren aurka gogof egiteko, biotzak usteldu ta aginduetatik alden-tzen dituelako.

Bardin agintariei eskatu birao naskagafia, alegin gustiz, baztertzen alegindu daitezala.

Eskatu baita irakurñgai lizun zatarak basteñtzen alegindu daitezela.

¡Edeño! Orixe da lenen egin beaf dana, ori barik beste gustiak eustazpi barik geldituko li-tzakez-eta. Orixe egiten ba'da, orduantxe itzez eta egitez *Kristo Gure Erege...* abestu al izango dogu...

Zoriondun bariak.

Eleiza deunaren zoriondunen izendegia ugari-tuaz doa. Garagañilaren 28'an, Aita Deunak zori-ondun dala iragañi eban Beatriz Silba, Sortzez Garbiaren prantzizkatar lakaimeen iraslea. Por-tugaldar andiki yatorñkoa izan zan, eta 67 urtedun 1491'n il zan. Antxiñatik bete onbideak zirala-ta deuntzat etsiten eben, eta Aita Deunak bere guñtza sendetsi dau.

Uñila'ren 10'n. 1860'ko Garagañilan zñeste alde-z bizia emon eben prantzizkotarñak zoriondunen leñoan ipiñi ditu. Eurotatik sei españatarñak dira.

Baita ñla onen 17'n 1792'ko itxulaskunde edo matxiñadan zñestean alde-z bizia emon eben 191 zñiopa martiri, zoriondunen artean ipiñi ditu. Oneitatik gongotzain bat eta gotzain bi izan zi-ran. Eleizkizun onetan 20 kardenal izan ziran, eta pantzetar askoren artean bertako 15 gotzain. ¡Aintza zoriondun bariel!

Gazteen bidezkunde Loyola'n

Uñilaren 10'n Bizkai, Gipuzkoa ta Araba'ko luistar gazteak, Loyola'ra bidezkunde edefa egin dabe. Gonzaga'tar Luis deuna goraltzeko 7.000 inguru gazte bildu ziran. Eleizkizunean, Iruña'ko gotzain Mujika jaun agurñariak itzaldi edefa egin eutsen, erderaz eta euskeraz. Arñatsaldeko batzarañ erabagi edefak arñu ebezan eta euron artean gazteok daukien «Junior» aldizkingian gure euskerari toki geyago emotea. Ederki muti-lak eta yarañ!...

Rusia'ko izpar pozgariak.

Aspaldiko urteetan ango bafi onik ez da eltzen izan eta, orain pozik irakurñi doguz bertako izpar batsuk.

Igaro dan dagoniñaren 15'n azita, Eleizkizun edefak izan dira Moskou'ko Luis deunaren eleizan. Prantzi ta Itali'ko agintarien ordelariak bertan zirala, Mikel Herbigny, oraintsu egindako gotzainak, gotzain-mesa andikiro esan eban; eta bere itzaldian azaldu eutsen, Aita Deunak gotzain eginda bialdu ebalá, Rusia'ko izkuntza eta enda gustietako katolikotaf gustiei bere onespena emoteko, eta bere egoera toki artan laburá izango zala, eta gogo arazoetarako bakafik.

Urngo asteko egun gustietan kistaf asko eldu ziran berak esan eban mesatara, eta euren umeak ekañi eutsoezan, onesteko. Ñaren 22'n polonitarak dauken eleizan gotzain-mesa emon eban, gizoste andia bilduaz. Urngo egunean gazte nagosi askori sendatza edo konfirmaziñoa emon eutsen. Guztiak otoi sutsuak egiten dabez Aita Deunaren asmoak bete daitezán.

Yaunari eskeñak, ba'dirudi zoritxarako eñi

ofetan, egi ta zuzentzaren izpitxoén bat argi egiten azi dala!...

Gudalburu eta beneditaf.

Urñla 10'n, Maredsous, Beljika'n beneditafen konbentuan il zan general edo gudalburu izan zan Grunne'ko kondea. Guda arasoetan gustiz yakintsua izan da, eta 1909'tik iragarita eukan, alemandafak andik bost urte baru Beljikan'n egin ebena, eta berak esandako tokitik Prantzia'n be sartu ziran. Bere semeetatik bi gudan il yakozan, eta bere emaztea 1920'n. Andik laster Beneditafen konbentuan sartu zan, 70 urte lepoan zituala, eta nobiziaua zeatz, besteak lez, bete eban. Efo-ma'ko baipenaz, 1923'ko ofñlaren 10'n Merzier kardenal ospetsuak abadegintza emon eutson eta lenengo mesa egin eban. Geroztik makal samar ebilen eta mañadi baten yausita bere bizia amaitu da, bere zintzotasunaren saria aftzeko. **M'ñaf G.**

Andik eta Emendik

Txiñar gotzain bariak dirala-ta.

Urtilaren 28'n, iragarita egoan lez, sei txiñar Gotzain egin ditu Aita Santuak. Gotzaintza afzkeko Efoma'ra etofi dira Aita Santuak andikiro bere eskuz Gotzain egitea nai izan dau-ta. Oso afera ona egin eutsen eta Eleizkizunak edefenarikoak izan dira.

Gotzain barien artean Tchao Pilipe yauna, 30-xe'ak egindako ziñopa edo martiri baten semea da. Eurakaz itz egin dabenak diñoenez, oso pozik egon dira emen egin dautsien aferaz eta euren eskar ona zelan agertu ez dakiela adirazi dabe. Len aitatu dogunak esan ebanez, Txiña'n oso pozik ikusi dabe XI'n Pio'n erabagi edefa, eta onuratsua izango dala esan beafik ez da. Tchao yaunak esaten eban, izpar au yakin ebenean bere inguruko 40 ziñesgek, kristiñau egiteko erabagia artu ebela. Aita Santuak, gotzain gurutzaz ganera, adiraziaz gotzaniak daukan astia ondo eralgi ta neurtzeko erloyu on bat beafekoa dabela, bakoitzari, zidafezko erloyu bat emon eutson, euren izen eta ikurdiuz ganera idazkun auxe ebela: 28-X-1926. Gotzain egin da gero Gergoritar Ikastetxe ospetsuan euren goralbenez yai edef bat egin eben. Efoma'ko ikastetxe onetan mundu gustiko tokietatik ikasleak biltzen dira eta orain ikasten diarduenak 1400 eltzen dira. Euren artean euskaldun talde polita ezagutzen dogu. Yai onetan Gotzain barioi 29 izkuntzatan agur egin eutsen, eta euron artean bere etxean ia lotsatuta lez bizi dan *geure eushera* maitagafian be bai. Yaunari eskefak seme zintsoak be b'dituz ondiño!...

Gotzain bariok al daben gustia ziñestea euren erikideen artean zabaltzeko gertu dagozala adi-

razi dabe, eta bizia emotea beafa ba'da, ori be bai,

Beste zertzelada bat. Parantze'ko abade batek asmo begiko bat euki dau. Gotzain bariok egin ziran egunerako, Aita Santuari 6.000 franco bialdu dautsoz bere izenean bakoitzari 1.000 bana emoteko. Bere izena eskutau egin dau eta zein dan ez dakigu, baña biotz edefeko ta esku zabalekoa dala bai.

Gotzaniok Asis ikusi ondoren Lourdes eta beste toki batsuk ikertuko dituez, euren efira yoan baño len.

Bide oneratzen dirana laguntzeko.

Protestantearen artean, bide oneratzea, Katolikotaf egitea oso gogof egiten yake, batez be abadetazkoai; euren bizibidea galdu, eta irabazi barik gelduten diralako. Eta ori egiteko gogo zintsoa beaf da izan be. Eragozpen au leunduteko ba, eurai laguntzea beafekoa dala esan beafik ez dago. Ofetarakoxe «Convert aid Society» deritxon bazkuna Ingalanda'ko katolikotafak sortu eben. Batzar onen zeregiña ba txindia areintzako biltzea da. Azkenengo batzafean (bagiña 30'n) Bourne kardenalak adirazi eban bazkun onek auferapen andia ebala, 1925'n 1.813 libra sterling bildu ziralako eta aurtan, ondiño urtea igaro barik, 5.479 libra batu dira eta ondiño geyago biltzeko asmoa dabela. Lan edefa orixe.

Mexiko'ko Katolikotafak.

Egun gafatzak, gero ta gafatzagoak igaroten diardue. Guzurfak zabaltzen eta basatikerian angogintariak txapeldun geratzeko asmoa daukiela dirudi. Agintariak euren ordelarien bidez angogora-berari gafantzia kentzen alegindu di-

ran aŕen, bertatik etofitakoak egizko izparak eta zabaltzen diardue, eta XX'n gizaldikoak ez diruden aŕen, egiak dira.

Katolikotafak eufez espetxean sartu eta zigortzen dituez, edozer gauza eta akiakulagaitik. Gaurkoz izpar oneik bakafik ipiñiko dituguz: Eleizkizunak lateri gustian debekauta dagoz. Ezin leike batiau eleizetan, ez asken ikuŕtonik eroan iltamuan dagozenei, ez da mesarik esan be, ixilean etxeetan izan ezik. Eta oneitan be ez yakin ezkeru. Bertatik etofitako batek esan dabez, Tulazingo'n etxe baten abade bat mesa egiten egoala, txinelak etofita aŕapaurik mesa emoteko soñeko ta guzti Mexiko'raño eroan eban eta antxe espetxeratu. ¡Ori azkatasunen izenean egingo dabe gero!...

Kristiñau asko zauritu ta erail dituez, katolikotaf aldez zabalkundea egiten dabela-ta, baña batez be euren basatikeria yazokun onetan erakutsi dabe.

Gaszte bi R. Melgarejo ta Silva Yoakin, eleizaren aldez itz egiteaŕen Zamora ondoan gudari talde batek erail edo obeto esateko martirioa igaro eragin dautsie.

Gaszteok Kaŕes'en gudariak aŕapau zituezanean «Gora Kaŕes» esateko Melgarejo'ri agindu eutsuen, baña berak, «¡Gora Kristo Eŕege!» esanaz erantzun eutsen, pozik bere aldez bizia emongo ebaladiraziaz. Ogetabat urteko gaszte au, ain kementsu ikusi ebenean apurka belafiak ebagiten azi yakozan, «¡Gora Kaŕes!» esan eragin gurarik, baña berak «¡Gora Kristo Eŕege!» erantzuten eban. Au ikusirik gudari ankefak erail baño len miña mostu eutsuen. Silva Yoakin amasapi urtedunak, bere lagunaren oñazeak eta adorea ikusirik, eta bere antzera Kristo'ren alde odola emon gurarik, bere laguna besartetu eban eta, alegiñak egin aŕen, gudariak ez

ziran gauza iza aldentzeko eta orduan tiroka erail eban. Il baño len Melgarejo'k bere laguna gaztea zala eta ez erailteko esan eutsuen, baña *basatiak* ez dauke eŕukirik... Antxiña esan eban Tertuliano'k ziñopan odola kristiñau bafien azia zala, eta gero ta ziuŕago gagoz olango kristiñau adoretuak dagozan artean garaitza geure anayena dala. Otoi dagigun geure anayen alde, eta gure etsayen alde be bai, begiak zabaldu eta onbideratu daitezan.

Eta zelako gauzak! Kaŕes'en alaba bat oraintsu Ipar Amerikan lekaike monja sartu da. Orixe bai dala zimaŕu artean sortutako landara edeŕa.

Txikago'ko izpar ondafak.


Eukaristi batzaŕetzaz emen izpar asko argitaldu dituguz. Taxis gustiak Aita Santuaren ikuŕiña bertakoaren ondoan euki eban; txiñel geyenak Batzaŕeko domiña papaŕean eroyen; katolikotaf ez diranen batzaŕ etxeak be apainduta agertu ziran; Salvation Army deritxon bazkunekoak be bai, protestantetafak izan aŕen. Baña au da yakingariago. Ango Salerosle Bazkunak (camara de Comercio) Batzaŕa gertatzeko egin beaŕ ebezan diru eraltzean katolikotafai laguntzeko erabagia aŕtu eban. Eta oŕetarako 1.000.000 doŕlar eskiñi be bai. Eta Katolikotaf zintsoak eskefak emonaz ez eban iñogandik txurikorik aŕtu naŕi izan eta miñoi ori be ez. Eurak euren sakeletik gustia ordaindu eban. ¡Arek dira mutiñak!...

Maŕuekos'etako Gotzain Euskaldun bat.

Zervera, Maŕuekos'tako Gongotzain tokia betetzeko euskaldun bat aukeratu dabe, Betanzos Ormaetxebaria Aba prantziskotafa, Luno'n, Gernika ondoan 1865'n yayoa. ¡Urte askotarako!

ZER EDO ZER

ELGARO EDO ABENDUA DALA-TA



GAI onetzaz zerbait idatzi gurarik, Eleiz urteatzaz be zer edo zer esatea egoki deritxogu.

Yaungoikoa aldi gustien yaube da-ta, egizko gurtza Berari eskintzeko sortutako gure Ama Eleizak, urte osoa berari eskintzen dautso. Eta Yesu-Kristo gure Yauna gauza gustien asiera ta amaya dalako, izate gustien gurtza eta goralbena Yaungoikoagana Kristo'ren bitartez yoatea beaŕekoa da, «Bereak, Beragaitik, eta Beragan gauza gustiak dirata» (Rom. II-36, Kol, I,-1).

Gizadiak Yaungoikoari zoŕ dautson gurtza eta goralben au ba Eleizak Yesu-Kristo'ren bitartez eskintzeko, Kristo'ren Bereroskunda baŕiztauta lez geure be-

gien aŕean ipinten dausku, kistaŕ egizko bizitza zer dan irakatsiaz; eta Bere antzeko izaten alegindu diran Deunak emondako igali edeŕak geure begiz ikusi daiguzan, eta euren antzeko izaten alegindu gaitazan. Eleiz urtean, Yesu-Kristo zuzentasunezko eguzki lez agertzen yaku, eta deunak; beragandik aŕtutako argiaz argi egiten daben izaŕbelen (planeta) antzera.

Eleiz urtearen atalak.

Eleiz urte gustia iru yai andiren inguruan dabil. Yesu-Kristo'ren Yayotzako yaya; Yesu-Kristo'ren Beŕbizte yaya, eta Espiritu Santuren Etoŕkunde yaya. Beste yai gustiak onexen inguruan dabiz. Yai gustiok iru Arotan sartzen dira. Eta Aro bakoitzak iru atal ditu. 1'go Yai bakoitzerako gertatzeko aldia. 2'n. Yai au

ospatzeko egunak, eta δ 'n. Yai onein luzepena. Yai oneitarako gertatzeko lastasun eta damuaren bitartez geure biotzetatik apaltasunez pekatua kentzen alegindu bear gara, eta oretarako alaitasuna adirazten daben itz, soñu ta soñekoak Eleizak itxiten ditu, eta bere semeoi lastasun aldia dala adirazteko baru ta aratuztez gañera, soñeko ubel edo morauz yantzita agertzen yaku.

Yai eguna eltzen danean ostera, argia poza ta alaitasuna adirazten itzez, soñuz, eta yantzi zuriz apainduta, alaitasunez beterik, Eleiza agertzen da. Eta yai egunak igaro ondoren, bere luzepenak yañaitzen dautso eta yai oneitan geuregandu dogun kristiñau bizitza eta itxaropenez beteko bizitza adirazteko igandetan soñeko orlegi edo berdez yantzita Eleiza Ama agertzen da. Eta au,

Eleiz urteko Aro bakoitza.

aztertuta ikusiko dogu. Yesu-Kristo'ren Yayotz aldiko aroan, gertatzeko aldia, elgaro edo Abendua da. Gertatze onetan Yesu'en Yayotz egun aurretiko *lau* igande sartzen dira. Eta aldi onetan soñuak itxi, soñeko ubelaz yantzi eta otoi eta irakurkizunetan apaltasun eta lastasuna irakasten dausku.

Yesu'en Yayotz eguna eltzen danean, gure gogoen eguzkia agertu dalako, pozez beterik agertzen yatzu, eta poz au oladarka agertzen dausku eta soñeko zuriz soñu ta abesti zoragarienakaz kristiñau biotzak poztuten alegintzen da. Aldi onekigande *bi* edo *irutan* Gabon egunetatik Urteñilaren 14'arte irauten dau. Onen ondoren aitatu dogun luzepena dator Septuagesima deritxon iganderarte, eta gegen diranean *sei* igande izaten dira. Eta igande oneitan len esan dan lez, bizitza

ta itxaropena adirazteko, soñeko orlegiz Eleiz Ama apaintzen da.

Eleiz urteko bigarren Aroa

Beñbikunde edo Paskoetakoa da. Yai au ain garantzitsu dalako, Eleiza bederatzite aste aurretik gertatzen asten da. Bederatzi igande oneitatik *iru* Septuagesima, Sexagesima eta Quinquagesima, deritxoenak, Beñgeikaro edo Garizima'rako gertatzeko dira, eta sei enparauak Pasko aldirako gertatzeko. Barau eta neke aldia da, eta Kristo'ren Nekaldi gogor eta Biztuera arigarirako geure biotzak gertau daiguzan, eleiz soñeko abesti ta eleizkizunak berarizko itzal eta benetasuna agertzen dabe. Obenak aurtu eta oben nekea egiteko aldia da, baita geure biotzak Yaunañtzaren bidez goiko bizitzaz sendatzeko aldia. Gertatze luze onen ondoren poztasun zoragariz Eleiz Ama agertzen da, Nekaldi gogoren ondoren Kristo oben eta eriotzaren garailari ñen artean Beren almenez biztu dalako, *bost* igandetan zuriz yantziten da.

Eleiz urteko irugarren Aroa.

Geroz Azte erdian Yesu'en Igokunde ospatuta, Espiritu Santuaren Etorkunde Arorako gertatzen da pozez beterik, gogoa goi - eskañez beterik uste dabelako Espiritu Santuaren Emaitzak beragantzeko itxaropenaz ia lastasunaz aztu lez egiten da. Eta Espiritu Santuaren egunean, Maitasunaren yaya dala-ta, ospatzeko igande bitan goriz yantziten da Eleiza. Geroz igande bi, Irutasun eta Gorpuzti eguna zuriz ospatu ondoren, Urango Abendurarteko *ogetalau* igande enparauak kristiñau bizitza adirazten dabe eta Eleiza len esan dan lez orlegiz yantziten da.

Olantxe Eleizak Yaungoikoari urteko

berogeta amabi igandeak eskintzen dau-
tsoz.

Eleiz urtea noiz asten da?

Len aitatu dogunez, Eleiz urtea, esan
beařik ez da Elgaro edo Abenduaren le-
nengo igandean asten dala. Beti baña
ez da izan bardin. *Boskařen* gizaldian,
Andra Mari Martikoz Eleiz urtea asten
zan. Gero, Yai au Gariximan yausten
zala-ta, Lotazilaren 18'a aldatu eben, eta
auxe egin eban 665'n. egin zan To-
ledo'ko Eleiz Batzařak be, beste toki ba-
tzuetan aldatu ebela ikusirik.

Baña amařgařen gizaldi ezkerotik
Eleiz urtea Abenduko lenengo igandean
asi izan da, eta alantxe yařaitzen dogu,
Eřomatař Eleixan.

Auxe dala-ta Eleiz otoi idaztiak Aben-
dudtik azten dira. Urteen asiera au ezin
leiteke yausi ez Azila'ren 26'an auretik
ezta Lotazilaren 3'n. baño geroago be.
Eta gai au amaitzeko.


Elgaro edo Abenduatza zertxobait

geyago esan daigun. *Adventum* itzak
Elgaro edo eldu-aroa esan gura dau,
edo obeto esateko «Eldutea, edo eltzea»
Yesu-Kristo eltzen danerako gure biotz-
ak gertatzeko Eleizeak aukeratu dabən
aldia da-ta. Eleizak Elgaroan bere se-
meoi eskatzen dauskuna, lastasun eta
apaltasuna da, eta bai ta Yesus'en gurari
bizi bat, Lege Zařeko Erkaba eta Igař-
leak, euren otoi idatzi eta iragařietan
agertzen eben gurari bixia. Ořetarakoxe
eleiz-otoui eta Mesetan irakuřgai ederok
ipinten dauskuz. Eta Kristiřnau zintso
lez, «Yaungoiko Zalekook» batez be oře-
tantxe alegindu beař gara.

Eta ori egin beař dogu, Eleizari zor
dautsogun menpetasunagaitik; Yesu
Kristo'ri dautsogun eskař onagaitik eta
geure gogoaren onuragaitik.

Elgaro noztikoa da?

Ziur-ziur ezin geinke esan, baña bai
dirudi VI'n. gizaldian ezagutzen zala.
Aldi aiako Eleiz Batzař batsuk Martin
deunaren egunean azitako Gaboneiarte-
ko lastasun aldiatza itz egiten dabe.



Pipia artzen

Toki askotan Garizima antzera sei aste
ta berogei eguneko barauak egiten ziran.
Alan da be Gabon yayetarako gertatze-
ko aldi au, askoren eretxiz, lenagokoa da,
eta V'n. gizaldian beintzat ezagutzen za-
la diñoē. Dana dala, guri dagokiguna,
albait ondoen ospatzea da-ta, orixe egi-
ten alegindu gaitezana; gai onetzako iz-
par gustiak baño onura geyago ekařiko
dausku-ta.

Gai oneik astun xamař ba'dira, baña
nozik bein erabiltea egoki deritxogu, es-
ku arřean darabilguzan gauzak zertara-
ko diran yakin barik bizitz au amaitu ez
daigun be...

!AGUR̄ AMA SORTZEZ GARBIA;

Sortzez Garbi zaran Ama
samur̄ ezti, kutuna,
nai neunke ludian bildu
lili oron luřuna,
Zuri pozez eskintzeko
maitasun semekořez
Zu zara ba Gizadian
Orban bagea Sortzez.

Eder̄tasunez beteko
lora polit, guriak,
ludian diran onenak
txorta baten gustiak,
nai neuzkez euki ementxe
gaur̄ opaltzeko Zeuri,
Zeu bakar̄ik zaralako
Sortzetik Gustiz Garbi.

Txoritxoen abots zoli,
gozo ta ezfitsuak,

Goi-gotzonen zoragaři,
legun eia amaultsuak
nai neunkez euki oraintxe
goraltzeko Zeu Ama:
¡Aguř Sortzez Garbi ori!
¡Aguř Ama laztana!

Baña besterik ez daukat
biotz argal au bařo,
bere leraz beti nařaz,
yausita luřerařo,
alan be, Eřuki utsa
zarealako pozez,
Zeure maitasun andien
bařengo eskař onez,
biotz gustiaz diřotzut
seme meitetasunez:
¡Aguř Eskar̄ezko Ama!
¡Aguř Garbia Sortsez!

GABIREL

ANDIK ETA EMENDIK

Koliseo'ko Gurutza deuna.

Efoma'ko koliseo edo yolastokia gustiz ospetsua da, batez be ainbeste kristiñau zintzok Kristo'ren aldez bertan sañetako odola izuri ebelako. Amaikatxok leoi amofatu eta beste basa piztien erpa artean zatituta euren odol edefaz toki ori busti izan dabe, batez be, Eleizaren lenengo al-dietan. Toki oferi kristiñauok itzal eta begirapen andia izatea ez zan ba afitzekoa, bertan gure ainbeste anaik euren eta geure ziñestea egiztuteko ain kemen eta adore andia agertu ebelako. Toki ofetan ba gurutza edef bat ipiñita zegoan, eta Eleizaren etsayak Gurutzaren etsai diralako, Efoma'z yabetu ta urte batsuk bañu, 1874'n Gurutza kendu eben.

Eta orain Italia'ko agintarien baipenaz bañiro 8 metroko gurutza bat ipintea erabagi da, kristiñau gustion gurariak betetako. Gurutza ori toki atara eroatea Ufiñaren 24'an egin zan Yerosolim'eko Gurutza Deuna deritxon eleizan onetsita Koliseo'ra eroan eben langiñe bazkuntakoen lepoz, «O crux ave, spes unica» abestuz,

eta Efoma'ko yoale kanpai gustiak inguru gustiak alaitzen zituezan bitartean. Ibildeunean ikufiñik ez zan eroan, gurutza dagon tokian besterik ez dala beañ-eta. Ilun abañ zan eldu ziraneko eta Koliseo inguruan 100.000 lagun baño geyago bilduta egozan. Gurutza deuna emakume andikiak gertautako toki baten ipiñi eben, eta *Te Deum* andikiro abestuz yai gomutagañi au amaitu zan.

Mexiko'tar Katolikotafak.

Gogof diardu etsayak, baña bai eurak be kementsu ziñestearen aldez. Yakiña da katolikotafak arñtu eben erabagia, eleizaren etsayak txindia atara leiken diru etxe, saldu erosi eta arñtu emonetarako euren txindirik ez emotea izan zala. Mexiko'ko basteñ gustietan zabaldu eben ofi baten esaten eben lez, ofetarako sortutako bazkunak eskatzen eutsen garaitzale urtetzeko: Ez auto ta kamioirik erabili. Zine ta yolas eta yayetara ez yoan. Loteriko txartelik ez erosi. Beañ zana baño ez gastau edo eralgi. Bazkun onek erabagiaktzaz ez ezda baidarik euki. «Boikot»

ori dala-ta gobernuaaren aldeko etxe askok pofot egin dabe, batez be diru etxeak, eta toki askotan oyal saltzea euneko befogetamañera yatsi da, eta bardin bilbel saltzea be. Esan beařik ez da zine asko atek itxi beařean aurkitu dirala-ta abaf. Gobernuak bide gustiak arțzen ditu, baña alperřik. Azkenez begira noraoño eldu dan. Huajuapam eta Saltiño'ko gotzañei Eleiza, ikastetxe eta kendutako gustiak bařiro biurtuko dautsiezala agindu dautse Eřoma'gandik aldentzen ba'dira. Yakiña, gotzain adoretzuok eskintza lotsagaři oni beař dan lez erantzun dautse, eta beste barik espeřteratu dituez. Tabasko, Txiapas, Aguaskalientes eta Bapaniła'ko gotzañak espeřteratuta dagoz. Bitartean katolikotařok geure anayen aldez ustez beterik otoi dagigu, eta itxaropen au Aita Santuak ango goigotzain bateri, Berari emonda'ko kustuđi edeř bat emotean agertu dau. Kustudi ori esan eutson erabili beař ebala, bakeak egin da Yaungoikoari eskeřak emoteko, Mexiko'ko gotzain Eleizan egingo zan eleizkizunean.

Baita Idazki orokoř edo enziklika edeř bat idatzi dau gai onetzaz, baña ez luzetzeařen uřengo laburpen bat baño ezpada be emon dogu.

Eleiz kaltezko yasarpenak dirala-ta.

Begira zetan gelditzen diran. Orain urte asko ez dala Portugal'en Mexiko'ko antzera, Gotzain, abade, lekaima ta abar gustiak yaurtiteko legeak emon ebezan. Ořeĩñak egin yok! esango eben euren artean. Bañan antxiñakoena esan leikioe: «Zuek iltzen dozuezan ildakoak osasun ona yaukiek». Eta ara egiztuta. Orain egun batzuk, Liskoan ango Patriarkaren yauregian, bertan ospatu dan eleiz batzařa amaitzeko yai bat eginda, eta gotzañari agur egiten 10'000 lagun Bazkuntako ordelari ta abaf eldu dira. Yasarpenak sua biztu egiten dau eta aizearen lana egiten dabe uste barik.

Batikano'ko Eleizaren 300'gn. urtea.

Aziřaren 18'n bete dira irureun urte, Iudiko Eleizarik andi ta edeřen au onetsi zala. VIII'n Urbano'k 1626'n onetsi eban Bramante, Mikel-Anjel eta Maderno'k konstantino'k egindakoen ořdez egin eben eleiza au. Lengo ařia 1506'n II'n Yulio'ren aldian ipiñi zan. Beraz eun urte baño geyago irauñ eben lanak, eta lan ařigaři onetan *bereun miloi* laurlekotik gora eralgi ziran. Iges bere neufiak eta abaf emon genduzan eta ez goyaz bařiro ipinten. Eun urte au ospatzeko eleizkizun edeřak egin dira Merry del Val bertako yaupalburu nagosi zala.

Irlanda'n irakurgai lizunen aurka

Irlandaf agintariak, lizunkeria eřien ondamedia dala ezaguturik, gogoř ekin dautse zine ta antzezki galgařien aurka.

Eta bide erđian gelditu barik, irakurgai lizunak oitura onari egiten dautsen kaltea andia dala yakiñik, onein aurka egiteko «Irakurgai lizunen batzordea» aukeratu dau. Eta euren asmoa da, sartzen ez itxlteko edo baita azteřtu barik, ez argitaltzen lagatzeko. Euren lana iragafkietara be zabaltzen da. Baña batzorde onek erabagiak ařtzen dituan artean gogoř diardue lan onurakoř onetan batez be, «Catholic Truch Society» deritxon bazkunak itzaldi, batzař eta zabalkundeaz, txařak saltzařerik be euki ez dayen gogoř eķiřen dautso. ¡Orixe bai dala lan onurakořa, eta emen be beařekoal!

Izpař txorta.

Iruña'ko Gotzain Muxika'tař Mateo agurgařia, Eřoma'n izentau dabe, Espana'ko Abade Bazkun Mixiolarien buru izateko.

Len, bere eriotzararte Benloch kardenal ospetsua izan zan. ¡Gure zorion agurik sutsuena ařtu bei Iruña'ko Gotzain agurgařiak,

Lotaziła'ren 23'ko konsistorioan Aita Santuak kardenal bařiak izentauko ditu izpařak diñoenez. Oneixek izango edo dira.


Van Roey Malinas'po goi-gotzaña. Rikardo Sampere, euskotař odolekoa; Aita Santuaren gela-otsein burua. Nikotra, Lisboa'ko Goi gotzain yauna, eta baita Gamba Turin'goa.

Euskotařak basteř danetan ertza sartzen dau. Oraintsu Zubiri yaun abade gasteak, Madrid'eko irakastetxe Nagosiko irakaslaritza gustien txalo artean irabazi dau, Donostiař onek 28 urte baño ez ditu. Gure aizkidide Donostiař abak ostera bere Aita Prantzizko deunatzaz idatzi itxi ditu. Antzokia egun bietan gonburu ei zan. Baita Aita Lande begikoa oraintsu Paris'en ziñoapa zoriondun bařien omenez egin diran eleizkizunetan, izlari guren lez agertu da. Iru izlari izan dira; Braudillart eta La Seme Gotzain yaunak eta irugařena Lande aba. Onen ondoan ipinteko zer edo zer izan ein beař. Gustioi gure zorionak.

M'iaf G.

ZER EDO ZER

AITA SANTUA TA MEXIKO'KO YAZARPENA



MEXIKO'N katoliko' tar zintsoak, yazarpen edo persekuziño goñien azpian dagozala gustiok dakigun gauza da. Baña ba'da norbait, eta ango agintariak dira, basatiena dirudien yazarpen onen bañi lateñietan zabaltzerik iñondik be gura ez dabena. Eta oñetarako agintariak euren eskuetan daukiezan bide ugari gustiak artzen dituez, euren orde-lariakandik asita, an legeak bete baño ez dala egiten bazter gustietan esateko. Yo, erail, ostu ta sakabanatu, eta, oker dabilenen antzera, gaiztakeria esku-tau gurarik alegin gustiak egin. Au ikusirik alde batetik, eta bestetik ango katolikotañen zintsofasun eta adorea, Aita Santu agurñari XI'n Pio'k, gai onetzaz

argi ta garbi idazki eder baten itz egin dau, gauzak diran lez azaltzeko ta ba-koitza bere egiteak ipinten daben tokian ipinteko. Eta gaur beronen laburpentxo bat ementxe ipintea otu yaku.

Legea, bidebagekeriaren estalkitzat

Iniquis afflictisque nominis catholici rebus itzakaz asten dan Azila'ren 18'ko idazki onetan, Aita Santuak eskeñak egiten dautsez gotzañei berak Mexiko'n aldez otoi egiteko eskariai ondo eran-tzun dautsielako. Otoitzak alperekoak ez dira izan, eta yazarpena amaitu ez-pada be, zintsofasun eta adorea ango katolikotañetan ugaritu dala dakusgu. Yaungoikoaren eskuetan dago gauzarik samingañienak onuratsu biurtzea, eta oin be katolikotañak agertu daben ke-

men eta sendotasuna eta emon dabezan ikasbide ederak, Berak idazki onen bidez gustiei yakin eraso gura dautsiez. Yazarpen au gogoña dala diño, eta lenengo gizaldietan eta beste aldi batsuetan be, kristiñauak gogoñkeri ta ankerkeririk andienak igaro izan bear ba dituez «bear ba'da, gizon taldetxo batek iñon ez eban ito izango geyeñen azkatasuna, ain ondo oldostutako arauakaz, Yaungoiko ta Eleizaren eskubideak auzi ta ostikopetuta, lengo gauza goragariak aintzat arñu barik, eta euren erikideen ain eruki gitxigaz, gañera lege antzeko batsukaz bidebagekeria estalduta».

Mexiko'tařak igaro dituen atsekabeak

Gustiz andiak izan dira igaro diran urteetan. An ain ugari izan diran nazpil, itxulaskunde edo ereboluziñoetan, batez be 1914 ta 1915'n. antxiñako basatikeria euren zañetan eroyela zirudien gizonak; abade, lekaide ta monja ta Eleizan aurka suminduta iñon diran irain ta gaiztakeriak egin zituazala, ludi gustian zabaldu ziran gauza yakiñak dira. Ondiño bariz oraintsu, «Zuzentza, sentzun, leyaltasun eta gizatasunari begiratu barik, Mexiko'ra azken urteotan bialduta-ko Ordolari beldukařak (Aita Santuarenak) bata Mexiko'tik yaurtia izan zan, bigařena osasuna zaintzeko alditxo baten urten beařa euki eban eta bariro biurtzen ez eutsoen itxi, eta irugařena be etsai lez arñu ebelako aldendu beařean aurkitu zan». Au bariz irain andi bat eurentzat eta bialdu zituan Aita Santuarentzat dala, esan beařik ez dago.

Oneik berez gauza astunak dira; baña ondiño kaltegarigoak dira agintariak lege izenaz katolikotaren aurka egin dabezan bidebagekeriak.

1917'n. Mexiko gustirako Legedi bat

onetsi eban; Legedi ořetan Eleizari eskubide gustiak ukatzen yakoz; prakadunei eleiz guřtzan sartzen itxi; abadeak beste edozein langiñen mañan ipinten dabez; eta ori alde bategaz; lenen mexikařak bakařik izan leitekez, eta eurak be erki bakoitzeko agintariak izentatzen dituenak baño geyago ez; eta ořez gañera eskubide gustiak ukatuaz, gaizkin eta zoroen mañan ipinteraño eldu dira. Eta beste gauza askoren artean gopatzetan egin oi diran eskintza edo botoak Mexiko'n eragotzita dagoz. Eleiza, gotzain-etxe, ikastetxe, eruki-etxe ta abar gustiak gobernuak beragandu dituz. Abadeak senitasunez izan ezik ezin leikie erentzirik eurekandu. Eleizari eskontzazko eskubide gustiak ukatzen yakoz, eta lege arauz egin arñe eleizakoa ez da aintzat arñzen. Irakaskintza edozeñentzat azke da, baña abadeak ikastolarik idigi ta zuzendu ezin leikie, eta ikastola gustietan erlejiño irakastea zero eragotzita dago. Lege oneik emoteko, Aita Santuak diñon lez, ala Kristo Eřegeak gizartean daukazan eskubideak zeintsuk diran ez dakiez, eta au ziñesgatxa da kristautasunak ogei gizaldi iraun ondoren eta ugutzautakoen erian, ala arokeriz eta zorakeriz eustazpi bi-ziaren gañean dagon Eleiza ondatu ezina, luřeratuko dabela uste izan dabe, era gustietara Eleizari kalte egiten alegindu-ta.

Gotzañak lege onein aurka

Lege antzeko oneik ikusirik Gotzañak euren beařkunari uts egin barik ezin zeitekezan ixilik egon, eta bereala lege galgaři onein aurka yaiki ziran adore ta kemen andiaz, lengo Aita Santuak eta oingoak be ontzat emondako idazki ederen bidez. Uste izan eban, lenengo

sumin - aldia igarota, agintariok eñari egiten eutsen kalte andiaz konturatuko zirala, eta bakearen, lege galgariok albait gitxien ezariko ebezala, alkar aitzen ziran bitartean. Eta eñiak eta abadeak, goztañen eskariz, eroapen geyegigaz itxaron añen, bakeak egiteko itxaropen gustia galdu eben. Eta izan be Garagarila' ren 2'n. erepublika lendakariak, abadeai euren arazoetarako azkatasun gustia kentzen dautse, eta bearkunak betetea zigoñtu be bai, gaiztakeri bat balitz lez.

Agintaritza ain gaizki erabiltze onek, diño Aita Santuak, ezin esan alean atsekabetzen dabela. «Bere bearkuna betetako Yaungoiko gure Egile ta Erosle maitagaña guñtzen dabenak; Eleiza Ama Deunaren aginduak betetan dituanak, gizarteko eskubideak kendutea merezi, ta gaizkiñekin espetxean sartua izan bearko ete dau? Zuzen bai zuzen ezari geinkioez bidegabekeri andi onein egileai, Yesu - Kristo'k yudaren buruei ezaritako itz oneik: «Auxe da zuen ordua, eta ilunpearen ala».

Eta oñez gañera Eleizari ta eleiz gizonai izen ona kentzen alegin gustiak egiten dituez, bai batzaretan edozein guzur esanda, eta euren alde egin gura dabenai itz egiten ez itxita, baita izparingi gaiztoen bidez iñon diran irain eta guzurak bazter danetan eraiten aleginduta. Eta aita Deunak diñon lez, lenengotan izparingi onak zerbait esan al izan baben be, oin, Eleizaren aldezko itzik esaten be ez dautse lagatzen. Onen aurka diño XI'n Pio'k,

«Geuk didar egingo dogu»

«Baña, geure bearkun beldukarak bulztatuta, Anai agurgariak, Geu izango gara didar egingo dogunak, gustion

Aitagandik mundu gustiak yakin dayen, zelangoa izan dan alde batelik etsayen neuribako ankerkeria, eta bestetik zelangoa izan dan, Mexiko'ko Gotzain, abade, eleiz anaidi ta bazkunak agertu daben izugarizko kemen eta adorea.



¡POZTU ARTZAÑAK! GAIZKATZALLEA
YAYO DA...

Erbestetar abade ta praleak yaurti ebezan; kristiñau asiera emoteko egozan neska mutikoen ikastolak itxi eragin dituez; ala deunen izenen bat eukielako edo irudien bategaitik be bai; baita abade ikastetxe gustiz asko, ikastola lekar-etxe eta eleiz etxeak itxi dituez».

Eñki geyenetan, gauza negarñariak ezpalira, baldintzarik baregarñienak ipiñi eutsezan abadeai; esaferako izentautako adiñekoak izan bear ebela; zibilez eskondu bear zirala, eta ur korontagaz

bakarrik bateau leikiela ta olango kirteneri batsuk.

Orez ganera alegin gustiak egin dabez, gobernuen menpean dagozan gustiak euren aldez ipinteko, eta erabagiok ontzat emon ezik, bizibidea galtzeko zemakuntzaz.

Eta onetan ez dira gelditu; itzez eta egitez Eleiztaeren eskubideak zaintzeko zerbait egin dabena, oriak zabaltzeagaitik bakarrik be, gizon eta emakume asko espetxeratu dituez. Baita irañik andienak egin ondoren, abade ta kristiñau lau asko ankerkeriz erail dituez.

«Yaungoikoak naiko al dau, diño Aita Santuak, ainbeste ta ain gaiztakeri andien erudun diranak, bein ta betiko euren barura begiratu, eta damutasun eta negaeren bidez Yaungoikoa'ri eruki eskatzea! Auxe dala, ezpai barik ziñestu bea' dabe, bidebagekeriz eraildakoak euren eraileentzat Yaungoikoari eskatzen dautsen azperkunde edo bengantza bikaña.

Eleizaren azkatasun eta eskubideen aldez.

Gotzañak lenengotatik, euren eskue-tan eukiezan bide zuzenak artu ebezan, Eleizaren eskubideak aldezteko.

Eroapen larregiz itxaron da, banaka eta danak batera idazki ede' eta goragari asko zuzendu dautsez euren menpekoei, euren bea'kuna argiro azalduaz, eta zintso yokatzeko, irakatsi ede'eren bidez adoretuaz. Baña ikusirik azkenez emon eben legeaz, eleizak, eleiz gizon eta eleizkizunak prakadunen menpean ipinten ebezala, nayago izan eben eleizkizun gustiak bertan bera itxitea, eleizari dagokion azkatasun barik aufera eroatea baño.

Gero lanik asko egin dabe, gobernuaz

bakeak egiteko, baña orain arteko alegiñak, etsayen amoria biztuteko baño ez dirala izan esan leike. Etsayak bere asmo galgariak aufera eroateari baño ez dautso begirutzen.

Mexiko'tar abade ta kristiñauen zintsofasuna.

Etsayak egin daberen alegiñik andiena abadeen kaltez izan da, eta batez euren nagosiagandik aldentzen alegindu dira, baña alpe'rik; ba «danen artean lau milaño eltzen diran abadeetatik bat edo bik bakarrik euren bea'kunari uko egin dautse; gustia itxaron geinke mexikotar abadeetatik». Gustiak euren gotzañekin alkar'uta nagosien aginduak zintso betetan dabez, naiz ta oretarako, kalte andiak igaro ta txirotasunean bizi bea'; etxeetan mesa al dabenean esan eta alegin gustiak egiten dituez eleizta'ak adoretu, eta zintso yokatzeko euren biotzak gertatzeko.

Ez da ba aritzekoa ainbeste amoria abadeai eukitea. Baña oneik gertu dagoz espetxe, zigo' eta eriotza bera igaroteko, askok egin daberen lez, atzera egin baño len. Eleizta'ak be euren aldetik ede'ito yokatzen dabe.

«Iñoz be bea' dan beste ez doguz garralduko-diño Aita Santuak - Mexiko'ko eleizta' adoretuak, ondo ule'itu dabela-ko, katoliko'tar eria, Yaungoiko gur'iza, Eleizaren azkatasuna eta gogoen gaizkatzea lako gauza ain aztun eta deunetan ez dabela egon bea' batsuen burubagekeri ta asar'kuntzaren azpian; izatez, Yaungoikoen gurariz eta Eleizaren aginduz dagokiezan eskubidiekaz alkar'utako legepean baño».

Garaitzaren itxaropena.


Eta katolikotar' zintsoen adore ta on-

bide garayak goraldiaz, Eleizaren azkatasunaren aldez gogotsu yokatzen daben alkañtasunen lana, batez be Kolon' en Zaldunen, eta gastediaren lanak txalotuaz, Aita Santuak, beti lez Yaunaren laguntzaz goiz edo belu, baña ziur, garailari urtengo dabela diño. Eta azkenez, Mexikotar eriak gizabide ta auñera-pen gustiak Eleizari zor dautsozala edestiaz egiztuta, bere idazki edera

amaitzen dau, Guadalupe'ko Ama'ri eskatuaz erukia iraindu dabenentzat, eta bakeko eguna, Yaungoikoaren erabagiz, urin ba'dago, sendatu daizala euren zintestean Eleizaren azkatasunaren alde zintso yokatzeko.

Laburpen txatxa' au luzetxoa da baña, zerbait esatekotan ezin neikian gixiango.

GAMA



GOAZEN POZAREN...

Egun alai, pozgaría,
Yesus Yayotz eguna,
guretzat eldu zalako
goiko azkatasuna.

Eriotz baltzan azpian
zegoan gizadia,
luferratu arteraño
Gure Yesus maitea.

Zelango maitetasunaz
datoñen nok azteñtu?
Yainko neufgabearena
nok ete leike neurtu?

Askatxo baten etxunda
Ludiko Yaun Yabea?
Otzez darðar lastoen gain
gauz oron Egilea?

Zeru-lufak afiturik,
izaturik gotzonak,
ipiñi dauz neufibako
Yaunaren maitasunak.

Ondasun gustien Yabe
dana, dago bilozik,
Algustidun Yaun Altsua
azka baten etxunik.

Nor afituko ez da ba
Yaunaren maitasunaz?
Nok ez dau maiteko beti
bere biotz osoaz?

Afigaríia da zinez
Yesus'en maitasuna;
Eta ez afigaríia
gizonen ostasuna?

Kistañok Yesu Kristo'ren
yañaitzale garala,
nok uste lei oarturik
maitasun ain argala?

Yesus, dana emon yaku
gizonon maitasunez,
ta guk ez dogu maiteko
beti biotz-biotzez.

Goazen danok gaur pozaren
Belen'go estalpera,
maitasun zintsoenagaz
biotzok eskintzera:

«Añtu Yesus maite oñek
gure biotz epelak,
kiskaldu daizan betiko
zure maitasun-gafak».

GABIREL

Andik eta Emendik

Kardenal zañenaren bari batzuk.

Lotaziãaren 5'n bete ditu 90 urte Vinzenzo Vannuteli kardenal ospatsuak. Auxe dala-ta beragaz autu aldi bat egin dabena idatzi dituan izpañetik, onexek ipinten doguz. Vannuteli, 1836'n Eñoma ondoko efi baten yayo zan. 14 urte-dun, Kapranika ikastetxe ospetsuan saftu zan. Amañ urte bañu Teologi, Lege, eta Eleiz Lege-dian irakasle edo doktor txapela irabazi eban. Batikano'n teologi irakasle urte bi egin ondoren, IX'n Pio'k, La Haya'ra ordelari bialdu eban. Eta 1866'n Bruxelas'era. Orduan II'n Leopoldo eñe-ge egin bari zan, eta baita Merzier yanzkordun ospetsuaren mesa bafian be izan zan. 1874 eta 75'n aldendu zan eta bere ordez, IX'n Pio'k bere anai Vannuteli Serapin bialdu eban. IX'n Pio'ren azken urteetan idazkari ordezko izan zan. 1880'n, Sardesko goi-gotzain izentauta, Leon XIII'k Konstantinopla'ra bialdu eban. An urte oso onuratsuk igarota, 1883'n Eñusia'ra, III'n Alexander' en burustunzerako Aita Santuen ordez yoan zan. Antxe amalau urtedun mutiko zala, gero ain zoritzañefeko izan zan Tsaf Nikola II'na ezagutu eban. Eta Vannuteli'k diñonez, orduantxe be oañtu ei ebazan Eñusia'n gero eldu dan ondamenaren ezañgari batsuk. Gero Lisboa'ra ordelari bialdu eben, eta 1890'n kardenal autua izan zan. Beraz 36 urte kardenaltzan daroaz.

Geroztik Eroma'n lan egin dau. Aita Santuaren ordezko Eukaristi batzañ askotan izan da. Bruxelas'en 1898'n, Tournai'n 1906'n, Metz'en 1907'n, Londres'n 1908'n, Kolonia'n 1909, Montreal'en 1910'n, eta baita 1913'n Paris'en Ozanan'en eun-gañen urteko yayetan be.

Sei Aita Santu ezagutu ditu eta *bosten* menpeko ta laguntzañe izan da. Ondiño ondo gogoratzen ei da, XVI'n Gergori'n oneskuna noz añtu eban, au il zala 80 urte izan añen.

Aita Santu aututeko eñiten diran batzañ edo konklabeetan *lau* bider izan da. XIII'n Leon 1978'n autu ebanean idazkari ordeko izan zan.

Bere anai Serapin, XV'n Benedicto aukeratu ebanean, 1914'n Batzañ edo klonklabeeko buru izan zan. Eta 1922'n XI'n Pio autu ebanean berau buru, zañena zalako. Gauza bakana auxe. Aita Santu bien aututezko batzañean anai bi zañenak izatea. 1900'ko Yubileum izan zanean eta baita 1925'n, Maria Deunaren Eleiz nagosiko yaupal-buru zalako, beronek Ate deuna bietan zabaldu ta itxi ditu. Au iñoz ez zan gertatu.

Berak esan dabenez, alde gustietan aldakuntza andiak ikusi ditu, baña danen artean Eleizak auferapide andiak egin dituala be bai. Italia'n bertan, Eleiz ta agintarien añtu-emonak obetuez doaz, eta toki gustietan ziñeste-zabalkundeak auferapen andia egin dau. Tamalez baña baida eragospen bat une onetan, diño Vannuteli yaunak: «Zibilizau dirudien eñiak ez egin, eta ez eñiten laga be beañ ez leukien Mexiko'ko yasañkunde persekusiño lotsagañia. Baña ustetsu izan beañ gara gañf, au be igaroko da besteak igaro diran lez...»

Eta yoan-etoñi gustiok egin dituan agure au, ondiño adoretasu buru argidun eta sutsu dago, eta ointxe be, 90 urte euki añen, I bat baño artezago ei dago. Bere eguna ospatzeko bera buru dan Maria deunaren eleizan Yaunari eskeñak emoteko mesa emon eban.

Kardenal bari bi.

Zañaren izpañen ondoren, bafietzaz zerbait esan beañ dogu. Lengoan lau izango zirala zabaldu zan, baña, *L'Osservatore*'k esan dabenez, bi iña onen 23'n autuak izango dira.

Bata Lauri Laurentzi yauna Varsovia'n Aita Santuaren ordelari dana, Eñoma'taña berau, eta

eurak esaten daben lez «Romano di Roma» berau bakafik izango da kardenalen artean. 1864'n yayoa. Urte askotan abade izan ondoren, XV'n Benedito'k Peru'ko ordelari bialdu eban 1917'n, Epeso'ko goi-gotzain izentauta.

Ratti yauna, oraingo Aita Santua Varsovia'tik Milan'go Goigotzaintzara aldatu ebenean, 1921'n, Polonia'ko ordelari berau aukeratu eben. Lan onuratsua egin dabelako oso pozik egon dira beronegaz polonitar zintsoak.

Bigarrena Gamba Yoseph yauna, Turin'go goi-gotzaia. 1857'n yayoa, Piamontetafa da, Asti erikoa. 1901'n XIII'n Leone'k Biala'ko gotzain egin eban, 1906'n Novara'ra X'n Pio'k aldatu eban, eta 1923'n XI'n Pio'k, Turin'go goi-gotzaintzara.

Munduko ikaslerik karuena.

Prantzian bizi da. Saint-Jean sur-Vilaine erikoa da. Eri ofetan Yaungoiko bako ikastola bi dagoz bat mutikoentzat eta bestea neskoentzat. Ikastola biok *30 urtean* ikasle bakaf bat euki dabe, berau ango bide-zaiaren semea. Ikastola ofeik 30 urte ofeitan 212.000 franko kosta izan dira eta... mutil ofeik irakurten eta idazten be ez dau ikasi. Orix be *ilustraziñoa* dok gero, *demokrazia* ta olango gauzak nausi diran eri batarako. Maixuak bafiz ederto, zetan esan bez.

Gudaren ondorenak.

Gudaldian Prantzian bakafik 2 500 eleiza ondatuta gelditu ziran eta orain arte 500 bakafik baristau dabez.

Italia'n 1.000 inguru izan ziran ondatutakoak eta eurotatik 184 gustiz bafiztau dabez, eta enparauak atondu ta zabaldu be bai. Etsayak 10.000 kanpai eroan ebezan, eta 7.200 bafiro ipini dabez eta beste 2.500 laster dira ipinteko. Onetan lan egiteko bazkun bat guda ostean sortu zan, eta lanik geyen egin dabenen artean XV'n Benedito agufgaraiaren afeba bat da.

Guda, gizartearentzat gexo galgaria da, eta ondorenak zer egin emoten dabe.

Ingalandako katolikotafak.

Gogoz lan egiten dabe, ta gure ziñesteak aufferapen andiak egiten dituz. Ointxe egunokaz, lortu dabe VI'n Eduardo'ren alditik katolikotafen kaltez emondako lege batzuk gustiz kentzea.

Legeok, ogeta bost urte oneitan batez be geyenak basterfuta lez egon dira, baña orain, ibildeunetzaz, ministru buru izateatzaz eta beste onango eskubideak gustientzat bardiñak izango dira.

Lenago ez aldun, ez lord, ez gudaiburu ta abaf izateko eskubiderik ez eukien katolikotafak, legez, ofek baña aspaldian kenduta egon arien, beste batsuk ziran ondiño, eta azkenez ointxe lortu dabe kentzea. Katolikotafak ba aufera doaz.

Protestantetafak ostera, hein baño safiagotan aspaldian euren eleizak saldu heafean aurkitu dira. Ointxe bafiro, metodistak London'en euki daben eleiza bat katolikotafak erosi dabe. Eri asko dira, protestantetafak, eleizak bertan bera itxita, aldendu diranak, eta ezez katolikotafak eskuratuko dabezanak.

Lan egin ezkerero, Yaunak beti onesten dau. Eta ango katolikotafak gogof lan egiten dabe. Eta orain artean protestantetaf izandakoak ez dira azkenen.

Onein artean Ronald Knox, oraintsu Oxford'eko ikastetxe ospetsuko katolikotaf kapiñau izentau dabena, asko galentzen da. 38 urte ditu. Artzain protestantetafen semea, oso azkafa ta ikastuna. 1917'n katolikotaf egin zan, eta afezkerero itzaldiz eta idazkiz gure ziñestea zabaltzen diardu eten barik, eta gustiz yakintsua dalako, etsayei zirkin andia eragiten dautse.

Izpañ txorta.

1927'n otsailaren 11, 12, 13 ta 14'n, Toledo'ko kardenala buru dala España'ko katolikotaf gazteen batzar aundi bat egingo da, Kristo'ren alde, lenen alkaftu, eraldu ta gero gogoz lan egiteko.

Italitar gaztedi katolikotafak Erroma'n batzar bat egin dau. Bertan egin dan zenbakuntzan 105.885 bazkide dagoz alkaftuta, eta 49.983 izena emonda, laster sartzeko diranak. Alkartasun au ondo eralduta dago, eta 1498 abadek bazkun oneitatik urten dabe.

Australia'ko katolikotafak aufera doaz. 1413 abade dagoz. 843 lekaide, ta 1103 lekaime edo monja. Urtean 200 bat mesa bafi esaten dira.

Yamagutxi erian Yapon'en gure Zaindari ta anai Xabier'tar Prantzizko'ri bere irudi gomutaki bat iragi dautse. Idazkunan diñonez, bere lan onuratsugaitik Yapon eriak eskar ona era onetara agertu izan dautso.

Paris'go Louvre'ko Museum ospetsuan, ejitar gausen arduradun eta irakasle Driodon abade yakintsua autu dabe.

M'taf G.